

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3899

84/2016 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dena.

Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduaren 23an, 2000ko azaroaren 28an eta 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuretan hartutako Erabakien bidez, Hegaztientzako Babes Bereziko sei Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatu ziren, eta 52 gune proposatu ziren Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamena Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten BGLen zerrenda, 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkie, hurrenez hurren, eta hortxe kokatzen da gure autonomia-erkidegoa. Gune horien artean dago Aralar (ES2120011), Atlantikoko eskualde biogeografikoan, hain zuen.

Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzkoa den Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 4. artikulua eta irailaren 21eko 33/2015 Legeak aldatu zuen Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. eta 46. artikuluek ezarritakoari jarraikiz, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri ondoren, beren lurralde-eremuko BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu eta eremuok behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezarri beharko dituzte, kontuan hartuta lekuan lekuko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen arabera betekizun ekologikoak. Kontserbazio-neurri horiek izango dira, batetik, kudeaketako planak eta baliabideak, eta, bestetik, erregelamenduzko neurriak, administratiboak edo kontratuzkoak.

Honen bidez, Aralar KBEa izendatu eta eremu hori kontserbatzeko neurriak onetsiko dira. Eremu horren mugaketa neurri handi batean bat dator izen bereko Parke Naturalarekin. Hori apirilaren 26ko 169/1994 Dekretuak jo zuen parke naturalizat. Beraz, gaur egun, eremu horrek Naturagune Babestuaren tipologia bikoitza biltzen du, hau da, Parke Naturala ez ezik, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua ere bada. Horren ondorioz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren (NKLTB) 18. artikuluaekin bat, horien plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren araberatik aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin.

Parke Naturalen kasuan, bi tipologia arautzen dituen dokumentu bakarraren lege-aurreikuspena ezin da gauzatu, legeak berak ezartzen baitu tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatze Plan (NBAP) batek (NKLTBaren 20. artikulua) eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plan (EKZP) batek (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar dituztela. Hala ere, bi baliabide horiek Naturagune Babestuaren (NB) bi tipologiaren premiak betetzeko baliagarriak izan daitezke, nahiz eta helburu eta eduki desberdinak dituzten.

Gainera, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organismoek dituzten eskumen konkurrenteak koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren bi tipologiaren deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke Naturalari dagokienez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); EKZPrako, aldiz, prozedura bifasikoa jarraitzen da. Hau da, lehenik, foru-organismoek bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion

jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29.e artikulua). Bestalde, KBEei dagokionez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 22.5 artikulua lehen paragrafoa) eta neurriak foru-organoei dagozkie (NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoa). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAA-n argitaratu behar izaten dira beti.

Koordinazio hori ez da posible izan. Izan ere, beste eremu batzuen egokitzapena atzeratzea ekarri duen NBAP batzuen tramitazio luzeak sortutako eragozpenez gain, behin betiko onartzeko zain dagoen EKZP dokumentua EAeko Natura Kontserbazeko Legeak ekarritako arau-aldaketaren aurretik bideratu zen, eta ez ditu betetzen NKLTBaren 18. artikulua aipatzen duen dokumentu bakarraren izaeraren parametroak. Artikulu horren arabera, dokumentu horrek honako hau jaso beharko luke: batetik, Natura 2000 Sareko eremua kudeatzeko jarraibideak eta neurriak, 22.5 artikuluaekin bat; eta, bestetik, 27. artikuluari dagokion Aralar Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana.

Horregatik, Dekretu honen helburua Aralar Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea eta Habitat Zuzentarauaren 6. artikulua horrelako KBEetarako eskatzen dituen kontserbazio-neurriak onartzea baino ez da; beraz, NKLTBaren 18. artikulua ezarritakoa betetze aldera, dokumentuak egokitzea geroko utzi da, azken xedapenetan lehenengoan jasotakoarekin bat.

Hori horrela izanik, 92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ezarritako betekizunak betetze aldera, Aralar sakon aztertu da, eskala egokian irudikatu da Batasunaren intereseko habitaten banaketa eta haien kontserbazio-egoera ebaluatu da. Horretaz gain, gune horretako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien banaketa eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Aralarren, gutxienez, Batasunaren intereseko habitat naturalen 18 mota daude; horietako bostek lehentasunezko izaera dute. Horien artean, nabarmentzekoak dira harkaitzak, basoak, larreen eta landen gune ireki zabalak eta hezeguneren bat; horiek, guztira, fauna-balio handiko habitaten multzoa osatzen dute. Halaber, leku horretan 43/92/EEE Zuzentarauaren II. eranskinean biltzen diren bi flora-espezie daude gutxienez, II. eta IV. eranskinetan biltzen diren 13 fauna-espezie, II. eranskinean bakarrik biltzen diren 6 espezie gehiago, eta IV. eranskinetako 13. Nabarmentzekoa da, 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean biltzen diren 19 hegazti-espezie daudela, gutxienez. Aralarren, Euskal Autonomia Erkidegoko mendilerroetan bakarrik agertzen diren goi-mendiko espezie batzuk daude; beraz, argi dago babesleku biogeografikoa, kantabriar eta piriniar mendien arteko lotura edo bertako espezieak sakabanatzeko gunea dela. Adibidez, honako hauen kasua da: lursagu elurtarra (*Chionomys nivalis*), ugatza (*Gypaetus barbatus*), gailurretako uhandrea (*Ichthyosaura alpestris*), okil beltza (*Dryocopus martius*), mendi-tuntuna (*Prunella collaris*) edo belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*). Aralarrek duen kasuistika berezi hori dela-eta, komeni da mendialde horretarako dekretu-proiektu bat berariaz lantzea.

Horretaz gain, xehetasun-lanei esker lortu diren habitat moten azalerari buruzko datuak, zenbait kasutan, ez datoz bat Europako Batzordera –Euskal Autonomia Erkidegoko tokien zerrendaren proposamenarekin batera– igorri eta jakinarazitako datuekin. Gainera, xehetasun-azterketari esker habitat jakin batzuen interpretazioa zuzentzeko aukera izan da. Esate baterako, egiaztatu ahal izan da, eremu batzuetan, inprimakian adierazitako zenbait habitat-mota ez zeudela; eta, aitzitik, hasierako proposamenean adierazi ez ziren habitat-mota batzuk bazirela.

Lan-eskala hobetzearen ondorioz mugatu da KBE hori, baina horrek ez du aldaketa garrantzitsurik eragin mugetan, ez habitat naturalen azalaren irudikapenean, ezta Batasunaren intereseko flora- eta fauna-espezieen populazioetan ere.

Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko prozeduran, parte-hartze sozialaren prozesua behar bezala bete da, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz. Prozesu horretan, interes sozial eta ekonomikoen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Parte hartzeko bideak zabalik egon dira izapidetze-prozesu osoan, publiko interesdunari komunikazioak helarazita ingurumen-organoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen web-orriaren bitartez: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Guneari buruzko informazioa eguneratuta egongo da beti webgune horretan.

Aralar kontserbatzeko baliabideak Europako Batzordeak ezarritako printzipioei jarraikiz landu dira, 92/43/EEE Zuzentarauan jasotako eta eremuan topatutako habitat eta taxonen betekizun ekologikoei erantzuna emateko asmoz.

Horrenbestez, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 19.1 eta 22.5. artikuluetan eta, bestetik, irailaren 21eko 33/2015 Legeak aldatu zuen Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. eta 46.1 artikuluetan ezarritakoarekin bat, jendaurrean jarri ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2016ko maiatzaren 31n egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu (hemendik aurrera, KBE) izendatzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

2.– KBEaren mugak Dekretu honen I. eranskinean jasotako kartografian agertzen direnak dira eta, eskala-egokitzapenak egin ostean, bat datoz Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian bildutako Batasunaren Garrantzizko Lekuen mugekin. Gainera, eranskin horretan, Babeserako Eremu Periferikoa ere jasotzen da, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 19.2 artikuluekin bat.

3.– Onartu egiten dira Aralar KBEa (ES2120011) kontserbatzeko II. eranskineko neurriak. Horiek bat datoz Dekretu honen 3. artikulua ezarritako edukiarekin.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea honako hau da: KBEan bermatzea Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen direla edo egoera horretara berriro ekarriko direla. Habitat horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horretaz gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbazioari buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, baita eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatzeko dela bermatzeko.

2.– KBEan, honako hauek ezarritako araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentaraua eta irailaren 21eko 33/2015 Legeak aldatu zuen Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 22.4. artikuluekin bat, II. eranskinak KBEaren izendapena argudiatzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoeraren ebaluazioa, eremu horren kontserbazio-helburuak, kontserbaziorako erregulazioak eta jarraipen-programa jasotzen ditu.

2.– KBEa kudeatzeko jarraibideak eta neurriak Aralar Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean gehituko dira.

4. artikulua.– Funtsezkoa ez den berrikuspena edo aldaketa.

II. eranskinean funtsezkoa ez den berrikuspen edo aldaketarik behar izanez gero, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango duen agindu baten bidez egingo da, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan eta 2009/147/EEE Zuzentarauan ezarritakoa betez. Izan ere, helburua da kontserbazio eta kudeaketa moldaeraz, etengabe eta malgu baterantz jotzea. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 27/2006 Legeak ezarritakoari jarraikiz; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

5. artikulua.– Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

Dekretu honen eraginpeko naturagune babestuei ezarri beharreko zehapen-araubidea honako hauek arautatutakoa izango da: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina eta irailaren 21eko 33/2015 Legeak aldatu zuen Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak egiteko, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu hau onartzen denean, Parke Naturalaren eta KBEaren mugak bat etortzeko prozedurari ekingo zaio, eta Parke Naturalaren NBAPa eta EKZPa Naturagune Babestuen bi tipologia horiek arautuko dituen dokumentu bakar bihurtzeko prozedura ere abiaraziko da, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2016ko irailaren 13a, asteartea

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Busturian, 2016ko maiatzaren 31n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

MAIATZAREN 31KO 84/2016 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

KARTOGRAFIA

http://www.euskadi.eus/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_84_2016/aralar.json&lang=eu

MAIATZAREN 31KO 84/2016 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

ARALAR KBE-ARI DAGOZKION INFORMAZIO EKOLOGIKOA, KONTSERBAZIO-HELBURUAK,
KONTSERBAZIO-ARAUAK ETA JARRAIPEN-PROGRAMA**1.- SARRERA.**

Eusko Jaurlaritzak Aralarko Natura Baliabideak Antolatzeko Plana onetsi zuen apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuaren bidez. Plana Aralar parke naturaleko natura baliabideak planifikatu eta kudeatzeko tresna da, Naturaguneak eta Basaflora nahiz Basafauna Kontserbatzeko martxoaren 27ko 4/1989 Legean aurreikusitakoaren ondorioetarako, eta halaber, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean aurreikusitakoaren ondorioetarako. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak Aralar parke naturala izendatu zuen, apirilaren 26ko 169/1994 Dekretuaren bitartez, 1994ko uztailaren 4an EHAAn argitara emandakoa.

Aralar Euskal Autonomia Erkidegoko mendi-eremurik garrantzitsuenetakoa da, haren zabalera, garaierak, natura balioak eta paisaia-eragina direla eta. Mendigunearen muina 1.200 metrotik gora dago azalera zabal batean, eta ia dena larreei eskainita dago. Aralarko barne-paisaiak eraketa karstiko nabarmenak ditu ezaugarri, eta mendiko berezko alderdi bati berez dagozkion elementuz hornituta dago: baso garrantzitsuak, larre menditar zabalak eta larre harritarrak, gailurrak, harkaiztiak eta sakanak, errekek eta iturburuak, eta geologia-alderdi bikainak.

Aralar Mendiaren erdialdean eta ekialdean (garaiena), bazkalekuak nagusi dira paisaian, eta ia ez dago basorik. Hegoaldean, pagadi zabalak daude, bai eta interes fitogeografiko nabarmena duen artadi kantauriarrez osaturiko masa bat ere.

Aralarko lurzorua bi ekoizpen-erabilera nagusi ditu. Batetik, abeltzaintza-erabilera, ardi latxa garrantzitsua baita kopuruz, eta borda nahiz saroi ugari daude mendian han-hemenka. Hein txikiagoan,azienda nagusia ere mantentzen da; zaldi-azienda batez ere, eta behi-azienda. Larre-eremua eremu garai guztian zabaldua dago, eta gutxienez azaleraren heren bat hartua du.

Baso-aprobetxamenduak, bestalde, lekuaren ertzetan egiten dira gehien: hau da, hegoaldeko zerrendan, iparraldeko ertzean eta domo-eremuan. Azken horretan, konifero-sailek (alertzea, larizioa, Douglas izeia eta intsignis pinua) azalera garrantzitsua hartzen dute. Hortxe daude, bai eta Aian ere, naturagunean dauden baserri gutxiak. Baso-esparruaren gainerakoan, baso klimazikoak dira nagusi. Pagadiak Aralarko basorik zabalena dira. Oro har, formazio gazteak dira, ez dira askotarikoak, eta oso egitura sinpletua dute, gizakiak haietan ezarritako aprobetxamendu-ereduaren ondorioz. Artadi kantauriarrak formazio zaharrak dira; ez, ordea, helduak, baso-birsortzea urria baita, eta zuhaitz gehienak motzondotik baitatoz.

Aralarko natura balio batzuk mendi honetan mendez mende garaturiko artzaintzari daude lotuta; beraz, aprobetxamendurako sistema tradizionalak bazter uztea arriskugarria da balio horiek kontserbatzeko.

Mendi-hegaletan malda handiak daude, bai eta iparraldetik hegoalderako norabidea duten ibar paraleloetako urak biltzen dituzten erreka txikiak ere. Aldapa handi horiek higadura sustatzen dute.

Oso garrantzitsua da mendiari lotuta dagoen aisia-erabilera; tradizio handikoa, gainera.

Lekuaren barrualdean, badira hainbat urtegi eta ur-hartune, ura inguruko herrietara eramateko. Lekuak garrantzi handia du; bertan berritzen baitira hainbat herri edateko uraz hornitzen dituzten akuiferoak. Beraz, oso garrantzitsua da uraren kalitatea zaintzea.

Aralarren badira goi-mendian berez bizi diren espezie batzuk; EAeko mendikate batzuetan bakarrik bizi direnak. Horrek esan nahi du Aralar babesleku biogeografikoa dela, lotura-ardatza dela mendi kantauriarren eta piriniarren artean, edota sakabanatze-eremua ere badela mendi horietan berez bizi diren espezieentzat. Esate baterako, elur-lursagua (*Chyonomys nivalis*), ugatza (*Gypaetus barbatus*), gailurretako uhandrea (*Ichthyosaura alpestris*), okil beltza (*Dryocopus martius*), mendi-tuntuna (*Prunella collaris*) edo belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*). Harkaitzek, basoek, larrez eta landaz osaturiko eremu handi irekiek, eta hezeguneren batek, faunarentzat balio handia duen habitat konplexu bat osatzen dute.

Era berean, gutxienez ere Batasunaren Intereseko 18 habitat mota daudela egiaztatu da, eta haietarik bostek lehentasuna dute. Lekuan gutxienez 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren II. eranskinean sarturiko bi flora espezie daude (natura habitaten, eta basafaunaren nahiz basaflooraren kontserbazioari buruzkoa; aurrerantzean, Habitategi buruzko Zuzentaraia), eta era berean, aipatu Zuzentaraia II. eta IV. eranskinetan sarturiko 13 fauna espezie, eta halaber, II. eranskinean bakarrik sarturiko sei espezie eta IV. eranskinean sarturik dauden 13. Bestalde, nabarmentzekoa da gutxienez ere 19 hegazti espezie daudela jasoak Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluko 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauaren I. Eranskinean (basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa da; aurrerantzean Hegazti Zuzentaraia).

Horrek guzti horrek eragin du leku hau Natura 2000 Sarera biltzeko hautatua izateko arrazoi nagusia. 2004ko abenduaren 7ko Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakiaren bidez onartu zen; Eskualde Biogeografiko Atlantikoan Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda onartzeko erabakiaren bidez, hain zuzen.

Dokumentu honek bete egiten ditu Habitategi 92/43/EEE Zuzentaraiak ezarritako betebeharrak; izan ere, zuzentaraia horren 4. artikulua arabera, Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu behar dira. Horretarako, behar adina kontserbazio neurri ezarriko dituzte, aipatu Zuzentaraia I. eta II. Eranskinetan zehaztutako eremu horietako berezko habitat mota eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko.

Dokumentu honek jaso du Aralar KBeko ingurumenaren kudeaketan eragin dezaketen edo kudeaketa zehaztu dezaketen natura alorreko baldintzatzaileen eta baldintzatzaile sozioekonomikoen azterketa bat. Eremu honetako natura balioak aztertuta, tokiko kudeaketarako funtsezkoak diren elementuak bereizten dira, horiexek izango baitira helburuen proposamenen eta kontserbazio neurrien funtsezko oinarriak, kontserbatzeko betebeharren eta garapen sozio-ekonomikoaren arteko oreka bilatuz, eta kontuan izanik aplikagarri den araudiak ezarritako babes eremuaren mugen baitan dauden jarduera ekonomikoak eta bertako populazioen finkamendu alorreko arazoak.

Dokumentu honetan jasotako helburuak, erregulazioak eta jarduerak ezartzearen bidez, leku hau Natura 2000 sareko naturagune izendatzea eragin duten funtsezko elementuen edo kudeaketaren xede diren elementuen kontserbazio-egoera hobetu nahi da. Era berean, tresna honen eta etorkizunean honen ordezkiz izango diren azken helburua lortu nahi da, edo bide horretan aurrera egin behintzat. Xede hori da, hain zuzen ere, tokiko osotasun ekologikoa berritzea edo, hala behar duenean, hari eustea, eta Natura 2000 sare ekologikoaren multzoan zentzuz biltzea.

Dokumentu honi jarraituz hartutako neurriek, bai eta dokumentutik erator daitezkeen ere, eskakizun ekonomikoak, sozialak eta kulturalak kontuan hartuko dituzte, eta, ahal den neurrian, erabilera eta aprobetxamendu tradizionalekin bateratzen ahaleginduko dira, bai eta gizarte-eskaera berriei (hala nola aisialdiari eta jolasari, ingurumen-hezkuntzari eta ikerketari) erantzuteko beste erabilera batzuekin ere, naturagunearen babesaren oinarrian dauden balioak galtzea eragin dezaketan aldaketarik egin gabe.

Modu objektiboan egiaztatu daitezkeen adierazleen jarraipen programari esker ebaluatu ahal izango dira helburu horren betetze maila eta dokumentuan zehazten diren helburu zehatzen betetze maila.

Helburu eta erregulazio horiek hurrengo urteetarako ibilbidea zehazten dute, eta sei urtetik behin egingo da kontrola eta jarraipena.

2.- INFORMAZIO OROKORRA.

2.1.- KOKALEKUA ETA MUGAK.

Aralar Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120011) eskualde biogeografiko atlantikoan dago. Gipuzkoako ekialdeko hego-ekialdeko mugan dago, Aralar Mendiko gunek karstikoaren parte da, eta mugakide den Nafarroan du jarraipena, izen bereko KBEaren bidez (ES2200020). Katastro-informazioa kontuan harturik eskalan egindako doikuntzaren ondotik, lekuaren luze-zabalera 10.962 ha da.

Altzania-Lizarrustiko mendiko iparraldeak, Ataungo Domoak eta Enirio-Aralarko gunek (bertako mendi-hegal periferikoak barne) osatzen dute. KBE hegoaldeko ardatz menditsu nagusia bat dator Kantauri eta Mediterraneo arteko ur-banalerroarekin. Lurraldearen zatirik handiena (% 67) 300 eta 900 metroren arteko altueran dago.

Hona hemen lekua mugatzeko eta kokatzeko oinarrizko datuak (1. taula)

Aralar	
Lekuaren kodea (KBE)	ES2120011
BGL izateko proposatu zen data	1997/12
BGL gisa onetsi zen data	2004/12
Erdigunearen koordinatuak	2º 6' 41" W 42º 59' 44" N
Azalera (ha)	10.962 ha
Perimetroa (m)	72,6 km

2016ko irailaren 13a, asteartea


Aralar	
Gutxieneko altuera (m)	170 m
Gehienezko altuera (m)	1.400 m
Batez besteko (m)	793 m

1. Taula Aralar KBEaren identifikazioa eta kokalekua

2.2.- JABETZA ERREGIMENA.

Aralarren batera daude jabetza publikoa eta jabetza pribatua, lur batzuk Erabilgarritasun Publikoko Mendiak baitira eta hainbat Udalen jabetzapean daude, eta beste lur batzuk, berriz, partikularrak dira (banakako edo taldekako jabeenak). Alde ederra dago jabetzen artean luze-zabalerari dagokionez, batzuk doi hektarea batekoak baitira, eta beste batzuk, aldiz, oso handiak. Adibidez, Enirio-Aralar Erabilgarritasun Publikoko Mendiak 3.387 ha ditu.

Eremuko hego-ekialdeko hainbat baso eta larre-erkidego Enirio-Aralar mankomunitatearenak dira. Tokiko erakunde horrek bere lurraldea eta antolaketa ditu, eta hainbat zereginenez arduratzen da: administrazioa, kudeaketa, ustiapena eta lurren aprobetxamenduak esleitzea. Eginkizun horietarako, mendien aprobetxamendurako ohiturazko araudi tradizionala du oinarri; antzinako tokiko ohiturak biltzen dituena, alegia. Erakundean 15 udalerrik parte hartzen dute.



1. Irudia Aralar KBEan biltzen diren udalerrien mugaketa eta banaketa.

2016ko irailaren 13a, asteartea


Naturaguneko lurren jabe dira sei udalerrri eta Enirio-Aralar mankomunitatea.

Honako hauek dira naturagunean lurrak dituzten erakundeak, eta lur horiek naturaguneko eta lekuko lur guztiakin alderatuta dituzten proportzioak:

Udal barrutia	Udalerriaren azalera KBEaren baitan (ha)	Udalerriaren azalera (ha)	KBEk udalerrian hartzen duen ehunekoa	Udalerriak KBEan hartzen duen ehunekoa
Abaltzisketa	601,78	1.146,17	52,50	5,49
Amezketeta	998,62	2.064,58	48,37	9,12
Ataun	4.455,27	5.828,60	76,44	40,67
Lazkao	247,94	1.161,01	21,36	2,26
Tolosa	302,02	3.732,79	8,09	2,76
Zaldibia	961,31	1.672,12	57,49	8,78
Enirio-Aralar	3.386,87	3.386,87	100,00	30,92

2. Taula Aralar KBEra biltzen diren udalerrien zerrenda eta leku honetan duten azalera. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren kartografia.

Azalera publikoa, beraz, Aralarko azalera guztiaren % 57,5 da (2. irudia). Gainerako 4.659 hektareek gainerako % 42,5 egiten dute, eta 543 jabe partikularren jabetzapeko 1.827 lurzatitan banatuta daude. 3 jabeek 100 ha-tik gorako jabetzak dituzte, eta batek, 1.500 ha-tik gorakoa.



2. Irudia Aralar KBEan sarturik dauden Erabilgarritasun Publikoko Mendien banaketa (laranja). Urdinez Titulartasun partikularren azalera dago adierazia, eta laranja, publikoarena.

Era berean, jabetza publikoarenak dira jabari publiko hidraulikoari dagozkion KBEko lurrak, beste ondasun batzuen artean «korronte naturaleko ibilguak, etenak, eta etenak ez direnak» biltzen baititu. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren (JPHA) arabera, urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren egungo erredakzioan «Korronte etengabeko edo eteneko ibilgua da ohiko uraldi gorenetan urek estaltzen duten eremua. Lurralde hori bere ezaugarri geomorfologikoak eta ekologikoak kontuan izanik eta dauden informazio hidrologiko, hidrauliko eta kartografikoak aintzat harturik zehaztuko da, baita dauden argazkiak eta eskura dauden erreferentzia historikoak kontuan izanik ere» (4.1 artikulua).

Bestalde, ibilgu publikoekin muga egiten duten lurren ertzek honako hauek bete behar dituzte bere luzera osoan:

- Erabilera publikorako bost metro zabaleko zortasun aldea gordeko dute, araudi honetan arautzen denari jarraiki.
- Ehun metroko zabalera duen polizia edo zaintza-eremua gordeko da, eta bertan garatuko diren lurzoru erabilerak eta jarduerak baldintzatuko dira.

Eremu horien erregulazioak jabari publiko hidraulikoaren egoera zaintzeko helburua du, baita uretako ekosistemen hondatzeari aurrea hartzeko eta berau hobetzeko helburua ere, eta uholdeetan korronteen erregimena babestea du helburu, alboetako lurrek ibilguen laminazioan eta garraiatutako zama solidoan duen egitekoa ahalbideratzeko.

2.3.- BESTE BABES IRUDI BATZUK.

Parke Natural izendatzeari dagokionez, 2000ko irailaren 8ko EHAAn argitara emandako Aginduak hasiera batez onetsi eta jendaurrean jarri zuen Aralar Natura Baliabideak Antolatzeko Planaren aldaketa, Parke Naturaleko eremu jakin batzuetan turismo, ostalaritza eta industria erabileren garapena ahalbidetze aldera. Aipatu aldaketa behin-behinekoz onetsi zen 2001eko maiatzaren 29ko Aginduaren bidez. Azkenik, 2004ko uztailaren 27an, EHAAn uztailaren 13ko 146/2004 Dekretua argitaratu zen, Aralar parke naturaleko Natura Baliabideak Antolatzeko Plana aldatzen duena, Ataungo eremua Aralar parke naturalean ezarri beharreko turismo eta industria arloko ekimen sorta ez kutsagarri baten bidez suspertzeko asmoz.

2005ean, Aralar parke naturaleko Patronatuak Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea onetsi zuen. Plan hori ez zen administrazio bidean bururaino eramán, baina orduz geroztik, erreferentziazko agiri tekniko gisa hartu da.

Parke natural izendatzeaz gain, 1997an onartutako Lurraldea Antolatzeko Jarraibideen «Natura Interesa duten Eremuen Zerrenda Irekian» jaso da leku hau, eta beraz, lurralde, arlo eta udal plangintzak kontuan edukiko du alde honetako balio ekologiko, kultural eta ekonomikoen babesa. Era berean, lekua dago Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planen aplikazio-esparruan, irailaren 29ko 534/2009 Dekretuz onetsitakoa, eta Tolosakoan (Tolosaldea) ere bai, gaur egun hasierako onespina emateko fasean dagoena.

Era berean, 2014ko irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onarturiko EAeko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Natura Intereseko Eremutzat hartzen du KBEaren esparrua, eta azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez onetsitako EAeko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Lehentasunezko Natura Intereseko Eremuan sartzen ditu bertan dauden erreka guztien ertzak.

Gainera, EAeko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren proposamenean dago leku hau bere osotasunean.

Azkenik, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduen bidez, muturluze piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*) eta ur-ipurtats edo europar bisoia (*Mustela lutreola*) Kudeatzeko Planak onetsi ziren Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Esan dezagun bi espezieak Galtzeko Arriskuan bezala katalogatuta daudela Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan. Aipatu planetan, interes bereziko eremuak zehaztu dira muturluze piriniotarrarentzat eta ur-ipurtatsarentzat, hurrenez hurren. Muturluze piriniotarrari dagokionez, interes bereziko eremu hauek Aralar KBE barnean daude: Amundarain ibaia (Urtsuko errekarerekin bat egin arteko ur guztiak) eta Agauntza ibaia (Aralarko errekarerekin bat egin arteko ur guztiak). Ur-ipurtatsari dagokionez, interes bereziko eremuak dira halaber Aralar KBE barneko Agauntza eta Amundarain ibaietako zati batzuk.

2.4.- NATURA 2000 SAREKO BESTE LEKUEKIN DUEN HARREMANA.

Aralar Mendiko zati nafarra (14.000 ha inguru) KBE izendatu dute (ES2200020) 2014ko abenduaren bukaeran. Han, guztira, Europar Batasunaren Garrantzia duten 14 habitat berezi dira, eta pagadi silizedunak ere nabarmentzen dira, zabalera handia hartzen baitute (lekuaren % 15). Era berean, Hegaztiei buruzko Zuzentarauan bilduta dauden 13 hegazti espezie aurkitu dira; haien artean, ugatza, arrano beltza eta okil ertaina dira nabarmentzekoak; okil ertainik ez dago Gipuzkoako aldean. Aralarko multzoak eta Nafarroan duen luzapenak ia 25.000 hektareako leku zabala osatzen dute; horregatik da unitate funtzionalik zabalenetako bat bi Autonomia Erkidegoetan, ekologiarri begira.

Eskala txikiagoan, ur-banalerroko gainerako mendiekin batera, Aralar beste kate-begi bat da Pirinioen eta Kantabriar mendikatearen artean dagoen korridore handian, ugatzaren ohiko presentziak edo okil beltzaren hedapenak ederki adierazten duten bezala.

Bestalde, eta eskualde mailan, Agauntza ibaiak eta Zaldibia ibaira doazen errekek (haien goi-ibarrak Aralar KBE barruan daude) uretan behera Oria Garaia izeneko ibai-KBEan sartuta daude (ES2120005). Biak, beraz, bere osoan leudeke sartuta KBE batean edo bestean, baldin eta Aralarrerako aukeratu diren mugak ez balira doitu inguruko errepideetara eta pistetara; horrela, kanpoan hainbat tarte eten utzi dira, eta horiek interesekotzat jotzen dira espezie mehatxatu batzuentzat. Administrazioari dagokionez, Aralarko mugen gainean dagoen desdoikuntzaren ondorioz, tarteka KBetik kanpo dago, baina hori alde batera utzita, agerikoa da bi ibai-tarteak unitate funtzionala direla eta Oria Garaiko KBErekin dutela segida.

Aralar Menditik hurbil, eskualde biogeografiko atlantikoko Europar Batasunaren Garrantzia duten beste leku batzuk ere badira. Esate baterako, Aizkorri-Aratz KBetik hurbil (ES2120022), Etxegaratez bestaldean dagoena. Aldi berean, lotura dauka Natura 2000 Sareko beste leku batzuekin, non eragin kontinentalak nabariagoak baitira: Entzia Mendilerroa (ES2110023), eta Nafarroako Urbasa eta Andia Mendiak (ES2200021).

Bestalde, eremuko lehorreko fauna eta espezie horien populazioak, tokiko baldintza ekogeografikoen mendekoak izateaz gainera, gizakien esku-hartzeen gradienteen araberakoak dira. Aralar eta eurosiberiar eskualdeko gainerako mendiak (Urbasa, Andia, Aizkorri-Aratz eta Entzia) lotuta daude, jarraitutasun ekologikoari dagokionez, Sakana eta Etxegarate bidez. Hala eta guztiz ere, azpiegitura artifizialen eta hedapen urbanistikoaren ondorioz sortutako oztopoak gainditzea zaila da, eta hainbat ornodunen populazioen joan-etorriak eta truke genetikoa mugatuta daude.

A-10 da Aralar eta Entzia artean dagoen haustura ekologikoko elementu nagusia; bide-azpiegitura horrek iragazkortasun txikia edo ia ez deusa dauka lurreko ornodunentzat. Ez da neurketarik egin, baina ziurrenera hilkortasun handia dago tamaina erdiko eta txikiko ornodunen artean.

Aralar eta Aizkorri-Aratz artean, Erabilgarritasun Publikoko Mendiaren kalifikazioa duen lurralde bat dago (Idiazabal eta Gipuzkoako Partzoneria); azalera nabarmeneko pagadi azidofiloak hazten dira. Bi lekuen arteko korridorean, dena den, badira bi hesi garrantzitsu: Etxegarateko A1 autobia eta, hein txikiagoan, Otzaurteko errekaen ondotik doan Zegamako eta Segurako errepidea. Lehena edukiera handiko errepidea da. Hemen ere ez dugu daturik faunaren hilkortasunari buruz, baina Gipuzkoako aldean ez dago faunarentzat behar bezalako pasabiderik, eta hori ikusita, uste izatekoa da hesi garrantzitsua dela lurreko faunaren mugimendurako. Bi errepideen ingurunean baso landatu asko dago, eta zati batean lehengoratuko balira, nabarmen murriztuko litzateke faunak mugitzeko duen erresistentzia. BEASAIN-ZUMARRAGAko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatikako Planak (GOIERRI) bi KBEak lotzeko korridore bat proposatu du, eta eremu hori dago Lurraldearen Zatikako Planaren Babes Bereziko kategorian sartua.

3.- INFORMAZIO EKOLOGIKOA.

3.1.- HABITAT NATURALAK ETA ERDI NATURALAK.

Giza jarduerak milaka urtean eraldatu du deskribatutako esparru potentziala. Landaredi komunitate natural edo erdi naturalez osatua da KBEaren azaleraren % 79,37; komunitate horietariko 18 Batasunaren Intereseko Habitatak dira, eta guztira 6.153,09 ha hartzen dute, hau da, Aralarko % 56,16. Habitat horietariko bost lehentasunezkoak dira kontserbaziorako Europar Batasunean, eta guztiek ere adierazgarritasun esanguratsua dute lekuan. Esan beharra dago turismoak ustiatu gabeko kobak (8310 EUNIS kodea) oso ugari direla Aralarren, lurpean egonagatik kartografian jaso gabe badaude ere. Habitat horiei gehitu egin behar zaizkie, eskualde mailako interesa dutelako, bertako landare-hesiak dituzten larreak eta *Quercus robur* zuhaitz mota nagusitzen den baso azidofiloak (6. taula).

Ondoko taula honetan Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean erabilitako izena baliatzen da habitat bakoitzarentzat, eta Batasunaren Intereseko habitata ez denean, Europako Ingurumen Agentziako sailkapen sisteman (EUNIS) zehaztutakoa erabiltzen da

2016ko irailaren 13a, asteartea

DH Kodea/ EUNIS Kodea	DH Izena / EUNIS Izena	Azalera KBEan (ha)	% KBEaren esparruan	% EAEko 2000 Natura Sarean	Adiera zgarrit asuna	KBEaren kontserbazio egoera	Kontserbazio egoera EAEn
4030/F4.23(X)	Txilardi lehor europarrak / Ahabidia, <i>Erica arborea</i> txilar garaia, <i>Ulex</i> sp espeziea nagusitzen den txilardi atlantiarra, Kantauri-Pirinio aldeko txilardiak <i>Erica vagans</i> eta <i>E.cinerea</i> espezieekin.	9,37	0,09	0,14	B	Ona	Ona
4090/ F7.44 (Y)	Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin.	15,84	0,14	0,26	B	Ona	Ona
E5.31(X), E5.31(Y)	Iratzedi atlantiar eta subatlantiarrak, muinotarrak eta menditarrak.	120,41	1,10	-	-	-	-
F3.11(X), F3.13, F3.17	Arantzadi kaltzikolak, lahardiak eta urriztiak.	366,41	3,35	-	-	-	-
F3.15(Y)	Otadi atlantiarra (<i>Ulex europaeus</i>)	261,29	2,39	25,47	-	-	-
FA.3	Bertako espezieak dituzten landare-hesiak.	21,50	0,20	11,16	-	-	-
6170/ E1.27	Larre alpetar eta azpialpetarkaredunak / larre karedun harritarrak	819,82	7,48	22,71	A	Ona	Ona
6210/ E1.26	<i>Festuco-Brometea</i> karedun substratuen gaineko larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikorak / Albiztiak eta <i>mesobromion</i> taldeko larreak.	122,04	1,11	6,91	A	Ona	Txarra-Ezek.
6230*/ E1.72	<i>Nardus</i> dun formazio belarkarak, espezie ugarirekin, menditar substratu silizedunen gainean (Eta Europa kontinentaleko eremu azpimenditsuetakoak) / <i>Agrostis</i> eta <i>Festuca</i> espeziez osaturiko larreak, Larre silizedunak (<i>Deschampsia flexuosa</i>).	1.983,44	18,11	34,93	A	Ona	Ona
6430/ E5.43	Maila menditarretik alpetarrera bitarteko ordoki-orletako megaforbio eurotrofo hifrofiloak /Megaforbio pininiotarrak eta iberiarrak.	9,96	0,09	68,42	B	Txarra-Ezek.	Txarra-Ezek.
6510/ E2.21	Altitude txikiko sega-belardi pobreak / Larratu gabeko sega-belardi atlantiarrak	691,34	6,31	43,30	ZK	Txarra-Kaskarra	Txarra-Ezek.
7140/ D2.3	Trantsizioko mirak / Tranpal azidofilo-esfagnalak	-	-	-	C	Txarra-Kaskarra	Txarra-Ezek.

2016ko irailaren 13a, asteartea

DH Kodea/ EUNIS Kodea	DH Izena / EUNIS Izena	Azalera KBEan (ha)	% KBEaren esparruan	% EAEko 2000 Natura Sarean	Adiera zgarrit asuna	KBEaren kontserbazio egoera	Kontserbazio egoera EAEn
7210*/ D5.24	<i>Cladium mariscus</i> espezieaz osaturiko kareharrizko zohikaztegiak / <i>Cladium mariscus</i> espezieaz osaturiko tranpalak	0,11	0,0	6,12	B	Txarra-Kaskarra	Txarra-Ezek.
8130/ H2.64	Askatze mediterraneoak, mendebaldekoak eta termofiloak / Kareharrizko hartxingadietako landaredia	5,48	0,05	2,74	B	Ona	Ona
8210/ H3.2	Kareharrizko malkar arrokatsuetako landaredia kasmofitikoak / Harkaizti basikoetako landaredia	131,75	1,20	4,61	A	Ona	Ona
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	-	-	-	A	Ona	Ona
9120/ G1.62	Pagadi azidofilo atlantikoak <i>Ilex</i> oihanpearekin eta batzuetan <i>Taxus</i> (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>) / Pagadi azidofilo atlantikoak.	1.970,76	17,99	13,64	A	Txarra-Ezek.	Txarra-Kaskarra
9180*/ G1.A4	Maldetako basoak, askatzeak edo <i>Tilio-Acerion</i> deritzonaren trokak / Kareharrizko haitzebakien oineko baso mistoa	50,84	0,46	12,10	A	Ona	Txarra-Kaskarra
91E0*/ G1.21(Z)	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> espezieetako baso alubialak / Ibaiertzetako haltzadi eurosiberiarra	36,12	0,33	3,00	D	Txarra-Kaskarra	Txarra-Kaskarra
9230/ G1.7B1	Harizti galaiko-portugaldarrak, <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> -ekin / Iberiar Penintsularen erdialdeko <i>Quercus pyrenaica</i> basoak, amezti kantauriarrak	0,78	0,01	0,02	D	Txarra-Ezek.	Txarra-Kaskarra
9340/ G2.121	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> espezieetako artadiak / <i>Quercus ilex</i> baso mesomediterranearrak	256,11	2,34	3,12	A	Txarra-Ezek.	Txarra-Kaskarra
9580*/G4.(Y)	<i>Taxus baccata</i> espezieaz osaturiko baso mediterranearrak / Kareharrizko haitzebakien oineko baso mistoa, hagin ugariekin.	49,33	0,45	63,07	ZK	Ona	Txarra-Kaskarra
G1.64	Pagadi basofiloa edo neutroa	802,74	7,33	5,83	-	Txarra-Ezek.	-
G1.82	Pagadi-harizti azido atlantiarra	38,93	0,36	4,10	-	Txarra-Ezek.	-

DH Kodea/ EUNIS Kodea	DH Izena / EUNIS Izena	Azalera KBEan (ha)	% KBEaren esparruan	% EAEko 2000 Natura Sarean	Adiera zgarrit asuna	KBEaren kontserbazio egoera	Kontserbazio egoera EAEn
G1.71	<i>Quercus gr. pubescens</i> erkameztia	84,27	0,77	22,58	-	Txarra-Ezek.	-
G1.86	Harizti azidofilo iberiar- ataltiarak	631,33	5,76	14,49	-	Txarra-Ezek.	-
G1.A1	Hostotsuen baso misto mesotrofoa, atlantiarra	214,01	1,95	45,33	-	Txarra-Ezek.	-
	GUZTIRA	8.693,98	79,37				

5. Taula Habitat natural eta erdi-natural garrantzitsuenak eta Aralar KBEan hartzen dituzten azalera. EUNIS kodea: Europako Ingurumen Agentziak garaturiko sailkapen sistema. EB Kodea: Habitategi buruzko Zuzentarauaren I. Eranskineko habitatak. (*): Lehentasunezko habitatak. Iturria: EAEko habitat, egungo landaredia eta lurzoruen erabileraren Kartografiatik (2009) eta EAEko Batasunaren Intereseko Habitategi kartografiatik (2012) egokitua. Oharra: Ehuneko horiek kalkulatzeko, «2012. urteko Batasunaren Intereseko habitategi mapa», 1:10.000 eskalan egin, eta 2013. urteko Natura 2000 Sarearen Mapa, 1:25.000 eskalan egin, hartu dira erreferentziatzat (Ingurumen eta Lurralde Politika Saila).

Txilardi alpetarrak eta borealek (EB Kodea: 4060), ipuru herrestariz osaturikoak (*Juniperus communis* subsp. *nana*), Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean bilduak, oso azalera txikiak hartzen dituzte; horrenbestez, ez dira kartografiatuak izan EUNIS Landaredia Inbentarioan. Gailurreria garaieneko batzuetan ageri dira, haizeak gogor jotako tokietan, luzaroan elurpean daudenak; mosaikoak osatzen dituzte larre harritarrekin eta kareharrizko landaredia kasmofitikoarekin. Oso habitat urria da, hala Gipuzkoan nola EAEn, Aralarko eta Aizkorri-Arazko mendi-hegal karstiko garaietan baitago.

Mendiko megaforbioak (EB Kodea: 6430) ez ziren sartu EUNIS kartografiaren berrikuspenean, 2009an egindakoan, formazio txikiak eta oso murriztuak direlako luze-zabaleran, eta barreiatuta daudelako haitzebakien eta harkaitzen artean, eta horregatik ez zitezkeela jo habitategiaren adierazgarritzat, Batasunaren Intereseko Habitategi Europako Eskuliburuan deskribatuta dagoen bezala. Landa-lan sakonago baten ondotik, habitat horren formazio zabal samarrak aurkitu dira Maldabe eta Ondarre alderdietan. Gainera, orban txikiagoak eta barreiatuak osatzen dute Txindoki, Ganboa, Balerdi eta Pardarri mendien iparraldean nahiz ipar-mendebaldean, eta horrez gain, baita Igaratzako sakangune karstikoetan garatzen diren berezko lekuneetan ere.

Trantsizio-zohikaztegiei dagokienez (EB Kodea: 7140), Igaratzako surgentzia batean izaera azidofiloa duen tranpal txiki bat aurkitu dute, *Sphagnum* sp. duena. Abereen hankapean dago, eta hura kudeatzeko helburu egokiak definitu behar dira (30T 0577, 4759; 1.200 metroko altitudetan).

Ameztiak (EB Kodea: 9230) Habitat Zuzentaruaren ere bilduta daude, eta Aralarren ere oso urriak dira. Orban bakarra dago, gazte egoeran, pagadi silizedunetan murgildua, eta 0,78 ha-ko azalera baizik ez du; horrenbestez, ez da bere habitategiaren lagin ontzat jotzen.

Kaxetan eta Ezkalusoron antzinako bi gaztainondo sail aurkitu dira, bi orban, biak ere luze-zabalera urrikoak, eta gaztainondoekin batera, haritzak eta pagoak daude nahasita. Baina ez dira Habitat Zuzentarauko 9260 habitataren laginak, Europar Batasuneko Habitatak Interpretatzeko Eskuliburuan zehaztuta dagoen bezalaxe. Gaztainondo lepatuak dira zutik baina hilik, barrenean hutsarte handiak dituzte, eta ez dago inolako birsorkuntzarik. Hala eta guztiz ere, unada horiek garrantzi handikoak dira kontserbaziorako, harizti eta pagadi horiei heterogeneotasuna ematen dietelako, eta egur hila ere ematen dietelako artropodo saproxiliko mehatxatu batzuei.

3.2.- FLORA.

Flora, gehienbat, espezie atlantiarrek osatuta dago. Aralar klima trantsizioko eremua izatearen ondorioz, esparru mediterraneoari, boreoalpetarari eta kantauriar-piriniotarrari berez dagozkien taxoiak ere badira, bai eta espezie aloktono batzuk ere. Elementu endemikoari doakionez, Aralarren ez da espezie endemikorik zentsu hertsian, banaketa murriztagoa duten landareak inguruko mendikateetan ere hazten baitira.

Habitat Zuzentaruaren eranskinetan sarturiko bi nartzisoez gain, *Cicerbita plumieri*, *Nigritella gabasiana*, *Geum rivale* eta *Lathyrus vivantii* espezieak dira nabarmentzekoak, EAEn Galtzeko Arriskuan katalogatuta bezala daudelako. Espezie horiek guztiak bi kokapenetan bakarrik daude EAEn dagokionez, horietako bat Aralarren. Aralarko Gipuzkoako aldean dauden beste 23 espezie, berriz, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan bilduta daude (2011ko urtarrilaren 10eko Agindua, EAeko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoa aldatzen duena eta testu bakarra onartzen duena eta 2013ko ekainaren 18ko Agindua, EAeko Basafauna eta Basaflora nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoa aldatzen duena), bederatzi Zaugarri kategorian, eta lau, Interes Berezikotan.

2016ko irailaren 13a, asteartea

DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	DH eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan
13160	Ira-belar urdina	<i>Aconitum variegatum</i> subsp. <i>pyrenaicum</i>			VU		Ezez.
12730		<i>Allium victorialis</i>			BAKANA		Txarra
16656		<i>Armeria pubinervis</i> subsp. <i>orissonensis</i>			BAKANA		Txarra-Ezek.
10826	Arnika	<i>Arnica montana</i>	V		VU		Txarra-Ezek.
10929	Eguzki-lore luzea	<i>Carlina acaulis</i> subsp. <i>simplex</i>			BAKANA		Txarra-Ezek.
10918		<i>Cicerbita plumieri</i>			EP		Txarra-Kaskarra
12785		<i>Coeloglossum viride</i>			VU		Ezez.
10880		<i>Crepis pyrenaica</i>			VU		Txarra-Ezek.
13130		<i>Dryopteris submontana</i>			VU		Txarra-Ezek.
12276		<i>Geum pyrenaicum</i>			VU		Ezez.
12209		<i>Geum rivale</i>			EP		Txarra-Kaskarra
12801	Nazarenoak	<i>Himantoglossum hircinum</i>			BAKANA		Txarra-Ezek.
10788	Gorostia	<i>Ilex aquifolium</i>			IE		Txarra
16643		<i>Lathyrus vivanii</i>			EP		Txarra-Kaskarra
10682	Likopodioa	<i>Lycopodium clavatum</i>	V		BAKANA		Ezez.
16674	Lilipa txikia	<i>Narcissus asturiensis</i>	II	*	IE		Txarra
16690	Lilipa arrunta	<i>Narcissus pseudonarcissus varduliensis</i>	II		BAKANA		Txarra
16621	Izar beltza	<i>Nigritella gabasiana</i>			EP		Txarra-Kaskarra
10667	Suge-mihia	<i>Ophioglossum vulgatum</i>			BAKANA		Txarra
12716	Azari-mahatsa	<i>Paris quadrifolia</i>			BAKANA		Txarra-Ezek.

2016ko irailaren 13a, astearta

DH edo DA Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	DH eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	PG EAEn	Konts. egoera KBEan
14277		<i>Pedicularis foliosa</i>			BAKANA		Ezez.
16652	Pulsatilla	<i>Pulsatilla alpina</i> subsp. <i>cantabrica</i>			BAKANA		Txarra-Ezek.
11789		<i>Ribes petraeum</i>			BAKANA		Txarra-Ezek.
12719	Erratza	<i>Ruscus aculeatus</i>	V		IE		Txarra
11024		<i>Senecio doronicum</i>			VU		Ezez.
10717	Hagina	<i>Taxus baccata</i>			IE		Txarra
12755		<i>Tofieldia calyculata</i>			VU		Txarra
12033	Calderones	<i>Trollius europaeus</i>			VU		Txarra-Kaskarra
12715	Berdeganbrea	<i>Veratrum album</i>			IE		Txarra
12536	Pentsamendua	<i>Viola bubanii</i>			BAKANA		Txarra-Ezek.

6. Taula Kontserbatu beharreko basafloa espezieak, Aralar KBEan adierazita dago Habitata Zuzentaruaren zein eranskinetan jasoa dagoen espezieak; DA eranskina: Adierazita dago Hegazti Zuzentaruaren zein eranskinetan jasoa dagoen espezieak; LESPRES eta CEEA: Adierazita dago espezieak Babes Berezikotik Araubidea duten Espezieen Zerrendan dagoen (*), eta zer kategoriatan katalogatuta dagoen espezieak Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan (139/2011 Errege Dekretua); CVEA: Adierazita dago zer kategoriatan katalogatuta dagoen espezieak Basafauna eta Basafloa nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (2011ko urtarrilaren 10eko Agindua, EAEko Basafauna eta Basafloa nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoan aldatzen duena eta 2013ko ekainaren 18ko Agindua, EAEko Basafauna eta Basafloa nahiz Itsas Espezie Mehatxatuen Katalogoan aldatzen duena). EP: Galtzeko Arriskuan, VU: Zaurgarria, BAKANA: Bakana, IE: Interes Berezikoa; PG EAEn: Adierazita dago zer Lurralde Historikok onetsi duen espezieak Kudeatzeko Plana. A: Araba, B: Bizkaia, G: Gipuzkoa.

Taulako espezieez gain, zalantzazkoa da *Narcissus bulbocodium* espeziea ote dagoen, eta EAEn Interes Bereziaren kategorian jaso, eta zalantzakoa da, halaber, *Geum pyrenaicum* espeziea ote dagoen, Zaurgarri gisa katalogatuta dagoena. *Geum pyrenaicum* espezieari dagokionez, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan jaso egonda ere, Aralarko nafar aldean bakarrik egiaztatu da haren presentzia.

Era berean, beste 51 espezie ere interesekotzat jo dira Gipuzkoan edo EAEn bakanak direlako, naiz eta Katalogoan ez dauden jasota. Haien artean *Trifolium montanum* subsp. *gayanum*, espeziea da nabarmentzekoa, eta EAEn dagokionez, haren populazio bakarra Aralarren dago.

Kontuan hartu behar da, gainera, intereseko hainbat espezie Aralarko nafar aldean daudela; haietako batzuk Gipuzkoako mugatik hurbil. Espezie horiek Gipuzkoan ere egon litezke, eta alde horretatik, kontuan hartu beharko liriteke flora mehatxatuaren edo interesekoaren jarraipen edo kontserbazio jardueren barruan. Besteak beste, nabarmentzekoak dira *Petrocoptis hispanica*, *Viola cornuta*, *Persicaria vivipara*, *Festuca altopyrenaica*, *Iris latifolia*, *Eriophorum angustifolium*, *Menyanthes trifoliata*, *Nardus stricta* edo *Doronicum carpetanum*. Espezie horietariko gehienak Aralarko Malloetan daude.

3.3.- FAUNA.

Aralarren guztira 201 ornodun espezie aurkitu dira (Aralar parke naturaleko ornodunen fauna azterlana, 2000). Zenbaki horretan sartuta daude leku hau migrazioetan bakarrik erabiltzen duten hegaztiak (24 espezie, guztira) edota negualdian bakarrik erabiltzen dutenak (14 espezie). Ikuspuntu sistematikotik, klaseen arabera banaketa 7. taulan adierazita dago:

Motak	Arrainak	Anfibioak	Narrastiak	Hegaztiak	Ugaztunak
Espezieak	6	8	10	127	50
Ehunekoak	3	4	5	63	25

7. Taula Aralarko ornodun espezieen kopurua

Oro har, fauna multzo eurosiberiarra da oinarrian, eta faktore dibertsifikatzaile nagusi batzuk ditu, hala nola fauna elementu menditarrak mendigunearen leku garaietan, harkaiztiei loturiko espezieak, eta toki bereziki eguzkitsu eta on jakin batzuetan ezarritako elementu mediterranearen batzuk.

Migrazio garaietan eta noizbehinka bakarrik agertzen diren espezieak kontuan gartu gabe, KBEan 177 espezie egonkor bizi dira. Nabarmentzekoak dira espezie negutar hutsak; badira 163 espezie ugaltzaile, eta horietariko sei Penintsulako endemismoak dira: mendi-barboa, ur-igel arrunta (Balearretan eta Kanarietan ere bizi dena), kantauriar sugegorria (*Vipera seoanei*), muturluze piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*), lursagu piriniotarra (*Microtus gerbei*) eta lursagu lusitaniarra (*Microtus lusitanicus*).

Guztira, 19 hegazti espezie sartuta daude Hegazti Zuzentarauaren I. Eranskinean. Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean sartuta daudenetatik, 19 espezie daude Aralarren; horietariko 19 espezie ugaztunak dira, bat arraina, eta bederatzi, azkenik, ornogabeak.

	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago

Baldintzatzaileak

Aipatu behar da KBeko basoen kontserbazio-egoerari buruzko balorazioak zenbatespen kualitatiboak direla, ez baitago behar adina datu kuantitatibo eta kartografiko zehatzik baso heldu bateko egiturazko elementu nagusien gainean.

Era berean, ez dago kontserbatu beharreko interes bereziko baso txikien gaineko kartografia osorik eta egokirik, ezta basa flora eta faunarentzako mikrohabitaten eta elementuen gainekorik ere. Informazio hori beharrezkoa da, kudeaketa arloko prebentzio neurriak eta proaktiboak ezartzeko.

Aldaketak geldoak dira baso ekosistemetan. Basoek denboraldi luzeak behar dituzte bai egituraren konplexutasun handiagoa hartzeko, bai beren ekosistema-funtzioak garatzera bideratutako gaitasuna handitzeko, eta ingurumeneko ondasunez nahiz zerbitzuz hobetzeko. Beharrezkoa da denboraldi laburretan gertatzen diren aldaketekiko adierazle sentiberak txertatzea, berbideratzeko aukera izate aldera; horretarako, adierazle sorta jakin bat zehaztu behar da, Sareko beste leku batzuekin alderagarriak eta eransgarriak izango direnak, hainbat analisi-eskalatan informazio fidagarria eman dezaten.

Biodibertsitatea estuki lotuta dago lekuaren heterogeneotasunarekin eta egituraren konplexutasunarekin. Horregatik, kudeaketa aktiboa egin behar da, lekuaren heterogeneotasuna nahiz egituraren konplexutasuna hobetzera edo mantentzera bideratua. Dena dela, eta orain arte, pagadiak kudeatzean, zur-produktu jakin batzuk

eskuratzeari eman zaio lehentasuna, eta horrek basoaren egituraren dibertsitatea sinpletzeaz gain, ezabatu egin ditu basoko flora eta faunarentzat funtsezkoak diren egiturazko elementuak: hots, ekotonoak, egur hila, soilguneak, adin eta espezie askotarikoak, zuhaitz begidun zulodunak, eta zuhaitz zaharrak. Aralarko baso asko ustiatzen dira, hala zura nola egurra ateratzeko. Marumendiko pagadian, adibidez, ekoizpen-azalera % 50ekoa da, eta kalitate oneneko masak aprobetxatzen dira, batez ere.

Larren eskaintzaren eta eskariaren arteko orekaren jarraipenak belardietan jarri du arreta. Ezezaguna zaigu zer-nolako joera izan duen abere-presioak basoetan, azken urteotan, ezta zer ondorio eragin dituen ere. Lareoko inguruetan, inguru batzuk hesitu dira, aziendarik ez sartzeko, eta gisa horretan, lehengoratzea sustatzeko, baina azienda nagusiko artaldeek badute sartzetik Erabilgarritasun Publikoko Mendietako pagadietan. Hala ere, ez da atzeman lehengoratze arloko arazorik abereen presioaren ondorioz. Aitzitik baizik, soilguneen dentsitatea oso apala da, eta inoiz-edo zuhaitz lepaturen bat erortzean sortzen diren soilguneak, berehala estaltzen ditu lehengoratzeak, oso ahaltsua baita, ez baitago abereen presiorik, ezta basa unglaturik ere. Dena dela, basoaren heldutasuna sustatzera bideratutako kudeaketa mota jakin bat mantentzeak heterogeneotasun hori emango luke epe erdira eta luzera, basoetan soilguneak sortuko bailirateke, adarrak nahiz enborrak berez erortzearen ondorioz.

Zuhaitz lepatu asko hilda edo ahulduta daude, hainbat faktoreren ondorioz, hala nola zahartzaroa eta zuhaitzaren ziklo amaiera, beste zuhaitzekiko lehia, lurzorua higadura, eta orekaren galera; horren eraginda, zuhaitz lepatua ahulagoa da haize bolada gogorren aurrean, adar batzuk kontrolik gabe hazten baitira, eta horrek desoreka eragiten du zuhaitzaren egiturari. Kontuan hartu behar da, gaur egun ez dagoela behar adina zuhaitz heldurik, zertarako eta lepatu zaharrek gaur egun betetzen dituzten funtzio ekologikoak ordezkatzeko; hortaz, zuhaitz lepatuak desagertuko balira, basoetako florak eta faunak aterpe, baliabide trofiko eta mikroingurune gutxiago izan litzakete.

Gainera, zuhaitz lepatu horien eta faunarentzako interesekoak diren zuhaitz zahar gutxi horien inguruko baso lehengoratzeak argiaren nahiz mantenugaien inguruko lehia areagotzen du, eta horrek kalte egin diezaieke. Horrexegatik, hain zuzen ere, kasu batzuetan komenigarria izan daiteke unean uneko bakantzeak egitea, zuhaitz gazteen arteko lehia mugatze aldera.

Bestaldetik, kontuan gartu behar da zuhaitz lepatuak erortzea dela pagadietan soilguneak eragin dezakeen eragozpen bakarrenetako bat; beraz, zuhaitz lepatu sakabanatuak mantentzea planifikatu beharra dago, faunarentzako intereseko zuhaitzen eta soilguneen toki banaketaren arabera.

Lepatuak inautetik ateratzen den zurak eta haien inguruko lehengoratzea bakantzetik ateratzen denak hein batean egur eskaria ase dezakete. Baina kontuan hartu behar da zuhaitz erorietatik egurra ateratzeko egur hila mugatu dezakeela, bai eta ingurune horietan bakarrik dauden nitxo jakin batzuk ere. Hona hemen pagadietako egur hilaren balioak, gure inguruan erreferentzia gisa balio dezaketena; 40 eta 55 m³/ha artean; eta gaur egun, balioak askoz ere txikiagoak dira.

Bigarren mailako espezie dentsitate txikiko pagadi fustal erregularretan zaila da bigarren mailako espezie horiek berez bidea egitea, pagoak abantaila baitu argiarekiko lehian; beraz, beharrezkoa izan daiteke soilgune txikiak irekitzea, kudeaketa molde berriak pagoaz bestelako espezieen berezko lehengoratzea eragiten ez duen bitartean.

Badirudi lehia arazo berria daukala haritzak pagoarekiko bai baso mistoetan bai trantsizio-eremuetan, non eta argi eskasiak pagoaren lehengoratzea sustatzen duten tokietan.

Aralarko baso asko Titulartasun publikoko lurzoruetan daude, eta hori egiazko aukera da baso horiek gizartearen egungo eskariekin bat kontserbatzeko, hau da, ingurumena babestea, eta ingurumeneko ondasunak eta zerbitzuak bermatu behar izatea. Horrez gain, lur publikoetan, baso sailek 936 ha hartzen dituzte, baina gutxi balio dute merkataritzaren nahiz ingurumenaren aldetik; horra hor aukera ona basoen estaldura haien dimentsio potentzialean handitzeko; harizti mesotrofoari eta haltzadie dagokienez, batez ere. Gainera, baso landatu batzuetan, ez da basogintza lanik egin azken hamarkada hauetan, eta horri esker, espezie autoktonoz osaturiko oihanpe bat garatu da, eta koniferoak heldutasunera iritsi diren kasuren batean, basoetako espezie berezigarriak badirela egiaztatu da; okil beltza, hain zuzen ere.

Basoen zati handi bat titularitate publikoko lurzoruetan dago, eta horrek kontserbatzeko aukera ematen du.

CO2 isurpenen merkatuak aukerak eskaintzen ditu, diru pribatua lortzeko eta, horren bidez, basoak hedatu, mantendu, ekologikoki hobetu eta kontserbatzeko.

Bestalde, Aralarko basoetako onddoak eta perretxikoak neurrigabe biltzen dira, bai eta basoko beste fruitu batzuk ere, eta ez dago onddoen eta perretxikoen produktibitateari buruzko azterlanik. Baliteke bilketa horrek arazoak sortzea zenbait espezie eta prozesutan.

Artadi kantauriarretan bazterrean utzi dira behe-basoaren aprobetxamenduan oinarrituriko erabilera tradizionalak, eta motzondoak erraz hozitzen dira; horren ondorioz, dentsitate handia dute, eta zuhaitzen lodiera ez da handitu. Zuhaitzen adina altua da eta, horrek nabarmen murriztu du berez lehengoratzeko gaitasuna eta goi-mendirantzko bilakaera. Kimuen bakanketa selektiboen bidez sustatu liteke, baina zuhaitzak antzinako motzondoetatik hazi direnez, eta lurzoruak makalak direnez, ziurrenera ez lukete neurri handirik hartuko. Hala ere, epe luzera, goi-mendirantzko bilakaera ale berrien sexu ugalketa erraztuko luke, bai lehengoratzea eta masaren heltze geldoa ere.

Egurra kontrolpean eta era antolatuan ateratzen bada, kimuak bakantzeko eta zuhaitzak lepatzeko plan bati jarraikiz, eta zura ateratzeko biderik egin gabe, auzokideen eskaria ase daiteke, eta horrek, gainera, eragin onuragarria izan dezake masak lehengoratu eta heltzeko, eta beste helburu baterako izan daiteke lagungarria; hots, baso mediterranearen esklerofiloek eta marzeszenteek goi-mendirantz jo dezaten sustatzeko, eta zuhaitz lepatuak kontserbatzea, eta bitartean, masa helduak lortzea, basoen naturaltasuna hobetzera bideratutako gainerako jarduketan bidez. Zura era selektiboan ateratzeko gainkostua Landa Garapenerako Programaren laguntzen bidez finantza liteke.

5.2.- HALTZADI KANTAUARIARRA.

***Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialak, (EB Kodea: 91E0*).**

Ibaiertzetako haltzadiak 36,12 ha-ko azalera hartzen dute, hau da, KBEaren azaleraren % 0,33. Haltzadiak, gaur egun har lezakeen banaketa-eremuaren % 10 bakarrik hartzen du, eta giza jarduerak gehien ukitutako baso mota da, ibar hondoko hariztiekin batera, eta Natura 2000 Sarean okerren ordezkatuta dagoen baso motetako bat da.

Haren banaketari eta azalerari buruzko datuez harago, ez dugu bestelako informazio kuantitatiborik eta, horren ondorioz, ezin jakin zertan den Aralarko erreken eta haltzadien kontserbazio-egoera. Balorazio kualitatiboak oinarri harturik, esan daiteke egoera aldakorra dela, eremuen arabera.

Hainbat haltzadiren naturaltasuna da aipagarria, hala nola Lauztierrekakoak (Ataun), Arritzagako erdiko tartean dagoena (Amezketeta), eta Agauntza ibaiaren eta Miazegiko erreken goialdean dagoen haltzadia. Hiru gune horietan nabarmentzekoa da, batetik, ibilgu-ertzen aldaketa txikia, eta bestetik, zuhaitz- eta zuhaixka-estaldura handia.

Lauztierrekan, haltzaz gain (*Alnus glutinosa*), bestelako espezieak ere ugari dira, hala nola *Fraxinus excelsior*, *Coryllus avellana*, *Quercus robur*, *Sambucus nigra*, *Fagus sylvatica*, *Ulmus glabra*, *Ilex aquifolium* edo *Castanea sativa*. Aiaptzekoa da badirela tamaina handiko haritz eta gaztainondo batzuk; horietako batzuk, lepatuak. *Robinia pseudoacacia* espezie inbaditzailea ugaria da toki jakin batzuetan erreka bazterrean edo errekatik hurbil. Badira enborrak eta adarrak erreka gainean, baina onena litzateke egur hil gehiago izatea, horrek ibilguaren egiturari konplexutasun handiagoa emango liokeelako eta, era berean, espezie batzuen bizi-zikloarentzat behar-beharrezkoak diren mikrohabitat kopurua handituko lukeelako (arraintzako aterpeak, arraba lekuak, eta berezko errepresak ur lasterreko eta ur geldietako eremuak txandakatzea sustatzeko).

Haltzadia pagadi azidofiloaren inguruan garatzen da, baina aldi berean ugariak dira *Larix sp.* eta *Pinus radiata* espezieen sail landatuak. Errekaren behealdean, KBEtik kanpo, haltzadia askoz ere estuagoa da, eta sega-belardien, fruta-arbola sailen eta baso sailen artean dago estutua; zerrenda meharra da edota tarteka ez dago.

Arritzagari dagokionez, haltzaz gain, ugariak dira *Acer campestre*, *Ruscus aculeatus*, *Coryllus avellana*, *Sambucus nigra*, *Taxus baccata* (koupru ugari samarrean) espezieak, bai eta belar espezieak ere, hala nola *Geranium phaeum* edo *Valeriana pyrenaica*. Osin eta ur-jausi asko daude, harkaitzaren higadurak berak eta harri puska handien luiziek eragindakoak. Haltzadia pagadi basofiloarekin eta baso misto eutrofoarekin dago nahasita, eta horrek jarraipena ematen dio basoaren ekosistemari, eta hainbat ekotono sortzen ditu. Arritzaga ibaiaren goialdean ia ez dago zuhaitzirik, baina potentzial handia du; izan ere, ugariak dira osinak, ur-jausiak, eta ur lasterrak eta ur geldiak.

Agauntza ibaiaren eta Maizegi erreken goialdearen naturaltasuna da aipatzekoa, eta pagadi azidofiloekin batera, batez ere hariztiak (*Quercus pubescens*), artadiak, baso misto azidofiloak (*Quercus robur*), baso misto eutrofoak garatzen dira; batzuetan, sakanez inguratuta. Bertako espezieen artean, honakoak dira nabarmentzekoak: *Fagus sylvatica*, *Quercus robur* (bada ale urtetsurik), *Acer campestre*, *Ulmus glabra*, *Fraxinus excelsior*, *Sambucus nigra*, *Taxus baccata*, *Euonymus europaeus* edo *Cicerbita plumieri* espezie mehatxatua (Maizegi aldean baizik ez). Malda handieneko aldean, ia ez dago haltzadirik, hariztiak eta pagadiak baizik. Oro har, haltzadiak etenik ez badu ere (baso-formazio naturalekin batera), batzuetan haltzadiaren ordean, sail landatuak daude (*Quercus rubra*, *Larix* sp. edo *Pinus radiata*).

Badira beste haltzadi batzuk KBeko beste toki batzuetan, baina oro har ez daude horren garatuak, txikiagoak dira edo zuhaitz-estaldura txikiagoa dute. Haien artean Urtsuerrekako haltzadiaren luze-zabalera da aipatzekoa (Zaldibia-Abaltzisketa), eta Ipernuko erreken goialdea (Bedaio-Amezketak). Urtsuerrekako haltzadia ez da arestian aipatu ditugun Aralarko beste haltzadi batzuk bezain heldua, soilgune asko ditu, baina badira tamaina handiko haltzak eta lizarrak. Hala ere, sega-belardiak eskuinaldeko ertzean dira nagusi, eta ia ez da ekotonorik garatu bi inguruneen artean; ezker aldean, berriz, sail landatuak dira nagusi (*Quercus rubra*, *Platanus hispanica* eta *Pinus radiata*). Urtsuerreka Amundarain ibaiaren ibaiadarra da, Zaldibia parean elkartzen da, eta bertan Oria garaiko KBEa hasten da. Ipernuko errekan, bestalde, aipatzekoa da flora espezie mehatxatuak hazten direla (*Cicerbita plumieri*, *Veratrum album* eta *Paris quadrifolia*), guztiak ere ibaiadar txikiei lotutakoak, eta halaber badira megaforbioak eta Ipernuko erreken jario eremuak. Haltzadiak gutxi garatuta daude, baso sail landatuak baitira nagusi, eta haltzadiak zerrenda estuak baizik ez dira erreken eta jario-eremuen inguruan. Halaber, aipatzekoa da badirela hainbat istil natural (horietakoren batek hamarnaka metro koadro ditu), guztiak ere errekek berek sortzen dituzten sakanguneei lotuta. Habitat horiek garrantzi handia dute landare espezialistentzat eta herpetofaunarentzat.

Uren kalitatea aztertzeko bi estazio daude (OAG196 eta OZA090) Agauntza eta Zaldibia ibaietan behera, KBetik kanpo. Uren baldintza fisiko-kimikoak eta biologikoak oso onak dira (URA, 2011).

Bost arrain espezie daude sei arrain espezie potentzialetatik (amuarraina, barboa, loina, ezkailua eta mazkarra), eta egokia izan daiteke espezie salmonikolentzat, behar bezalako oxigenazio eta tenperatura baldintzak izanez gero. Hala ere, espezie horien dentsitateak ahulak edo oso ahulak dira. Aingira eta izokina faltatuko lirarteke (arroaren goialdean desagertua), komunitate potentziala osatzeko. Ez da atzeman espezie aloktonorik.

Aralarko ipar-ekialdean, Balsagaina aldean (Bedaio eta Amezketak artean), Inpernu errekan (Bedaio) eta Arritzagako erreken behealdean (Amezketak), megaforbioak garatzen dira ertzean edo baso sailen edo pisten barnean, maiz erreken edo hezeguneei lotuta. Luze-zabalera murrizta dute, berariazko aberastasun txikia, eta egituraz sinpleak dira, baina hala ere, interes handiko landareak hazten dira, hala nola *Aconitum lycoctonum* subsp. *neapolitanum*, *Adenostylis alliaria*, *Angelica sylvestris*, *Astrantia major*, *Chaerophyllum hirsutum*, *Cicerbita plumieri* (Galtzeko Arriskuan), *Cirsium oleraceum*, *Geranium phaeum*, *Heracleum sphondylium*, *Lilium martagon*, *Lilium pyrenaicum*, *Paris quadrifolia* (Bakana), *Scrophularia alpestris*, *Valeriana pyrenaica* edo *Veratrum album* (Interes Berezia). Era berean, mendiaren hegoaldean badira intereseko

unitateak; Zamilolako errekan, adibidez (Akaitz mendiaren iparraldea), bertan *Cicerbita plumieri* espeziea baitago (Galtzeko Arriskuan). Megaforbio unada horiek oso ahulak dira baso-lanen aurrean. Megaforbioen unada horiek oso kalteberak dira basoko jarduerak egokiak ez baldin badira.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua			X	
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).		X		
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala			X	

Austropotamobius italicus.

Oso espezie mehatxatua da bere banaketa-eremu guztian eta atzera doa nabarmen. Jasoa dago Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean, EAEko eta Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoetan, bai eta presente dagoen Autonomia Erkidego batzuetako Katalogoetan ere.

Espeziearen azken errolda osoa 2003koa baino zaharragoa da eta, harekin bat, 280 populazio zeuden. EAEn, banaketa historikoaren aldean, gaur egun «bazterreko» eremuak hartzen ditu, ia beti osinetan eta goi-ibarreko erreka txikietan, ibilgu nagusietatik urrun; populazioak oro har bakartuta daude, ale kopuru gutxiz osatuak, eta kopuruan, gainera, gorabehera handiak izaten dira. Eskura dugun informazioa ez da nahikoa haren egungo banaketa zehaztasunez neurtzeko edota gainbehera kuantifikatzeko, ezagutzen ditugun populazioen zenbakiak oso aldakorak baitira, eta espeziea bazegoela jakina zen toki askotan ez baitira azken hamarkada honetan bisitatu.

Egiaztatu denez, Aralarren badira zazpi populazio, eta ikusi da ale kopurua murrizten ari dela. Era berean, berrikitan seinale-karramarroa agertu da Agauntza ibaian; ez da baieztatu kalte egin ote dion ibai horretako *A. italicus* espeziearen populazioari, baina espeziearen bideragarritasuna arriskuan jar lezake.

Lareoko urtegian desagertu egin da berrikitan lekualdaketaz sartutako populazioa.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua			X	
Populazioa				X
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako perspektibak			X	
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala			X	

Galemys pyrenaicus

Muturluze piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*) endemismo iberiarra da. Espainian duen banaketa espeziearen mundu mailako banaketa historikoaren % 80 inguru da. EAEn egoera kritikoa dago. Haren banaketa-eremua izugarri murriztu da. Horrela, 80ko hamarkadan, artean ere bederatzi ibaitan zegoen (Ayuda, Berrozi, Agauntza, Amundarain, Leitzarain, Urumea, Oiartzun, Endara eta Añarbe), eta 2001ean, aldiz, lautan bakarrik (Agauntza, Amundarain, Leitzarain eta Añarbe) (González J. eta Villate I., 2001). 2006an eta 2008an, Amundarain ibaian baizik ez zen atzeman, KBE barnean; populazioa bakartuta dago eta 50 ale baino gutxiago ziren (González J. eta Villate I., 2006). Ez da aurkitu, ordea, azken prospekzioetan; beraz, EAetik desagertua egon liteke. EAEn, «Galtzeko Arriskuan» dagoen espeziea da katalogoan.

Amundarain ibaian habitat baldintza onak mantentzen dira, baina KBE barnean dagoen tartean, hau da, 10 km baino gutxiagoan, eta hori txikiegia da populazio egonkor eta ez-bakartuari eusteko.

Tarte horretan enbolada bidezko gorabehera erregimena badago ere, presen eskuragarritasunari eragiten dioten minizentralek eraginda, makrobentoen aberastasuna ertaina-altua da KBEko tarte guztietan (9.806 ind/m²), eta trikopteroaren nahiz plekopteroaren dentsitatea altua da, horiek izanik muturluzearen dietaren osagai nagusia.

Etorkizuneko perspektibak txarrak dira, kalitatezko habitataren banaketa eremua murrizta baita eta bakartuta baitago; horrek berezko birkolonizazioa eragozten du. Ez dira desagertu espeziearen toki desagertuak eragin duten arrazoiak.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua			X	
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako perspektibak			X	
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala			X	

Mustela lutreola

Mendebaldeko Europan toki gutxi batzuetara mugatuta dago, eta populazioa txikia da; Frantziako hego-mendebaldea (50 ale inguru), Burgosko iparraldea, eta batez ere, Nafarroa nahiz Errioxa. Atzera egin du oso nabarmen azken 50 urte honetan, eta erabat desagertu da lehenago presente zegoen herrialde gehienetan; egungo banaketa-eremua jatorrizko eremuaren % 20 inguru da.

Bisoi europarrak edo ur-ipurtatsak (*Mustela lutreola*) banaketa-eredu zabala dauka EAEn, baina haren populazioak urriak eta oso desberdinak dira; populazio batzuek diraute bizirik baina mehatxu larriak daude haien kontserbaziorako. Oraindik ere ez dugu datu estandarizaturik, EAEn zer-nolako joera orokorra duen jakiteko, baina kalkuluen arabera, aleak % 30 murriztu dira 2000tik 2010era. Populazioen tamainari dagokionez, ez dakigu zehaztasunez zenbat ale egon daitezkeen toki mailan. Espeziearen Kudeaketa Planaren baitan, tranpen bidezko zenbaketa bat egin zen, eta ugari samarra zen

(harrapaketak/100 tranpa gaueko -TN-): 0,24 eta 0,13 bisoi europar/100 TN hurrenez hurren 2008-2009 aldirako eta 2010. Urterako.

Ez dugu, beraz, datu estandarizaturik, ezta, jakina, datu alderagarrikerik ere, espezieak EAEn zer-nolako joera duen neurtzeko, baina halako hurbilketa bat egin daiteke lurralde historikoen arabera.

Arabian egiaztatu da espeziea murriztu eta bakandu dela; hainbat arrotatik desagertu da (Zadorrakotik, adibidez), eta beste batzuetan bakandu da. Oro har, Bizkaian ere bakandu da, baina zertxobait hedatu da mendebalderantz, populazio berriak finkatu baitira, eta bisoi amerikarrarekin batera bizi da; baina bisoi amerikarrak ibilgu nagusietatik baztertu du. Horren ondorioz, populazioak oso zatikatuta daude, eta habitata kontserbazio-egoera txarrean dago.

Gipuzkoan, eskura ditugun datuen arabera, espezieak banaketa zabala mantendu du azken 50 urte honetan, eta arto guztietan dago; aleak, ordea, gutxi dira, eta bakartuta daude. Agauntza ibaian populazio egonkor bat bizi izan zen (Irizar, I., Villate, I., González, J., Laskurain, N.A., 2004). Data horren ondotik, inguruan bi behaketa bakarrik izan dira; ziurrenera sakabanatuak zeuden aleak izango ziren.

Espeziea EAEn «Galtzeko Arriskuan» dago katalogatua.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua			X	
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako perspektibak			X	
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala			X	

Jarduerak, presioak eta mehatxuak

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> espezieetako baso alubialak, (EB Kodea: 91E0*).	A01	Laborantzak
	B02	Basoak eta landaketak kudeatzea
	B02.03	Oihanpea ezabatzea
	B02.04	Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea
	I01	Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02	Habitaten konektibotasunaren murrizketa antropogenikoa
	K02.01	Aldaketak espezieen osieran (segida)
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago

2016ko irailaren 13a, asteartea

Espezia	Kodea	Presioa/Mehatxua
<i>Austropotamobius italicus.</i>	A01	Laborantzak
	A02.01	Nekazaritza areagotzea
	B02	Basoak eta landaketak kudeatzea
	B02.03	Oihanpea ezabatzea
	B02.04	Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea
	F03.02.03	Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
	G01.08	Aire zabaleko beste kirol batzuk eta aisia jarduerak
	H01	Lur azaleko uren kutsadura
	H01.05	Nekazaritza eta baso lanek lur azaleko uretan eragindako kutsadura lausoa
	I01	Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
	J02	Baldintza hidraulikoetan eragindako aldaketak
	J02.03	Ur bideratzeak eta desbideratzeak
	J02.05.05	Proiektu hidroelektriko txikiak, presak
	J02.06	Lur azaleko uretatik datozen ur-hartuneak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02	Habitaten konektibotasunaren murrizketa antropogenikoa
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	K03.03	Gaixotasunak sartzea
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
<i>Galemys pyrenaicus</i>	A01	Laborantzak
	A02.01	Nekazaritza areagotzea
	B02	Basoak eta landaketak kudeatzea
	B02.03	Oihanpea ezabatzea
	B02.04	Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea
	F03.02.03	Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
	G01.08	Aire zabaleko beste kirol batzuk eta aisia jarduerak
	H01	Lur azaleko uren kutsadura

2016ko irailaren 13a, asteartea

Espezia	Kodea	Presioa/Mehatxua
	H01.05	Lur azaleko uren kutsadura lausoa, nekazaritza eta baso jarduerak eraginda.
	I01	Espezia inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
	J02	Baldintza hidraulikoetan eragindako aldaketak
	J02.03	Ur bideratzeak eta desbideratzeak
	J02.05.05	Proiektu hidroelektriko txikiak, presak
	J02.06	Lur azaleko uretatik datozen ur-hartuneak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02	Habitaten konektibotasunaren murrizketa antropogenikoa
	J03.02.03	Trukaketa genetikoaren murrizketa
	K02.01	Aldaketak espezieen osieran (segida)
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
	<i>Mustela lutreola</i>	A01
A02.01		Nekazaritza areagotzea
B02		Basoak eta landaketak kudeatzea
B02.03		Oihanpea ezabatzea
B02.04		Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea
F03.02.03		Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
G01.08		Aire zabaleko beste kirol batzuk eta aisia jarduerak
H01		Lur azaleko uren kutsadura
H01.05		Lur azaleko uren kutsadura lausoa, nekazaritza eta baso jarduerak eraginda.
H06.01		Zaratak, hots kutsadura
I01		Espezia inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
J02		Baldintza hidraulikoetan eragindako aldaketak
J02.03		Ur bideratzeak eta desbideratzeak
J02.05.05		Proiektu hidroelektriko txikiak, presak
J02.06		Lur azaleko uretatik datozen ur-hartuneak
J03.01		Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera

Espezia	Kodea	Presioa/Mehatxua
	J03.02	Habitaten konektibotasunaren murrizketa antropogenikoa
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	K03.05	Espezia sartzetik eratorritako antagonismoak
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehorreak eta prezipitazio gutxiago

Baldintzatzaileak

Ez dago haltzadien gainean eskala egokian egindako kartografiarik, ezta adierazle kuantitatiborik ere, eta horrek kontserbazio-egoeraren balorazioa zailtzen du, bai eta kudeaketa-neurri egokiak ezartzea ere.

Erreka-bazterreraino iristen diren eremu landatu eta larreak ohikoak dira.

Ibilguaren toki estrategikoetan zur hila pilatzen da; horrek egituren aniztasuna handitzea dakar, eta basoko flora- eta fauna-espezieentzat mikrohabitat batzuk sortzen ditu. Ibilgutik gertuen dauden baso-eremu landatuetakozuhaitzak ipurditik moztu daitezke horretarako, bermatzen baldin bada ibilgua eta mehatxatuta dauden fauna- eta flora-espezieak ez direla kaltetuko.

Fauna-komunitateen artean, ur-lasterrei lotuta daudenak oso zaugarriak dira mehatxu hauek direla-eta: erreka-bazterrak basogabetzea, obra zibilen ondorioz ibilguak aldatzea, ura kutsatzea eta abar. Baliteke arazo horiek ondorio latzak eragitea populazioetan.

Ibaiko karramarroaren arazo nagusia *Aphanomyces astaci* onddoak eragindako afanomikosisa da haren banaketa-eremu osoan, karramarro gorriaren espezie batzuk sartu izanari lotua, (*Procambarus clarkii*), ur beroetakoa eta behe-tarteetakoa da berez, eta era berean, zerikusia du seinale- (*Pacifistacus leniusculus*) sartu izanarekin, goitarteak kolonizatzeke gauza baita. Biak ere onddo-ekarleak dira. Gaitz horrek azkar erasaten du eta urtebetean bakarrik hiltzen ditu ibilguko populazioak. Espezie aloktono horien hedapena (bai berez, bai aleak ibilguetara botatzen direlako) mehatxurik larriena da oraindik ere ibaiko karramarro autoktonoarentzat. Isileko arrantza eta, arrantza-tresnen bidez, gaitz hori kutsatzea dira espeziea kontserbatzeko arazo nagusiak, baldin eta tresna horiek karramarro exotikoak ukitu badituzte edota onddoak kutsatutako uretan egon badira. Karramarro gorria Lareon sartu izanak eragin omen du karramarro autoktonoaren populazio birsartuaren desagerpena, bai eta zebra-muskuiluak ere. *A. italicus* espeziearen, ezta espezie aloktonoen, gaineko egungo banaketa-eremuaren mapa argirik ezean, ezinezkoa da kudeaketa-neurri egokiak zehaztea.

KBEaren handitzean proposaturiko Amundarain ibaiaren tartea oraindik ere muturluze piriniotarra bizitzeko moduko habitat baldintzak baditu ere, esan behar da tartea txikia dela luzeran (10 km baino gutxiago) eta bakartuta dagoela (Orian ibairatzen den tokitik aurrera, ibaiak ez du habitat kualitatetik espeziearentzat); horren ondorioz, berezko birkolonizazioa ezinezkoa da. Gainera, espezie oso sentibera da tarteko minizentralen enbolada-erregimenek emarian eragindako gorabeherekiko,

makrobentosaren presen eskuragarritasuna murrizten baitute, baina ori ertain-altutzat jo daiteke. Horregatik dira Aralarko errekek funtsezkoak eta ezin hobeak, espeziea lehengoratzera bideratutako lanak egiteko. Ezinezkoa da espezieak berez birkolonizatzea garai batean bizi izan zen tartek; beraz, ezinbesteko da habitat hondatua lehengoratzea eta espeziea birsartzea. Espeziearen egoera kolokan dago bizi den beste leku batzuetan, eta zaila da aleak leku batetik bestera aldatzea, eta ez dago espeziea *ex situ* hazteko programarik.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan *Galemys pyrenaicus* muturluze piriniarra (E.Geoffroy, 1811) eta *Mustela lutreola* bisoi europarra (Linnaeus, 1761) kudeatzeko planak onetsi zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindu bidez.

KBE barruan edo mendebaldeko mugan dauden Agauntza eta Zaldibia ibaien tartek intereseko eremutzat jo dira bisoi europarrantzat eta muturluzearentzat. Hala ere, tarte gehienak KBetik kanpo daude, bai eta Oria garai KBetik kanpo ere.

Bisoi amerikarren eta bisoi europarren populazioak elkarrekin lehian daude eta elkar baztertzen dute. Azken urteotan, bisoi amerikarra hedatzen ari da. Babes bereziko eremuko erreketan bisoi amerikarrik ageri ez bada ere, Frantziako hegoaldean eta Nafarroako iparraldean ikusi dira, bai eta Gipuzkoan oraindik dauden bi haztegi aktiboen inguruan ere, noizbehinka. Beraz, bisoi europarrantzat mehatxu potentziala da Aralarren.

Europako hainbat tokitan, badira bisoi europarra *ex situ* kontserbatzeko programak. Espainiako populazioarentzako erreferentziatzko zentroa Katalunian dago, eta diru zailtasun handien ondorioz, populazioak sendotzeko programa geldiarazita dago. Itxian haztea erraz samarra izanda ere, oraingoz proiektuek huts egin dute hazitako animaliak naturan moldatzeko orduan. Muturluzeari dagokionez, hazkuntza ere erraza da, baina ez dago zentrorik, ezta *ex situ* kontserbatzeko programarik ere.

5.3.- LARREAK ETA BELAR FORMAZIOAK.

A) Larre menditarrak

Kontserbaziorako interesa duten larrek Aralar KBEaren 2.950 ha ihartzen dituzte; hau da, azaleraren % 27 inguru. Dena dela, orbanen azalerari eta banaketari dagozkien datuak gorabehera, ez dugu eskura behar adinako informaziorik, zer-nolako kontserbazio-egoeratan dagoen zehaztasunez jakiteko; beraz, zenbatespen kualitatiboetan oinarritu dira habitat horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazioak.

Habitat horiek osatzen dituzten espezie bereizgarriez gain (diagnosian jada aipatutakoak), habitat horietan interes handiko espezieak daude kontserbaziorako, hala nola *Cicerbita plumieri*, *Aconitum variegatum*, *Armeria pubinervis*, *Nigritella gabasiana*, *Arnica montana*, *Crepis pyrenaica*, *Lathyrus vivanttii*, *Carlina acaulis* subsp. *caulescens* edo *Narcissus minor*, azken hori Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinetan jasoak.

Aralarko larreak, era berean, bereziki dira nabarmenak hegazti nekrofagoen eta harraparien komunitate zabal baten euskarri gisa, haietako asko mehatxatuak, hegazti horiek bizi-eremutzat erabiltzen baitituzte elikagaien bila, hala nola ugatzak. Habitat horiei lotutako lepidoptero espezieen artean, *Euphydryas aurinia*, *Maculinea arion* eta *Parnassius apollo* dira aipagarriak, Habitat Zuzentarauaren eranskinetan jasoak.

Larre alpetar eta azpialpetar karedunak (EB Kodea: 6170).

EAEn, 6.090 ha-ko azalera hartua dute, eta horien % 59 Natura 2000 Sareko lekuetan dago. Aralar KBEa funtsezkotzat joa dago habita hau kontserbatzeko; bertan, 819,82 ha-ko azalera dauka, hau da, lekuaren % 7,8 da, eta habitat horretatik Natura 2000 Sarean sartu denaren % 22,71.

Belardi horien azalera egonkorra da, eta haien egitura, oro har, habitat horri bereaz dagokiona da; beraz, egokitzen jo behar da. Larre nota horien espezie bereizgarrien artean, hainbat espezie katalogatu daude, hala nola *Armeria pubinervis*, *Arnica montana*, *Ophioglossum vulgatum*, *Nigritella gabasiana*, *Carlina acaulis subsp. caulescens*, *Lathyrus vivanttii*, *Viola bubanii* eta *Narcissus minor subsp. Minor*; hortaz, habitat honen balioa oso handia da kontserbaziorako KBEan.

Etorkizunerako perspektibak egokitzen jo behar dira, abere-karga egokiari eusten bazaio.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

***Festuco-Brometea* karedun substratuen gaineko larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikorak (EB Kodea: 6210).**

Larre hauek 122,04 ha-ko azalera hartzen dute KBEan; hau da, lekuaren % 1,11. Larre horietariko gehienek larre menditarren eta karedun mesoxerofiloen azpimotatakoak dira.

Habitat hau ongi ordezkaturik eta banaturik dago EAEn, hala isurialde atlantikoan nola mediterraneoan. Habitataren % 18,8 Natura 2000 Sarean sartuta dago, eta, zehazki, sarearen 41 lekutan dago. Aralarren habitatak Sarean duen azaleraren % 6,91 dago.

Trantsizio-barrutiak daude eta harkaitz-azaleratzeetan habitat hori otaberastrekin nahasten da (EB Kodea: 4090), festuka-larrediak ere badaude (EB Kodea: 6230*). Toki horiek kartografiatzea zaila da, eta estaldurei buruzko azterketa zehatzago bat egin beharko litzateke.

Gainera, orkidea ugari dituen lehentasunezko subfiluma bereiztea zaila da, ez baitago berariazko generoei buruzko irizpide kuantitatiborik Euskal Herrirako. EUNIS inbentarioan jasotako subfilumen arteko ezberdintasunak behatzaile bakoitzaren balioespen subjektiboen ondorio dira. Baliteke lehentasunezko subfilumeko azalera kartografiatuak gehiegizko tamaina izatea. Bestalde, gehiegizko artzaintza dela-eta, baliteke orkideen kopuruak behera egitea lehentasunezko subfilumean, *Nigritella gabasiana* espeziearen kasuan zuzenean ikusi den bezala. Espezie horri ere bilketak eragiten dio, neurri apalagoan bada ere

Larreok aldakortasun handia dute, eta dinamika azkarra dute abeltzaintza-erabileraren arabera; horregatik zaila da haien egitura eta funtzioa baloratzea, baina hasiera batean behintzat, egokitzen jotzen da, espezie berezigarriak bertan baitaude, horien artean *Narcissus minor* subsp. *minor* eta *Himantoglossum hircinum* dira aipagarriak, hegoaldeko isurialdeko larre mesoxerofiloetan daudenak.

Halako toki batzuetan bakarrik, saroi eremuetan, dago landaredia narriatua; hots, soilguneak, lurzoru trinkotua, eta espezie nitrofiloen presentzia, baina presentzia hori klimatologiaren mendean dago eta ez horrenbestean abere-kargaren mendean.

Abeltzaintza jarduerak bazter uzteko dagoen joera kaltegarri zaie larre horiei eta, abererik ezean, sasiak berehala hartzen ditu. Dena dela, kontuan hartuta epe laburrera ez dagoela aurreikusia habitat honetarako ezarri diren helburuak arriskuan jar ditzakeenazienda murrizketarik, etorkizuneko perspektibak ontzat jo ditzakegu.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie berezigarriak barne).	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Nardus-dun formazio belarkarak, espezie ugarirekin, menditar substratu silizidunen gainean (EB Kodea: 6230*)

1.983,44 ha Aralar KBEan, hau da, lekuaren % 18,11. Hala ere, zaila da haren kartografia egitea azaleko lurzoria dagoen bazterretan, eta albitiekin eta sasidiekin mosaikoan ageri den tokietan, non, zenbaitetan, larre mesofiloetaranzko trantsizioan ari den flora komunitate bat ageri baita (EB Kodea: 6210). Hori atzematen da belar latz hosto zabalak daudelako -albitza, adibidez (*Brachypodium pinnatum*)- eta bertan ere armika hazten delako (*Eryngium campestre*). EAEn, 8.341 hako azalera dute; horien % 34,93 Aralar KBEan daude; beraz, funtsezko tokia da. Horrelako larreak kontserbatzeko. EAEn inbentariatuakoen % 68, Natura 2000 Sarearen barruan dago, hau da, habitat honetarako eskatzen diren nahikotasun-mailen oso gaitetik. Hortaz, oso ondo dago sarean ordezkatua.

Gaur egun, ez dugu eskura datu kuantitatiborik larre horien kontserbazio-egoeraz. Dena dela, larrea ezaugarritzen duten espezieak hazten direla ikusita, esan daiteke haren egungo egoera ona dela (*Jasione laevis*, *Festuca gr. rubra*, *Agrostis capillaris*, *Galium saxatile*, *Lotus corniculatus*, *Potentilla erecta*, *Danthonia decumbens*, *Merendera montana*, *Trifolium repens*...).

Ez da ikusi habitataren egituran eta funtzioan osotasunean eta modu esanguratsuan ondorioak dituen unean uneko eraginik. Ereku higatuak ikusi dira edanlekuen inguruan, bai eta basurdeek muturkatutako esparru txiki batzuk ere. Biak kontuan hartuta ere, ez dakarte arazo larrik. Zenbait barruti, hala nola Oidui-Enirio, abereak sartzeko tokiak diren aldetik, unean uneko arazoaren sorleku izan daitezke. Gauza bera gertatzen da Igaratza-Ontzanburu-Pardarri aldean: abere ugari sartzeko dira Nafarroatik, eta, hainbat ur biltzen duen esparrua denez, higadura eta arrastoak ikusten dira. Kontuan izan behar

da Enirio-Aralar mankomunitateak pista-sare eskasa duela. Horrek arazoak sortzen ditu erabilerak garatzeko garaian eta unean uneko eraginak ditu larreetan. Etxoletara iristeko zenbait bide edo abeltzaintzarako azpiegitura batzuk sendotu gabeko bideak direnez, euriteen ostean bide horiek ibilgaitzak dira, eta ibilgailuek bide paraleloen eta arrastoen sarea sortzen dute.

Abeltzaintzako jarduerak uzteko joerak ondorio negatiboak ditu erdi-mailako mendi-larre horietan; izan ere, abererik ez badago berehala hartzen ditu sasiak. Larre horiei eusteko, aldian behin sastraka kendu behar da, larreak pixkanaka sasi ez bihurtzeko.

Dena dela, etorkizuneko perspektibak onak dira; izan ere, larre horiek dute kalitaterik handiena. Hortaz, aziendak lehentasunez hautatzen ditu.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Maila menditarretik alpetarrera bitarteko ordoki-orletako megaforbio eurotrofo hifrofiloak (EB Kodea: 6430) eta larre menditarretako flora.

Estai menditarretik alpetarrera bitarteko megaforbioak (EB Kodea: 6430) EAEko Natura 2000 Sareren bederatzi lekutan daude. Aralarko alde gipuzkoarrean 9,96 ha hartzen ditu, Maldabe, Ondarre, Mugitze, Txindoki, Ganboa, Balerdi, Pardarri eta Igaratzen banatuak. Natura 2000 Sarean dagoenaren ia % 70 Aralarren dago. Beraz, funtsezko lekua da habitata kontserbatzeko.

Erraz iristeko modukoak ez diren amilburuetan hazten direnez, ez dira oso kalteberak, oro har. Egitura egonkorak dira eta indar dezente hartzen dute, alde batetik, toki oso malkartsuetan daudelako, eta, bestetik, neguan elur ugari pilatzen delako (iparralderantz eta ipar-ekialderantz daude) eta horrek beste zuhaitz- eta zuhaixka-komunitate batzuen hazkundera eragozten duelako.

Oro har, kontserbazio-egoera ona du, baina zenbait kasutan, hala nola Mugitzen, hesia jarri behar izan da, leheneratzea bideratzeko.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).	X (Egitura)			X (Eginkizunak)
Etorkizunerako perspektibak	X			
Ebaluazio globala				X

Larre menditarretako florari dagokionez, oro har oso ale gutxi daude kokapenetan eta, zenbaitetan, oso bakartuta daude beste mendi batzuetako populazio hurbilenekoetatik. Nahiz eta nolabaiteko posibilitatea baden populazioen «erreskate efekturako», munta handiagoko kasuren batean eta Aralarko alde nafarrean, oso populazio sentiberak dira, eta datu gutxi dugu haien banaketaz, dinamikaz, eta kontserbazio-egoeraz.

Aconitum variegatum: EAEko hiru lekutan bakarrik dago, eta espezieak mundu mailan duen bi gune bakarretako bat osatzen dute. Izan ere, Aralarko eta Arazko populazioak (Gipuzkoa eta Araba) Mendebaldeko Pirinioetako endemismo honen banaketaren muga dira. Espeziearen populazio ugariak Aralarren daude. Ondarre-Ariñate, Pardarri eta Maldabe aldean, ehunka ale daude, eta gara ugaltzaileak 1.000 baino gehiago direla jo da; dena den, errizomen bidez birsortzeko duen gaitasuna ikusita, ez dakigu zenbat aleri dagozkien. Oso zatikatuak badaude ere, ez dakigu populazioetan gainbeherarik edo gorabeherarik izan ote den. Zaurgarritzat jo da, okupazio-eremu urria duelako.

Armeria pubinervis: EAEn, Natura 2000 Sareko bost lekutan aurkitu da, eta ale kopurua oso aldakorra da. Toki mailan ugariak izan badaitezke ere, populazioak bakartuta daude elkarren artean. Europako hegoaldeko mendietako endemismo atlantiar menditar bat da, eta haren kokapen ezagun gehienak EAEn daude. Aralarren oso toki zehatzetan ageri da (Auza Gaztelu, Txindoki, Arritzaga, Igaratza, Pardarri, Ganboa...), eta multzo txikiak osatzen ditu gailurretan, mendi-pasabideetan, erlaitz belartsuetan eta megaforbio komunitateetan.

Arnica montana: EAEn, Natura 2000 Sareko bost lekutan aurkitu da. Populazioa 250 ale helduz osatuta dagoela jo da. Pagadi azidofiloen lekua hartu duten larre eta txilardietan dago. Aralarren, Ondarreko (Amezketan) eta Balsagaingo (Bedaio) erdi abandonaturiko larreetan eta iralekuetan dago. Ale begetatiboak izaten dira nagusi, eta ale ugaltzaile gehienak Ondarre aldean daude.

Carlina acaulis subsp. caulescens: bakana da eta unean uneko banaketa dauka ale gutxiz osaturiko populazioetan. Penintsulari dagokionez, Pirinioetan, Kantabriar mendikatean eta Erdialdeko Mendikatean bakarrik dago. EAEn, hiru lurraldeetako mendilerro gutxi batzuetan baizik ez dago (Salbada, Zاراia, Aizkorri, Altzania eta Aralar), Iturrietako mendietan, bai eta Gasteizko Mendietan eta Toloño Mendian ere (Araba). Mehatxatua ez dirudien arren, bilketak uki dezake, oso infloreszentzia ikusgarria duelako (euskal mitologiaren arabera, gaitasun babeslea du, baserrien sarreran zintzilikatzen bada). Espeziea sakabanatua ageri da Aralarko larre mesofiloetan, baina beti ale kopuru oso mugatuarekin. Ale batzuk Mugitza, Larraona eta Igaratza aldean ikusi dira.

Cicerbita plumieri: Iberiar Penintsulari dagokionez, Pirinioetan, Kantabriar mendikatean eta Iberiar Mendikatean bakarrik dago. Kalkuluen arabera, EAEn 250 ale ugaltzaile baino gutxiago dago, bi populaziotan banatuta, biak ere Gipuzkoan: Aralar Mendia eta Leitzarain. Aralarren, ale gehienak era begetatiboan aurkitu dira, baina 2013an gune berri bat aurkitu zen Maldaben; hots, 23 ale ugaltzaile ditu, eta hainbat ale begetatibo. Guztira, espeziearen 200 bat ale ezagutzen dira Aralarren, eta ale ugaltzaileen kopurua aldakorra da urtearen arabera. Espezie hau oso lotuta dago bere habitataren kontserbazioari (larreak, eta mendiko megaforbioak, gehienetan iristeko zailak); baina, baso sailetan eta mendi pisten ertzetan ere ageri da (Balsagain aldean, Bedaio eta San Martin artean, Amezketan). Populazio horiek bereziki dira zaurgarriak, habitat horiek gaizki kudeatzeak haietan izan dezakeen ondorioak eraginda.

Coeloglossum viride: orkidea txikia da eta Iberiar Penintsulan Pirinioetako, Kantabriar mendikateko eta Iberiar Mendikateko bazkalekuetan dago. EAEn, oso bakana da eta oso kokatuta dago, hiru populazio ezagun besterik ez baitu, Salbada, Aizkorri eta Aralarren. Zalantzazkoa da gaur egun ote dagoen Aralarko alde gipuzkoarrean, Malloetako inguruan aipatua izan baita. Ezezagunak zaizkigu haren presentziaz estatusa, ale kopurua eta kontserbazio-egoera.

Crepis pyrenaica: Iberiar Penintsulari dagokionez, Pirinioetan eta Kantabriar mendikatean dago. EAEn, egiaztatu da hiru kokapenetan bakarrik dagoela; Ordunte, Aralar eta Salbada (Urduña) mendietako hiru herritan, hain zuzen. Aralarren bi eremutan da ezaguna *Arnica montana* espeziearekin batera, eta bestalde, Larraonan (larre heze eta fresko batean, megaforbioetakoak berezkoak diren beste espezie batzuekin batera). Guztira, populazioa ez omen da ehun alera iristen.

Geum pyrenaicum: Pirinioetako eta Kantabriar mendikateko landare endemiko bat da, eta megaforbio komunitateetan dago; erlaitz eta toki belartsuetan hazten da, kareharriaren gainean betiere; iparraldera begira dauden toki ospeletan, batez ere. Zalantzazkoa da gaur egun ote dagoen Aralarko alde gipuzkoarrean, Malloetako inguruan aipatua izan baita. Ezezagunak zaizkigu haren presentziaz estatusa, ale kopurua eta kontserbazio-egoera.

Geum rivale: EAEn bi aipamen baizik ez dira ezagutzen (Urizaharra Araban, eta Aralar Mendia, Gipuzkoan). Espezieei jarraitzeko lanetan, 2006an (Azpiroz *et al.*, 2006), ale ugaltzaile bakarra eta hiru begetatibo zenbatu ziren Araban. Baztertu dira Aldaon eta Beogain mendietan espezieaz egindako aipamenak, Aralarko alde nafarrean baitaude. Nolanahi ere, Herbario VITen kontserbatuta dagoen plegu bat badago ere, Igaratzatik letorkeena (Aralarko alde gipuzkoarrean), eta nahiz eta buru-belarri haren bila ibili den 2003an, 2006an eta 2009an, haren presentzia ez da baieztatu Aralarko alde gipuzkoarrean (Aldezabal *et al.*, 2003; Azpiroz *et al.*, 2006; Garmendia *et al.*, 2010). Hortaz, ezezagunak zaizkigu egungo kontserbazio-egoera eta banaketa Aralarko alde gipuzkoarrean.

Himantoglossum hircinum: orkidea hau bakana da Gipuzkoan, eta zabalduagoa dago Araban. Populazioak ale gutxiz osatuta egoten dira, eta nahiko bakartuta daude batzuk besteengandik (Uribe-Echebarria & Campos, 2006).

Lathyrus vivanii: Espezie honen 18 populazio bakarrik zaizkigu ezagunak Aralarko alde gipuzkoarrean. Ezagutzen ditugun ia ale guztiak Larraonan daude, baina Ondarre aldean ere ale bat dago. Ale gehienak begetatiboki ugaltzen dira. Arazko (Gipuzkoa eta Araba), eta Beriaingo (Nafarroa) populazio txikiekin batera, espeziearen banaketa muga dira, eta oso urrun daude Mendebaldeko Pirinioetako populazioetatik.

Lycopodium clavatum: EAEn, Ordunte, Gorbeia, Elgea eta Urkillako mendietan dago, eta beste kokapen bakartu batzuk baditu Gipuzkoako beste mendi batzuetan. Larre eta txilardi azidofiloetako berezko landarea izanik ere, Aralarren Ataungo baso sail batean aurkitu zen, 80ko hamarkadan (Aseginolaza *et al.*, 1984). Azken urteotan, ez da populazio horren jarraipenik egin; beraz, ez dakigu zertan den haren kontserbazio-egoera. Era berean, Aralarko mendiko larre azidofiloenetan bilatu beharko litzateke.

Narcissus minor subsp. minor (N. asturiensis): Habitat Zuzentarauko espeziea da eta populazio ezagun asko ditu EAEn, eta haietako bakoitza, gainera, ale ugariz osatuta

dago. Iberiar Penintsulako ipar-mendebaldearen endemismo bat da. Aralarko populazioak ugari samarrak dira; Perilekun, Arbelon, Ganboa txikin, Sarastarrin eta Doniturrietan.

Narcissus pseudonarcissus gr. nobilis-warduliensis: EAEn erditik ekialdera bizi da. Mendebaldean, Gorbeia menditik Aralar (Gipuzkoa eta Nafarroa) eta Entzia-Urbasaraino (Araba eta Nafarroa) ekialdean. Bestalde, Izkin daude espeziearen kokapen ezagun hegoaldekoenak. Erlaitz humusdunetan eta arrail karstikoetan bizi da, alubioiko lurzoruetan ur-ibilguen ondoan, edo pagadi nahiz harizti batzuen lurzoru freskoan. Biak ere gure lurraldeetan hazten dira 650 metrotik 1.250 metrora bitarte. Aralarko populazioak ugari samarrak dira; Lareon, Sarastarrin, Akaitz txikin eta Akaitzen, bereziki.

Nigritella gabasiana: orkidea honen banaketa-eremua oso murrizta da, eta populazioak oso zatikatuta daude. Kalkuluen arabera, ale helduak guztira ez direla 250era iristen, eta gorabehera izugarriak daude kopuruari dagokionez. EAEn, populazio bat bakarrik aipatu da Aralarren, Pardarrin zehazki, eta bestea Gorbeian. Biak ere larre eremuetan, kareharria azalean dagoela. Aralarko populazio ezaguna Pardarriko mendebaldean dauden irtengune arrokatsu batzuetan metatuta dago. Populazioa aldakorra da ale ugaltzaileen kopuruari dagokionez (4, 2010ean; 12, 2011n; eta 2, 2013ean), baina badirudi egonkor dagoela, eta uste da ale begetatiboen kopurua handiagoa dela. Ezezaguna zaigu haren dinamika epe erdira eta luzera.

Ophioglossum vulgatum: EAEn banaketa sakabanatua eta unean unekoa du, eta populazioak hiru Lurralde Historikoetan barrena banatuta daude. Zehazki, larre hezeetan bizi da, hala nola iturburuetan, ihitokietan, haltzadietan edota ibar hondoko hariztietan. 10x10 Km²-ko 28 UTM laukitan dago, eta kalkuluen arabera, populazio guztien artean, milatik gora direla ale helduak. Tamaina txikiko iratze hau, oso noizbehinka baina ugari samarra izaten da Bedaioko larre hezeetan eta iralekuetan, Balerdi mendiaren oinetan.

Pedicularis foliosa: EAEn, Salbada, Arcena eta Toloñoko (Araba) mendilerroetako haitzebakiko oinetara mugatuta dago, eta Aralar Mendira, Gipuzkoan eta Nafarroan. Ez da ale kopuruari buruzko daturik, ezta populazio ezagunen joerari buruzkorik ere. EAeko Natura 2000 Sareko lau lekutan bakarrik dago. Berezkoa da megaforbio eutrofo heze eta ospeletan.

Senecio doronicum: Bere banaketa osoaren barruan, aipatzekoa da Aralarko (Nafarroa eta Gipuzkoa arteko muga) eta Gasteizko Mendi Garaiak/Iturrietako Mendiak/Izkiko (Araban) kokapenek duten lotura izaera, Pirinioen eta Kantabriar mendikatearen artean. EAEn, Bubanik (1897-1901) Gipuzkoako Aloña mendin aipatu zuen, eta Aseginolazak (Aseginolaza *et al.*- 1984) Aralar Mendiaren, Aldaonen hain zuzen. Espeziearen presentzia zalantzazkoa zen Aralarko alde gipuzkoarrean, dauden aipamenak Malloetako nafar aldeari buruzkoak baitira. 2013an, ale begetatiboak aurkitu dira, eta ziurrenera, espezie honi dagozkie; zehazki, Bedaioko goialdeko larretan aurkitu dira; *Arnica montana* espeziearen populaziotik oso hurbil.

Tofieldia calyculata: espezie hau larre higroturbosoetan, jario paretetan eta megaforbio komunitateetan ageri da. Natura 2000 Sareko lau lekutan bakarrik aurkitu da. Txindokiko populazioa (Aralar) larre hezeetan dago, denak jario harkaiztien behaldeen garatzen direnak, eta zabal samarra da. Hala ere, oso espezie zaugarria da, bere habitat motak eraginda (kriptoprezipitazioaren, euriaren eta elur metaketaren mende-mendean baitago).

Trollius europaeus: EAEn bakana da eta kokapen gutxi batzuetan baizik ez da ageri Salbada, Aralar eta Toloñoko Mendietan. Miltzoak osatzen ditu larre freskoetan kareharrizko harkaiztien oinetan eta megaforbio eutrofoetan. Aralarren, inoiz edo ageri da ale gutxiko populazioetan, eta kalkuluen arabera, ale helduak guztira 50 eta 100 artekoak dira. Oso lore ikusgarriak ditu; beraz, zaugarria da bilketaren aurrean. Dena den, toki malkartsuetan hazten da, irisgarriak ez direnetan, eta horrek bilketaren presio-faktorea mugatzen du.

Veratrum album: ongi banatuta dago Europako toki gehienetan, eta sakabanatuta dago Natura 2000 Sareko zazpi lekutan. Era askotako inguruneetan dago banatua, hala nola erreka-bazterretan, megaforbioetan, harkaiztietako irtenguneetan, larreetan eta/edo txilardietan. Aralarren, sakabanatuta dago larre hezeetan, megaforbioetan eta erlaitz belartsuetan (Bedaio, Igaratza, Txindoki). Oro har, hamarnaka alez osaturiko populazioa osatzen du, baina ugaria izan daiteke tokian-tokian hainbat tokitan; Balsagainen, adibidez (Bedaio eta Amezketaren artean), bertan megaforbio formazioetako osagaia baita erreka ertzetan, baso sailen barruan.

Viola bubanii: Pirinioetako eta Kantabriar mendikateko endemismo bat da. EAEn, Aizkorri-Aratzen eta Aralarren baizik ez da ezagutzen, 1.200 eta 1.350 metro arteko altueran. Espezie kionofiloa da, oso toki zehatzetan Aralarren (Pardarri, Mugitze, Doniturrieta, Igaratza, Zaldiarrate), eta larre harritarretan eta haitzebakietako oinetan ageri da. Biribil txikiak osatzen ditu, eta kasu bakoitzean oso ale gutxiz osatuak. Pardarriko populazioan, *Nigritella gabasiana* espeziearekin batera ageri da.

a) *Aconitum variegatum*, *Pedicularis foliosa* eta *Senecio doronicum*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala				X

b) *Armeria pubinervis*, *Arnica montana*, *Carlina acaulis* subsp. *caulescens*, *Crepis pirenaica* eta *Himantoglossum hircinum*.

	Ona	Ezegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala		X		

2016ko irailaren 13a, asteartea

c) *Cicerbita plumieri*, *Lathyrus vivantii*, *Nigritella gabasiana* eta *Trollius europaeus*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala			X	

d) *Coeloglossum viride*, *Geum pyrenaicum* eta *Lycopodium clavatum*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala				X

e) *Geum rivale*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak			X	
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala			X	

f) *Narcissus minor subsp. minor* (*N. Asturiensis*), *Narcissus pseudonarcissus* gr. *nobilis-warduliensis*, *Ophioglossum vulgatum* eta *Veratrum album*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala	X			

g) *Tofieldia calyculata*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala	X			

h) *Viola bubanii*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala		X		

B) Sega-belardiak.**Altitude txikiko sega-belardi pobreak (EB Kodea: 6510).**

Eskura dauden datuen arabera, 691,34 ha sega-belardi daude Aralarren; alegia, azalera guztiaren % 6,31. Baliteke sega-belardi gisa kartografiatuta ageri den azalera gehiegizko tamaina izatea. Inbentarioan sartuta dauden belardi batzuk *Cynosurus cristatus* espezieko sega-belardi eta bazkalekuak dira, Habitategi buruzko Zuzentarauan jasota ez daudenak.

Hala ere, eta kartografian izan daitezkeen akatsak alde batera utzita, jo da sega-belardiak nabarmen ari direla atzera egiten, eta EAeko habitatik mehatxatuenetako bat da, oso azkar uzten ari diren nekazaritza eta abeltzaintza jardueren mendean baitaude.

Kartografiatutako unitateak sega-belarditzat hartzen jarraitu daitezkeen kasuetan ere, eta kontuan hartuta belardi horiek egun nola erabiltzen diren, kontserbazio-egoera kaskarra da aurreikustekoa, habita honen errepresentazio bereizgarrien aldean. Dena dela, kontserbazio-egoeraren nolakoa finkatuko bada, lore osaerari buruzko azterlan zehatza egin behar da, eta ez da halakorik egin.

Kontuan hartuta abeltzaintza-jarduerak ezinbestekoak direla habitat hau kontserbatzeko, eta kontuan hartuta ere baseritarren artean ez dagoela belaunaldi txandaketarik, etorkizuneko perspektibak txartzat jo behar dira.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).				X
Etorkizunerako perspektibak			X	
Ebaluazio globala			X	

C) Zohikaztegiak eta Inguru zingiratsuak larre eremuetan

***Cladium mariscus* espezieaz osaturiko kareharrizko zohikaztegiak (EB Kodea: 7210*).**

EAEn, habitat honen 10 kokapen inbentariatu dira, bost KBetan banatuta, hala Eskualde Atlantikoan nola Mediterraneoan. EAEn, 2,05 ha-ko azalera bildu da kartografian, eta horien % 86,86 Natura 2000 Sarean sartuta dago.

Habitat honek toki murrizak hartzen ditu lurzoru higroturbosoetan, eta eremuz kanpoko ingurune-ezaugarri jakin batzuk ditu; horregatik, erreferentziarako azalera ez da irizpide nabaria bere kontserbazio-egoera zehazteko. Aralarren aurkitutako tranpal bakarrak azalera murrizta badu ere (0,11 ha), 92 espezie inbentariatu direla, ziurrenera da lore aberastasunik handiena duen tranpala EAEn.

Abereek gehiegi zapaltzearen ondorioz higatuta zeuden eremuak ageri ziren. Eutrofizazioa handia zenez, espezie nitrofiloak ugaritu ziren. Horregatik, hesiz inguratu zen, abereak ez sartzeko, eta *Cladium mariscus* landatu zen, espezie horren dentsitatea handitzeko. Hala eta guztiz ere, landare lastodunak ugaritu dira gero, eta bertako zuhaitz-espezieek (*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*) hartu dute eremua, abereen eraginik ezean erraz hazi baitira. Horrenbestez, *Cladium mariscus* espezieko komunitatea ahuldu eta murriztu egin da.

Gainera, ura aska batera eramateko hartzen denez, hezegunea hein batean lehortzen da, baina ez dirudi horrek landare komunitateari nabarmen eragiten dionik.

Horregatik guztiagatik, haren kontserbazio-egoerari kaskarra iritzi zaio eta desagertzeko arrisku larrian dagoela.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).			X	
Etorkizunerako perspektibak			X	
Ebaluazio globala			X	

Trantsizioko mirak (EB Kodea: 7140).

Mota honetako habitat bakarra dago Igaratzen, eta abereek edateko erabiltzen den toki da; beraz, nabarmena da abereek zapaltzen dutela. Abereen eragina positiboa da habitat honetan, interes natural txikiagoa duten etapa helduago batzuetara igarotzea eragozten baitute. Baina, baliteke zenbait arazo sortzea: trinkotzea, desegituratzea, nitrifikatzea, eta larreetako espezie ugari agertzea habitat honetako ohiko espezieekin lehian (azpimarratzekoa da Sphagnum sp. goroldioaren eta beste espezie azidofilo batzuen presentzia funtsean karetsua den inguru batean).

Espezie horiek eremu babestuenetara mugatuta daude, aziendaren zuzeneko ekintza iristen ez den haietara, eta otaberaren babesean.

Itxuraz, tokiak potentzial nahikoa du gaur egun duen azalera baino askoz ere handiagoa duen egitura hartzeko.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Egitura eta berariazko eginkizunak (espezie bereizgarriak barne).			X	
Etorkizunerako perspektibak			X	
Ebaluazio globala			X	

Jarduerak, presioak eta mehatxuak

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
Larre alpetar eta azpialpetarkaredunak (EB Kodea: 6170).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02.01	Behi-aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.02	Ardi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.03	Zaldi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G091.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)

2016ko irailaren 13a, asteartea

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
<i>Festuco-Brometea</i> karedun substratuen gaineko larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikorrak (EB Kodea: 6210).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02.01	Behi-aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.02	Ardi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.03	Zaldi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G091.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
<i>Nardus</i> -dun formazio belarkarak, espezie ugariarekin, menditar substratu silizedunen gainean (EB Kodea: 6230*).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.01.05	Artzaintza misto intentsiboa
	A04.02.01	Behi-aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.02	Ardi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.03	Zaldi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
M02.03	Espezieen gainbehera edo desagertzea	

2016ko irailaren 13a, asteartea

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
Maila menditarretik alpetarrera bitarteko ordoki-orletako megaforbio eurotrofo hifrofiloak (EB Kodea: 6430).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02.01	Behi-aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.02	Ardi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.03	Zaldi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.04	Ahuntz-artzaintza ez-intentsiboa
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
M02.03	Espezieen gainbehera edo desagerpena	
Altitude txikiko sega-belardi pobreak (EB Kodea: 6510).	A02	Nekazaritza-lanen aldaketa
	A03.03	Sega egiteari uztea / ez egitea
	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.01.05	Artzaintza misto intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	A10.01	Landare-hesiak eta ibaiertzeko landaredia edo zuhaixkak ezabatzea.
	A10.02	Harrizko hormak eta euste hormak ezabatzea
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
M02.03	Espezieen gainbehera edo desagerpena	

2016ko irailaren 13a, asteartea

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
Trantsizioko mirak (EB Kodea: 7140).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02.01	Behi-aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.02	Ardi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.03	Zaldi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.05	Artzaintza misto ez-intentsiboa
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G01.08	Aire zabaleko beste kirol batzuk eta aisia jarduerak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	I01	Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
	J02.05	Kalteak hidrografia orokorrean
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
	M02.03	Espezieen gainbehera edo desagertzea
Cladium mariscus espezieaz osaturiko kareharrizko zohikaztegiak (EB Kodea: 7210*).	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.02.01	Behi-aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.02	Ardi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.03	Zaldi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.05	Artzaintza misto ez-intentsiboa
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G01.08	Aire zabaleko beste kirol batzuk eta aisia jarduerak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	I01	Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
	I02	Bertako espezie arazotsuak
	J02.05	Kalteak hidrografia orokorrean
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago
M02.03	Espezieen gainbehera edo desagertzea	

Habitata	Kodea	Presioa/Mehatxua
Larre menditarretako flora	A04.01	Artzaintza intentsiboa
	A04.01.05	Artzaintza misto intentsiboa
	A04.02.01	Behi-aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.02	Ardi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.03	Zaldi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	A08	Ongarrien erabilera
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02.03	Lur orotako ibilgailu motordunak
	G05.01	Zapaltzea, gain erabilera
	I01	Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02.03	Trukaketa genetikoaren murrizketa
	K01.01	Higadura
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago	
M02.03	Espezieen gainbehera edo desagertpena	

Baldintzatzaileak

Mendiko larreak kontserbatuko badira, bai eta bertako flora eta fauna bereizgarriak ere, era aktibo eta orekatuan kudeatutako abeltzaintza estentsiboari eutsi behar zaio, habitat funtzional horiek irauteko.

Artzaintza estentsiboa larreak ondo kontserbatzeko oinarrizko tresna da; horretarako, artzainen eta abeltzainen lankidetzak behar da, abere-kargaren banaketa orekatua funtsezkoa baita. Orobat, abeltzaintzarako erabiltzen diren ekipamendu eta azpiegiturak egokiak izan behar dute, aprobeixamendua iraunkortasunaren aldekoa izan dadin, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari erreparatuta.

Albitz-belardiek (EB Kodea: 6210) dinamika oso aldakorra dute, abeltzaintzako erabileraren arabera. Abere-karga txikia duten tokiak sasiak hartzen ditu pixkanaka, eta otabera duten sastraka-egitura bihurtzen dira. Abere-karga handia badute, berriz, albitz-belarra ez da behar bezala hazten, haren osaera eta egitura xumetzen doaz eta espezie nitrofiloak agertzen dira, bai eta higadura-prozesuak ere.

Habitat funtzional horien kudeaketa abeltzaintza-sektorearen egoera sozio-ekonomikoa eta mendiaren idiosinkrasia elkarri egokitzera bideratuta egon da, artzain-jarduera antolatuz eta arautuz tokian tokiko abeltzain-elkarteak sustatu eta sortzearen bidez. Haiekin eta onura publikoko mendien titular diren erakundeekin elkarlanean jardunda, kudeaketa- eta aprobetxamendu-planak itundu dira, zeinetan honako hauek sartzen baitira: artzaintza-ordenantzak egitea; ganadua mendian sartzeko eta handik irteteko egunak erabakitzea; abeltzaintza-zama arautzea; oinarrizko azpiegituraz hornitzea, besteak beste iturburuetatik ura hartu eta bordetan eta urasketan banatzeko; sasiak garbitzea sastraka-inguruneetan; erabilera-itxiturak abeltzaintzan; erabilera-mahukak; ibiltzeko moduko pistak; jezteko eta gazta egiteko bordak eta azpiegiturak hobetzea; ongarritze zuzentzailea; gaitzea, ahulak izan daitezkeen aldeetan presioa gutxituta aldi batez abere-karga handiagoa jasan dezaketen gunetan belar-haziak ereitearen bidez eta abar.

Datuak falta badira ere, ez da hautematen higadura-prozesu adierazgarririk, edanlekuen inguruan izan ezik. Abere-karga ez da homogenea: Oidui-Enirio inguruan (alegia, abereak Gipuzkoan sartzen diren tokian) abere-karga handia pilatzen da; Ortzanburu-Pardarri inguruan ere gauza bera gertatzen da, handik sartzen baitira Nafarroatik datozen abereak; bestalde, argazkien interpretazioa eta tokian bertan ikusitakoa kontuan hartuta, Batasunaren intereseko larreak galdu dira, sastraka bihurtuta, eta sastraka zegoen tokian, berriz, zuhaitz gehiago daude mankomunitatearen hegoaldeko sailetan, 1983tik hasita gutxienez (Zubeldia I., 2013), baita Erdikoan ere, zenbait gunetan. Alabaina, datu kuantitatiboak falta badira ere, eta adierazitako esparru horiek salbuespen direla, tokian bertan ikusitakoaren arabera ateratzen den ondorioa da karga-gaitasunari egokitzen zaiola eskaera eta horrek agrosistemaren orekari eustea bideratzen duela.

Larre-aprobetxamenduak ez daude basoetan araututa. Ez dago azienda sartzeara eragotziko duen itxiturarik. Hala ere, abere-presioak ez du kolokan jartzen basoen birsorkuntza, eta pagatxek, ezkurrek eta belar-estratuak baliabide osagarri esanguratsuak ematen dituzte, hotza hastean.

Urte arteko aldaketek eta behe-larreen produktibitateak oso nabarmen baldintzatzen dute bai azienda mendian sartzeara, baita mendian sartzeko eta ateratzeko datak ere. Ondarre (Amezketak) eta Balsagain (Bedaio) aldeko toki batzuetan utzi egin zaio segalana egiteari, eta azpiendaren presentzia larreen emankortasunaren arabera izaten da (altuera handiagoan kokaturiko larreen urte emankorretan, azpiendak ia ez ditu larre horiek erabiltzen; belar gutxiko urteetan, aldiz, uda osoa eman dezakete) Bi gauza horiek (sega bazter utzi izana eta azienda tarteka egotea) eraginda, behe-sasiak eta iratzeak ugaritzen ari dira, eta hainbat espezie arriskuan daude, hala nola *Arnica montana*, *Crepis pyrenaica* eta *Leucanthemum maximum*; halaber, arriskuan dago sega-belardiak berak mantentzea. Larre horiek, egokiro kudeatuz gero, goi kalitateko belar ondua sor dezakete.

Sega-belardiak larre karedun xerofitikoetarantz bilakatzen dira (EB Kodea: 6210), erabiltzeari uzten bazaie, eta *Cynosurus cristatus* espezieaz osaturiko sega-eta larratze-belardietarantz, edo espezie oso emankor gutxiz osaturiko bazkaleku hutsaletarantz, erabilera handitzen bada. Prozesu horietako batzuk gertatu ahal izan dira, EAEn lehen EUNIZ inbentarioa egin zenetik hona, aldaketa sakona egon baita azken urteotan baserrien inguruko nekazaritza-jardueran.

Baina, argazkien interpretazioaren bidez ezin dira bereizi habitat hori eta sega-belardiak ez diren bazkalekuak; beraz, seguruenik oker kartografiatu dira zenbait belardi. Bi faktore horien emaitza da gaur egungo kartografiak ez duela irudikatzen sega-belardien benetako azalera (EB Kodea: 6510). Azalera horri gehiegizko tamaina eman zaio ziurrenik.

Habitat hori galtzearen alderantzizko prozesua ager daiteke epe ertainean, simaurtzen bada, ebakitzen bada, eta abereek bertan behar bezala bazkatzen badute. Sega-belardiei eusteko, aldi behin ebaki behar dira (urtean bitan gutxienez eta bost aldiz gehienez); eskuarki, landare lastodunak loratu eta hazia bota ondoren hasten da ebakitzea. Neguan, berriz, simaurrez ongarritu behar dira. Neguan, ohikoa da ebakitako sailetan ardiak edo behiak bazkatzea, intentsitate txikiko artzaintzan. Sega-belardiak Euskal Herriko paisaia kultural oso adierazgarriak dira; «landazabal atlantikoa» osatzen dutela esan dezakegu. Landazabaleko paisaiek egiturazko elementu bereizgarri hauek dituzte: heskaiak, zuhaitziak, zuhaitz zahar bakanak (sarritan zuhaitz lepatuak izaten dira), harrizko hesiak eta belardiak. Landazabaleko paisaiaren dibertsitate estrukturala eta funtzionala faktore hauen araberakoa da: osagai bakoitzari dagokion urbanaren tamaina eta forma, banaketa, kokapen erlatiboa, eta biodibertsitatea bultzatzen duten elementu naturalen eta kulturalen kopurua. Heterogeneotasunari eusteko, etengabe erabili behar da. Nekazaritza-jarduera uzteak edo intentsitate handiagoz lantzeak mosaikoa artifizial bihurtzea edo hondatzea dakar, bai eta osagaien kalitatea galtzea ere. Horren emaitza da faunak, oro har, habitata, babesa, elikagaiak eta igarobideak galtzen dituela. Baina, ez dago mosaikoaren sinplifikazioa ebaluatzeko eta prebenitzeko aukera ematen duen heterogeneotasun-adierazlerik. Larre eta belardien sinplifikazioa eta heskai, zuhaitzi eta beste egiturazko osagarrien galera dela eta, landazabal atlantikoa homogeneousatzen ari dela ikusten da.

Beraz, epe erdira eta luzera, ez dago bermatua Aralarko larreak egoera onean mantentzea, ezta behealdeko sega-belardiena ere. Bi-biak KBEko ekoizpen-sistemaren osagai ezinbesteko eta osagarriak dira, eta programa integratu bati jarraikiz kudeatu beharko liriateke. Programa horrek abeltzaintza estentsiborako laguntzak aurreikusitako beharko lituzke, ingurumenari egiten dizkion zerbitzuak saritzeko.

Era berean, ez dago bermatua landazabal atlantiarraren iraupena.

Belardietako eta mendi-larreetako baliabideen optimizazioa, ingurumenaren ikuspegitik ez ezik, diruaren ikuspegitik ere ezinbestekoa da, abeltzaintza estentsiboa bideragarria izan dadin.

Hala eta guztiz ere, mendi-larreak zaintzeko alderdirik garrantzitsuenetako bat izango da abeltzaintza estentsiboa sustatzeko gaitasuna, aldeko kudeaketa aktiboaren bidez. 2007-2013 aldiaren, Landa Garapenerako Programak bereziki bildu ditu abeltzaintza estentsiboari buruzko laguntza orokorrak, hala nola alde behartsuetarako laguntzak; era berean, nekazaritza eta ingurumen arloko berariazko laguntzak bildu ditu mendi-larreak aprobetxatzeko, eta horiek nola halako eragina izan dute Aralarren.

Aralarko babes bereziko eremuan ongarririk edo kaltzio-medea penak erabiltzeari dagokionez, orain dela urte batzuk utzi zitzaion onura publikoko mendiak ongarritzeari edo karea modu estentsiboan botatzeari.

Sua mendetako usadioa izan da mendi-larreei eusteko eta sasien kolonizazioa geldiarazteko. Gaur egun, beste bitarteko batzuk erabiltzen ari dira suaren ordean (sasi-garbitzea, ongarritze zuzentzailea eta abar), oldarkortasun txikiagokoak litezkeen higadura-fenomenoen aurrean, eta beste jardun agronomikoen kasuan bezala (luberritzea eta/edo berrereintza), murrizketekin hartu eta arautu behar dira, eta betiere Batasunaren intereseko bazkalekuak eta sastrakak mantendu eta kontserbatzeko helburu nagusia lortzearen mesedetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak abeltzaintza estentsiboaren erabilerarekin lotutako azpiegiturak hobetzeko ahalegin handia egin du. Hala eta guztiz ere, oraindik badaude ur-puntu gutxi dituzten zenbait eremu; beste inguru batzuetan, berriz, irisgarritasun-arazoak dituzte, eta horrek aprobezkatu eraginkorra eragozten du. Azpiegitura horiek jartzeko tokiak aukeratzea funtsezkoa da abereak banatzeko eta larreetan ondoriorik ez sortzeko.

Ohikoa da norabide berean joan diren ibilgailuen arrasto ia paraleloak ikustea, bereziki EB Kodea: 6170 eta 6230* habitatek estalitako eremuetan; batez ere, etxoletara igotzeko bideetan behar bezala egokitu gabe eta egoera kaxkarrean dauden tartetan. Garai jakin batzuetan (euri asko egiten duenean, batez ere) bide nagusiak ezin dira erabili, eta ibilgailuek beste bide batzuk bilatu behar dituzte alboetan, abereak zaintzera igotzeko, eta horrek guztiak kalteak sortzen dizkie habitatei.

Enirio-Aralar mankomunitatearen jarduera-planean (2002) detektatu zen jada arazo hori. Iristeko bide egokiak izatea eta hobetzeko ekintzei heltzea garrantzi handikoa zela azpimarratzen zen. Plan horretan bost eremu identifikatzen ziren, irisgarritasuna hobetzeko eta gaur egungo inpaktuak murrizteko berariazko soluzioak behar dituztenak:

- Arritzaga ingurua
- Goroskintxu-Elutseta-Egurral
- Txutxuta-Kiutixao-Pagabe
- Errenaga-Beaskin-Doniturrieta
- Urruzti-Oidui-Arrantsao

Arrastoak dauden tokietan habitatak leheneratzeko, etxoletara eta beste abeltzaintza-azpiegitura finkatu batzuetara iristeko bideak egokitu behar dira, eta mantentze-lanak egin behar dira. Hartara, ibilgailuek ez dira bidetik kanpo ibiliko, eta abeltzaintza estentsiboari eustea bideratuko da; izan ere, jarduera horrek bermatzen du eremuko larre-habitaten iraupena.

Arrastoak dauden tokietako habitatak lehengoratzeko, etxola finkatuetara iristeko bideak egokitu eta mantentze-lan iraunkorrak egin behar dira. Hartara, ibilgailuak ez dira bidetik kanpo ibiliko, eta abeltzaintza estentsiboari eustea bideratuko da; izan ere, eremuko larre-habitaten iraupena bermatzen duen jarduera da.

Gipuzkoan lanak egiten ari dira, *Arnica montana*, *Cicerbita plumieri* eta *Lathyrus vivanii* espezieez osaturiko habitataren jarraipena egiteko, *ex situ* kontserbatzeko eta kudeatzeko (Garmendia & Oreja, 2007, Garmendia *et al.*, 2008, 2010).

Sendaketa edo apainketa xedeetarako egiten den bilketak eragina izan dezakete lore-espezie mehatxatu batzuetan, hala nola *Arnica montana*, *Carlina acaulis* subsp. *caulescens*, *Narcissus spp.* edo *Himantoglossum hircinum* espezieetan.

Egiaztatu da *Cicerbita plumieri* espeziearen ale batzuk pisten ertzean hazten direla, eta sasiak gabritzeko makinek mozten dituztela; horren ondorioz, ezin dira eskapo ugaktzaileak garatu.

Cladium mariscus tranpala (EB Kodea: 7210*) eta trantsizioko mirak (EB Kodea: 7140) habitatak larreen eremuetan inskribaturik daude. Duela zenbait urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurua hesitu zuen, aziendarik ez sartzeko eta *Cladium mariscus* espeziearen formazioa birsortzea sustatzeko. Gainera, espezie horren landaketak egin dira dentsitatea handitzeko. Horrelako jardueri aldi behingo jarraipena egin behar zaie.

Zohikaztegi-komunitateak bereziki sentikorrek dira abereekiko. Eskuarki, gune horietan abereak badaude, ingurumen-interes gutxiago duten egituretara jotzea eragozten dute; baina, abere gehiegi badaude, komunitateak desegituratzea eta nitrifikatzea gerta daitezke. Beraz, kasu bakoitza berariaz aztertu behar da.

5.4.- HARKAITZETAKO KOMUNITATEAK.

Flora harkaiztarra

Aralarren, harkaiztiei lotutako 20 flora espezie daude mehatxatuta, baina espezie horiek, aldi berean, lotuta daude harkaiztiekin mosaikoa osatzen duten beste habitat batzuei, hala nola mendiko larreei edo megaforbioei; horrenbestez, harkaiztiei lotutako espezie batzuk larre menditarren eta megaforbioen atalean sartu dira jada, larre menditarren barruan.

Oro har, espezie horiek oso banaketa mugatua eta bakartua dute EAEn. Gehienetan ale gutxiz osaturiko populazioak dira, eta horrek are ahulago egiten ditu, nahiz eta batere irisgarriak ez diren tokietan hazten diren.

Ez dakigu zehaztasunez zer-nolako munta duten KBeko flora mehatxatuetako populazioek, ezta zer banaketa eta zer dinamika duten ere, ez baitira aztertu espezie horietarako Aralarren dauden toki potentzial guztiak. Egungo datuen arabera, Gehienetan ale gutxiz osaturiko populazioak dira, eta horrek are ahulago egiten ditu, nahiz eta batere irisgarriak ez diren tokietan hazten diren. Hortaz, ezinbestekoa da jarraipenak egitea denbora zehar duten dinamikari buruz.

Allium victorialis: EAEn, Natura 2000 Sareko sei lekutan aurkitu da. Ale askoz osaturiko zortzi populazio daudela jo da. Megaforbioetako espezie bereizgarri hau lapiazetako hutsuneetan agertu ohi da, substratua ongi garatuta dagoela Igaratza aldean, eta ingurune horietako beste espezie bereizgarri batzuekin batera, hala nola *Geranium sylvaticum* espeziearekin batera, eta zabalegi mendiko alde ospelean. Igaratzako populazioa ez da irisgarria azindarentzat, ehunka alez osatuta dago, eta kontserbazio-egoera onean dago, baina ez dakigu KBeko beste toki batzuetan ote dagoen.

Dryopteris submontana: Iberiar Penintsulan, Pirinioetatik Mendikate Betikoetaraino dao zabaldua, baina kokapen bakartu eta erreliktikoetan. EAeri dagokionez, Altzania, Aizkorri, Aralar eta Urkiolako mendietan bakarrik dago, eta ale kopuru murrizarekin, gainera. Lapiazetako eta harkaitzetako arrailetako berezko espeziea da, betiere elur handia metatzen den tokietan eta kriptoprezipitazio ugarikoetan hazten da. Aralarren, Kobagain eta Aldaon artean aurkituko dugu. Kobagaingo populazioa ugari samarra da eta hamarnaka alez osatuta dago.

Paris quadrifolia: ongi banatuta dago ia Europa guztian, Mediterraneo aldean izan ezik. Iberiar Penintsulako kokapen gehienak Pirinioetan eta Kantabriar mendikatean daude, eta populazio bakartu batzuk, berriz, Iberiar mendikatean. EAEn, nekez joko du banalerroetako mendietatik hegoaldera, eta bost KBetan dago. Baso formazioen barruan ageri ohi bada ere, ia beti harkaizti humusdunetako arrailetan dago kokatua, haitzebaketako oineko basoetan edo pagadietan (Bedaion eta Larraonan, adibidez). Aipatzekoa da formazio mota horietatik kanpo dagoen formazio handia, Balsagainen, Bedaio eta Amezketan artean, baso sailen orlan, beti oso leku hezeetan edo erreka bazterretan.

Pulsatilla alpina subsp. cantabrica: Kantabriar mendikateko, EAeko mendietako eta Pirinioetako endemismo bat da, eta hiru KBetan bakarrik dago, eta populazioak ale gutxiz osatuta daude. Aralarren, unean-unean ageri da beti, eta oso populazio kokatuak osatzen ditu, oso ale gutxiz osatuak, ia bertikalak diren erlaitz belartsuetan, oso hezeetan, eta iparrera edo ipar-mendebaldera begira daudenetan: Pardarri, Txindoki, Larraona, Maldabe, Ondarre eta Ganbo-Lizasoko lepoa.

Ribes petraeum: European banaketa zabala badu ere, EAEn bi populazio bakarrik ezagutzen ditugu: Aizkorrin eta Aralarren, hain zuzen ere. Ale kopurua guztira oso murrizta da. Kalkuluen arabera, 250 ale baino gutxiago, gehienak Aralarren. Ale gehienak iristeko zailak diren tokietan daude, kareharrizko harkaitzetako arrailen eta erlaitzen gainean, ingurune fresko eta itzaltsuetan, eta beti 1.200 metrotik gora. Gaur egun, Pardarriko eta Igaratza-Aldaongo lapiazetan bakarrik aurkitu da, baina ugariagoa da Igaratza eta Aldaon artean, non *Allium victorialis* espeziearekin batera hazten baita. Ehun ale ugaltzaile baino gutxiago direla jo da.

a) *Allium victorialis*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala	X			

b) *Dryopteris submontana*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala		X		

c) *Paris quadrifolia* y *Ribes petraeum*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala		X		

d) *Pulsatilla alpina subsp. cantábrica*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala		X		

Harkaitzetako fauna

Aralarren ugari samarra eta askotarikoa da harkaitzetako hegaztien komunitatea. Horren haritik, nabarmentzekoa da ugatza hemen espezie egonkorra dela (*Gypaetus barbatus*), eta sai zuria ere badagoela (*Neophron percnocterus*) ugaltzaile gisa, penintsula mailan gainbehera nabarmenean ari denean; zehazki, lau bikote ugaltzaile daude KBE barruan. Halaber, azpimarratzekoa da badaudela intereseko beste espezie batzuk, hala nola belatz handia (*Falco peregrinus*), KBEan hainbat hazkuntza lurralde dituen; hontz handia (*Bubo bubo*), gutxienez ere bi lurralde ezagun dituen, edota sai arrea (*Gyps fulvus*), Aralarren baitago Gipuzkoako koloniarik ugariena, eta KBEa ugaltzeko, bizi-eremurako eta elikatzeko erabiltzen duena. Era berean, arrano beltza ohikoa da (*Aquila chrysaetos*), eta KBE barruan ugaltzen ez bada ere, normalean ehizarako erabiltzen du.

Ugatza (*Gypaetus barbatus*) egotea oso gauza interesgarria da, Europan oso gainbehera nabarmena izan baitu. Orain, Pirinioetako populazio guneraino mugatua gelditu da, eta Galtzeko Arriskuan dago. Azken urteotan, badirudi espeziea lehengorutzen ari dela, baina Pirinioetako gunen nagusian lurralde kopurua eta unitate ugaltzaileen kopurua asko handitu badira ere, Pirinioetatik kanpo ez da finkatu lurralde egonkor berririk. Azken urteotan, EAEko mendiak kolonizatzeko saiakera bat egin da, eta 90eko urteetatik aurrera, gutxienez hiru lurraldetan erregistratu da; Aralarren (Nafarroa eta Gipuzkoa artean), Urbasa-Lokiz (Nafarroa eta Araba artean) eta Andia (Nafarroa). Gaur egun, bi lurralde mantentzen dira, Aralarkoa eta Andikoa, eta horiei erantsi behar zaie espeziearen presentzia egonkor berria Aizkorri-Aratzen.

Datu historikoek erakusten dute Aralarren kumeak hazi egin dituela, baina gaur egun ez da EAEn ugaltzen. Egia da neguan bi eta sei ugatz desberdin kontrolatu izan direla, EAE eta Nafarroa artean, baina espeziea ez da finkatu, eta ale helduen desagerpenak ere atzeman dira. Beraz, galdu egin da eremuak duen garrantzi handia espeziea zabaldu dadin presentzia historikoa izan duen mendiguneetarantz, hala nola EAEko Mendiak, Kantabriar mendikatea eta Iberiar mendikatea. Horregatik, eremu hau eremu kritikotzat jotzen da espeziea Kantabriar mendikaterantz zabaldu dadin. Aralarren ale bat ikusi da duela urte batzuetatik hona, eta zenbaitetan bi ale, baina ez dira inoiz kumeak hazten saiatu; gainera, egiaztatu da, urtero ez direla ale berberak.

Espeziearentzako habitat potentziala 1.000 eta 3.000 metro arteko inguru menditsuak dira, eremu malkartsuetan eta ibar zabaletan. Hazkuntza garaian, inguru malkartsu eta iristezinak aukeratzen ditu, baina aldi berean ibarrak eta inguru gizatiartuetan ibiltzen da maiz elikagai bila, askotan herrietatik eta etxaldeetatik hurbil. Haren presentzia basa edo etxe herbiboroak izateari dago lotua. Beraz, Aralarrek baldintza onak ditu espeziea egonkor finka dadin.

Ezezagunak zaizkigu zer faktorek duten eragin kaltegarria, KBEan eta inguruetan ugalketa-lurralde egonkorrik finkatzeko. Beraz, ez dago aurreikuspenak egiterik haren joerez, ezta haren etorkizuneko perspektibez.

Era berean, Aralarren ugaltzaile gisa beltz gorria aipatu da (*Falco tinnunculus*) eta, berez ingurune horietakoak diren intereseko hegazti paseriformeak ere, hala nola haitz enara (*Ptyonoprogne rupestris*), harkaitz-zozo gorria (*Monticola saxatilis*), mendi-tuntuna (*Prunella collaris*), belea (*Corvus corax*), edo belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*) eta belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*).

Habitata egokitzen jotzen da hegazti espezie horien bizi eremua izateko, askotariko ingurunean baitaude, bai eta espazio irekiak ere, aziendak erregimen estentsiboan erabiltzen dituen. Horren haritik, hegazti horiek ugari eta askotarikoak direnez, Aralar funtsezkotzat jotzen da populazio horiek epe luzera mantentzeko; beraz, Hegazti Nekrofagoentzako Interes Berezikoko Eremu gisa sartuta dago, eta era berean, Batasunaren Intereseko Espezie Nekrofagoen Elikadura Babesteko Eremu gisa, EAEko hegazti nekrofagoak batera kudeatzeko Planean.

Azkenik, harkaiztiei lotutako ornodun txiki bat ere aipatu behar da: elur-lursagua (*Chionomys nivalis*). Izan ere, Aralarren dago espezie horri EAEn ezagutzen zaizkion hiru populazioetako bat; espezie horri buruz KBEan egin diren azken azterlanetan haren presentzia baieztatu da. Horrela, Aralarko populazioak habitat onaren zati txiki bat hartzen du; 25 ha inguru izan daitezke, eta erabat dago bakartua ezagutzen diren beste populazio batzuegandik. Horrek guztiak, ahuldade handia ematen dio populazio gune horri. Espezie horrek harkaiztietan okupatzen dituen eremuak belardiekin dira mugakide; horregatik, badago esaterik badirela abeltzaintza-lan ezegokiak, hala nola sua arrisku faktorea izan daitekeela elur-lursaguen kolonientzat. Sua, izan ere, mendez mende erabili da, larre eremu horiek sortzeko eta mantentzeko. Espeziea, bestalde, oso sentibera da klima-aldaketaren aurrean, okupatzen duen nitxoaren ingurumen tarte estua baita. Horrenbestez, hori guztia kontuan hartuta, haren etorkizuneko perspektibak ez dira ontzat jo behar.

a) *Gypaetus barbatus*

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala			X	

b) *Chionomys nivalis*

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua		X		
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako perspektibak		X		
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala		X		

Jarduerak, presioak eta mehatxuak

Espezia	Kodea	Presioa/Mehatxua
Flora rupícola	A04.01.04	Ahuntzen artzaintza intentsiboa
	A04.02.01	Behi-aziendaren artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.02	Ardi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.03	Zaldi-artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.04	Ahuntzen artzaintza ez-intentsiboa
	A04.02.05	Artzaintza misto ez-intentsiboa
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	G01.02	Txangozaletasuna, ekitazioa, eta ibilgailu ez motordunak erabiltzea
	G01.08	Aire zabaleko beste kirol batzuk eta aisia jarduerak
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.02.03	Trukaketa genetikoaren murrizketa
	K02.01	Aldaketak espezieen osaeran (segida)
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago	
<i>Gypaetus barbatus</i>	A04.03	Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza
	D01.01	Bidexkak, pistak, bidegorriak
	F03.02.03	Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
	G01.02	Txangozaletasuna, ekitazioa, eta ibilgailu ez motordunak erabiltzea
	G01.04.01	Alpinismoa eta eskalada
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	J03.01.01	Ehizaki eskuragarritasunaren jaitiera (sarraskia barne)
<i>Chionomys nivalis</i>	F03.02.03	Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
	J03.01	Habitat baten berariazko ezaugarrien murrizketa edo galera
	M01.01	Tenperatura eta muturreko tenperaturak igotzea
	M01.02	Lehortek eta prezipitazio gutxiago

Baldintzatzaileak

Harkaiztia irisgarria ez izatearen ondorioz, zaila da landare eta fauna komunitate mehatxatuak aztertzea. Nahiz eta gaur egun *in situ* baieztatu den egon badaudela harkaitzetako landare espezie mehatxatu horiek, ez dira populazio errolda osoak egin; beraz, ezin jakin populazioen egungo egoera KBEan. Era berean, ezin da baztertu kontserbaziorako intereseko espezie gehiago egotea habitat horiei lotuta.

Habitataren egiturak berak eraginda, flora espezie gehienak geldo eta oso hauskor hazten dira, eta bakartze maila handia dute; populazioak gutxi eta ale gutxiz osaturikoak dira eta, horren ondorioz, lehengoratzea zailagoa da. Bestalde, hegaztiak oso sentiberak dira eragozpenen aurrean. Horrek guztiak esan nahi du prebentzio neurriak muturreraino eramane behar direla. Espezie horiek hazten diren habitatak leku helezinak izan ohi dira edo aire zabaleko jarduerak egiteko batere aproposak ez diren bazterrak; dena den, KBEan jarduera horietako batzuk egiten dira, hala nola mendi-ibiliak edo mendiko bizikleta. Ez bata ez bestea ez daude araututa, eta harkaiztien kontserbazio-egoeran izan dezakete eragina. Jarduera horiek arautu eta kontrolatu gabe daudenez, ezinezkoa da jakitea zer maiztasunarekin eta zer toki zehatzetan egiten diren; horrenbestez, ezin da zehaztu jarduera horiek norainoko kaltea eragin dezaketen habitat horien eta haiei loturiko espezieen kontserbazio-egoeran.

Ugatzak badu Estrategia Nazional bat bere Kontserbaziorako. Espezieak mugitzeko gaitasun handia duenez, funtsezkoa da EAEko mugez harago doazen eskualdeekin koordinaziopean eta lankidetzan aritzea. Horregatik, badago ugatzari buruzko Jarduketa Plan Koordinatua, eta partaide dira Andaluzia, Aragoi, Katalunia, Nafarroa, EAE, Estatuko Administrazio Zentrala, Andorra eta Frantzia. Planaren baitan populazioaren errolda eta jarraipen koordinatua zehazturik daude.

Estategia horrek proposatzen du espeziearen arriskuak prebenitu eta zuzentzea, bai eta ugatzaren hilkortasun ez-naturala eragiten duten faktoreak prebenitu eta zuzentzea ere, eta era berean, ugatzaren hedapen naturala edo artifiziaia sustatzea kolonizatu daitezkeen eremuetara zabaldu dadin, betiere aurrez habitataren bideragarritasuna aztertuta, espeziearengan eragin kaltegarria izan dezaketen arrazoiak aldatuta. EAEko Mendiak, oro har, eta Arabako mendiguneak, bereziki, ugatzaren hedapen-eremu naturala dira Kantabriako mendietarantz eta Europako mendietarantz jo dezan, Europako hegoaldeko korridore ekologiko menditarraren lotura-funtzio garrantzitsua baitute. Hainbat aldiz egin dira saiakerak ugatza harrapatu eta markatzeko; baina alferrik. Badago elikadura gune osagarri bat.

EAEko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak batera kudeatzeko Plana, onesten denean, tresna egokia izango da EAE mailan ugatza, sai zuria eta sai arrea kontserbatzeko; hortaz, Aralarren aplikatzea lagungarria izango da espezie horien populazioak hobetzeko. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar mugitzeko gaitasun handia duten espezieak direla. Beraz, espezie horiek kudeatzea dokumentu honetako eskalaz harago planteatu behar dela hala haien kumeak nola haien bizi eremuak babesteko; halaber, beste eskualde batzuekin koordinazioan eta elkarlanean aritu beharko litzateke, EAEko mugetatik harago; hori funtsezkotzat jotzen da, sai zuria babesteko, batez ere.

Bestalde, mendian hilik dauden animaliak kudeatzeari buruzko araudiarekin bat, lehenago menditik kendu egin behar ziren, eta horren ondorioz, oso nabarmen jaitsi zen eskura zegoen elikadura. Beharbada, horregatik joko zuten batzuetan saiek gaixotasunak ahuldutako azienda buruengana edo erdiberriengana. Dena den, egoera hori gaindituta legoke 163/2011 Errege Dekretuan ezarritako irizpideen aplikazioaren ondorioz, Batera Kudeatzeko Plana onetsi eta aplikatzearen bidez. Nolanahi ere, espezie nekrofago horien gaineko kudeaketari begira, horien kontserbazioarekin bat datorren abeltzaintza estentsiboa garatu eta mantendu beharko litzateke; beraz, faktore onuragarritzat jotzen da Administrazioak gaur egun darabilen politika, abeltzaintza estentsiboa bateragarria izan dadin -ingurumeneko beste onura batzuen artean- espezie horien kontserbazioarekin, hegaztientzako bazkaleku berriak jarri beharrean.

Elur-lursaguari dagokionez, esan behar da espezie horren biziraupenerako mehatxu nagusietako bat dela populazioak txikiak izatea eta zatikatuak egotea; horrela, faktore estokastikoek (demografikoa, ingurumenekoa edo genetikoa) mehatxu handia dira eta haren galera eragin dezakete.

Harkaitzetako flora espezieentzako arriskurik handienak aldaketa globaletik eratorritakoak dira, baina faktore hori KBE honen kudeaketaz harago doa, espezie horien gune gehienak batera irisgarriak ez diren tokietan baitaude, eta gizakien zuzeneko eragozpen guztietatik babesean. Gaur egun, ez da atzematen zuzeneko mehatxurik harkaitzetako florarentzat, baina izugarri hauskorak direnez eta oso banaketa murrizta dutenez, beharrezkoa da jarraipena eta kautelak zorroztea, arriskuak eragozteko, hala nola bilketa, mendi ibiltarien zapalketa edo ahuntz-artzaintza.

Mendizaleek eta ibiltariak, izan ere, *narcissus pseudonarcissus varduliensis* espezieko loreak biltzen dituzte, apainketarako, eta bulboak erazten ez badituzte ere, bilketak kalte egiten die populazioei, landareari eragotzi egiten baitaio zikloa normaltasunez betetzea. Flora mehatxatuko beste taxoi batzuek ere zaugarritasun handia erakusten dute ale bilketaren aurrean edota mendiko larreak ongarritzearen aurrean.

Gaur egun, harkaitzetako flora espezie batzuk *ex situ* kontserbatzeko lanak egiten ari dira. Haietako batzuen haziak bildu eta gorde dira (Garmendia & Oreja, 2007, Garmendia *et al.*, 2008, 2010, 2012, 2013).

Aralar Mendiaren izaera karstikoa dela eta, zirkulazio hidrikoa, funtsean, lurpekoa da, eta hainbat iturbururen bitartez azaleratzen da. Iturburu horiek, Lareoko urtegiak gain, bestelako hartuneak hornitzen dituzte eskualdeko biztanleen kontsumorako. Azalera karstikoan egiten den isuri oro zuzenean barneratzen da eta lurpeko urei eragiten die, bai eta koben nahiz leizeen kalitateari, espezie troglobioen habitat gisara. Horrelako akuifero karstikoetan auto-arazketa prozesuak kutsagarrien diluzioa baizik ez dira izaten ia. Akuiferoaren deskontaminazioa oso geldoa izan daiteke, eta are gehiago, itzuliezina, kutsagarria zein den. Hona hemen Aralarren izan daitezkeen kutsadura-iturriak: aisia intentsiboa, pistak eraikitzea, ibilgailu motordunak ibiltzea, abeltzaintza-jarduerak, eta baso-aprobetxamenduak. Eta kutsagarri motak honakoak izan daitezke: organikoa, detergenteak, parasitoak hiltzeko produktuak, ongarriak, intsektizidak, eta petroliotik eratorritakoak.

Beraz, lurpeko ura oso zaugarria denez kutsaduraren aurrean, eta egungo uren kalitatea bikaina den arren, komeni da arreta berezia jartzea lurpeko sistema hidrologikoari eta kobetako habitatei kaltea eragin ahal dieten jarduketetan, betiere kontrolik gabe akuiferoak kargatzeko eremuetan egiten badira.

5.5.- KIROPTEROAK.

Egiaztatu da Aralar KBEan 16v espezie daudela: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*, *Rhinolophus euryale*, *Myotis daubentonii*, *Myotis nattereri*, *Myotis mystacinus*, *Myotis emarginatus*, *Myotis myotis*, *Nyctalus leisleri*, *Pipistrellus pipistrellus*, *Pipistrellus kuhlii*, *Barbastella barbastellus*, *Eptesicus serotinus*, *Plecotus austriacus*, *Miniopterus schreibersii* eta *Tadarida teniotis*. Hala ere, taldea gutxi aztertuta dago; beraz, azterlan sakonagoak egiten badira, litekeena da espezie berrien presentzia azalratzea.

Europako kiroptero espezie guztiak Batasunaren intereseko espezie gisara jaso dira Habitat Zuzentarauren IV. Eranskinean, eta babes zorrotza behar dutela. EAE mailan, *Rhinolophus euryale*, *Myotis mystacinus*, *Myotis myotis* eta *Barbastella barbastellus* «Galtzeko Arriskuan» bezala daude katalogatuta; *Rhinolophus ferrumequinum*, *Myotis emarginatus* eta *Miniopterus schreibersii* «Zaurgarriak» gisara, eta *Rhinolophus hipposideros*, *Myotis daubentonii*, *Myotis nattereri*, *Nyctalus leisleri*, *Pipistrellus pipistrellus*, *P. kuhlii*, *Eptesicus serotinus*, *Plecotus austriacus* eta *Tadarida teniotis* «Interes Berezia» gisara.

Ez dugu eskura populazioei eta banaketari buruzko daturik, ezta hazkuntza nahiz hibernazio garaiko aterpeei buruzkorik ere. Nolanahi ere, talde horren populazioen joerak oro har atzerantzkoak dira, hala Estatu mailan nola EAE mailan, betiere informazioa eskura dagoen tokietan.

Aralar kiropteroentzako lehentasunezko 18 eremuetako bat da EAEn. Eremu horiek halakotzat hartzen dira aintzat, espezieen aberastasunean eta lehentasunezko aterpeen presentzian oinarrituriko irizpideak aplikatu ondoren. Aralarri dagokionez, aterperik batere aurkitu ez bada ere, berariazko aberastasuna dutenez, lehentasunezko eremua kiropteroentzat.

Eskura ditugun datuak ikusita, habitataren kalitatearen balorazio kualitatiboen bidez bakarrik egin dezakegu hurbilketa bat populazioen kontserbazio-egoerara. Horren haritik, gutxi dira tamaina jakin bateko baso helduak; badira eite oneko zuhaitz zaharrak eta lepatuak, saguzarrek erabiltzeko modukoak, baina zulogune gutxi daude eskura kiropteroentzat basoetan. Era berean, soilguneak gutxi dira, eta gutxi ere orlako landaredia garatu duten eremuak, bazter horietan kiropteroen ehizaki gaiak izaten baitira ugariak; ortopteroak eta koleopteroak, batez ere. Azkenik, esan behar da badirela eremu irekiak baso eremuetatik hurbil, eta urte osoan ura dakarten erreka gutxi batzuk, bai eta abereentzako baltsak eta istilak ere, non ehizaki gaiak ugariagoak izaten baitira. Nolanahi ere, esan daiteke espezie horien habitata ez dagoela egoera ezin hobean, populazioen kontserbazio-egoera ona mantentzeko. Bestalde, badira inor sartu gabeko koba asko, eta karst-eremuko leize asko ere, eta horietan aterpe ugari daude kobetako kiroptero kolonientzat.

Azkenik, esan behar da, ehizaki gaiak ugariagoak direla Aralarren hainbat espezierentzat (*Myotis daubentonii*, *Pipistrellus pipistrellus*, *P. kuhlii* edota *Eptesicus serotinus*), zenbait arrazoi direla medio: badira baso-eremuetatik hurbil daude eremu irekiak, urte osoan ura dakarten errekek, bai eta ingurune hezeak ere.

Dokumentu honetan proposatutako baso eta abeltzaintza kudeaketaren aplikazioak, eta barrunbe eta kobazuloen erabilera-intentsitate txikiak kiropteroentzako baldintzak hobetuko balituzte ere, erabat zaizkigu ezezagunak espezie horien populazioen banaketa, kopurua eta joera, eta, horren eraginda, nahiko kontu espekulatiboa da Aralarren dauden saguzarren etorkizuneko perspektibak zehaztea; beraz, ezezagun gisa baloratu da, espezie generalistenentzat izan ezik.

a) *Rhinolophus ferrumequinum* / *Rhinolophus hipposideros* / *Rhinolophus euryale* / *Myotis nattereri* / *Myotis mystacinus* / *Myotis emarginatus* / *Myotis myotis* / *Barbastella barbastellus* / *Miniopterus schreibersii*.

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako perspektibak				X
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala				X

b) *Myotis daubentonii* / *Nyctalus leisleri* / *Pipistrellus kuhlii* / *Eptesicus serotinus* / *Plecotus austriacus* / *Tadarida teniotis*

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala				X

c) *Pipistrellus pipistrellus*

	Ona	Ezegokia	Kaskarra	Ezezaguna
Banaketa edo Lerrun eremua	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako perspektibak	X			
Kontserbazio-egoeraren ebaluazio globala		X		

Jarduerak, presioak eta mehatxuak

Espeziea	Kodea	Presioa/Mehatxua
<i>Rhinolophus ferrumequinum</i> , <i>R. hipposideros</i> , <i>R. euryale</i> , <i>Barbastella barbastellus</i> , <i>Myotis daubentonii</i> , <i>M. emarginatus</i> , <i>M. mystacinus</i> , <i>M. Nattereri</i> , <i>M. myotis</i> , <i>Nyctalus leisleri</i> , <i>Pipistrellus pipistrellus</i> , <i>P. kuhlii</i> , <i>Eptesicus serotinus</i> , <i>Plecotus austriacus</i> , <i>Tadarida teniotis</i> eta <i>Miniopterus schreibersii</i>	A02	Nekazaritza-lanen aldaketa
	A07	Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea
	A10.01	Landare-hesiak eta ibaiertzeko landaredia edo zuhaixkak ezabatzea.
	B02	Basoak eta landaketak kudeatzea
	B02.03	Oihanpea ezabatzea
	B02.04	Zuhaitz hilak edo hondatuak ezabatzea
	B04	Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (silbikultura)
	E06.02	Eraikinak eraiki eta berritzea
	F03.02.03	Animaliak tranpen bidez, pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza.
	G01.04.02	Espeleologia
	G01.04.03	Kobazuloetan bisita turistikoak egitea
	G05.04	Bandalismoa
	G05.07	Kontserbazio neurrik eza edo haiek gaizki kudeatzea
	G05.08	Kobazuloak eta galeriak ixtea
H06.01	Zaratak, hots kutsadura	
J03.01	Habitat baten berriazko ezaugarrien murrizketa edo galera	

Baldintzatzaileak

Ez dago behar bezalako ezagutzarik KBEan dauden espezieei buruz, ez populazioen ugartasunaz eta tamainaz, ez habitat egokiak dauzkaten lekuez, ezta kumeak hazteko eta hibernatzeko aterpeen kokapenez eta elikadura eremuez ere. Izan ere, egun eskura dauden datuen arabera, ezin da esan egonaldi egonkorra dutenik Aralar KBEan aipaturiko kiroptero espezie ia denek. Populazioak egiazki zertan diren eta egun zer joera duten ez jakitearen ondorioz, zaila da toki zehatzetan neurri egokiak hartzea

Alde batetik bestera joateko, tamaina handiagoko baso-masak lotzen dituzten landare-hesiak edo baso txikiak aukeratzen dituzte, toki horiek espezie ornogabeen presentzia sustatzen dutelako, eta kiropteroek, hain zuzen ere, espezie horiek jaten dituzte.

KBEan dauden espezie guztiek urtaroen araberako joan-etorriak eta mugimendu nabarmenak egiten dituzte beren aterpeen eta ehiza eremuen artean, eta espezie batzuk KBEtik kanpoko eremu irekietan aurki daitezke. Landare-hesi eta baso txikien sareak baliatzen dituzte joan-etorriak egiteko, tamaina handiagoko baso masak lotzen dituztelako, eta espezie ornogabeen presentzia sustatzen dutelako, eta kiropteroek, hain zuzen ere, espezie horiek jaten dituzte.

Zuhaitzetako zulo eta arrailak ezinbestekoak zaizkie baso espezieei aterpe hartzeko. Beraz, zuhaitz helduak behar dituzte, eta halakorik ez da ugaria KBEan. Bestalde, KBEko basoak askotarikoak dira (hariztiak, artadiak, pagadiak edo haltzadiak), zuhaitz espezie asko hazten dira, eta hori interes handikoa da. Orain arte, sarritan berezko zulo eta arrail nahikorik ez zegoenez, kiropteroentzako kaxa-aterpeak jarri izan dira zuhaitzetan; kiropteroek ondo onartzen dituzte, eta horrela, errazago monitorizatzen dira. Berrikitan egindako azterlanek erakutsi dute kutxa gehienak espezie generalistek okupatzen dituztela, eta ez espezie urrienenek. Horren ondorioz, espezie generalisten ale kopuruak handitzen dira, eta lehia ere handiagoa da espezie urrientzat. Eraitza horiek oraindik erkatu behar badira ere, ez litzateke neurri hori hartu behar, ikerketarako ez bada, eta kudeaketarako ahaleginak berezko zuloak sortzera eta mantentzera bideratuko beharko lirake, eta hori sustatuko bada, beharrezkoa da tamaina handiko zuhaitzak, zuhaitz lepatuak edo hondatuak mantentzea.

Eremu hezeak eta errekek erakargarriak dira saguzarrentzat; ura edateko eta elikagaiak eskuratzeko tokiak dira, intsektu metaketa handia dagoelako. Alde horretatik, uraren baldintza fisikoak eta kimikoak aldatzea edota gai fitosanitarioak edo ongarriak erabiltzearen bidez kutsatzea oso kaltegarria da, ez bakarrik ingurune horien berezko kontserbazio-egoerarentzat, baizik eta baita kiroptero komunitatea mantentzeko ere.

Era berean, kiropteroen habitatetik gertuko alorretan gai toxiko zehaztugabeak erabiltzen badira izurriak kontrolatzeko, horrek eskura dauden ehizakien dibertsitatea murrizten du. Arazo bera dago baserrietako eta eraikin zaharretako zura tratatzeko erabiltzen diren produktu batzuen inguruan (organokloratuak), azken urteotan saguzar espezie batzuen koloniak bere osoan galdu baitira EAEn, hala nola ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*). Gai toxikoak erabiltzea arriskutsua bada ere, ez dago informaziorik produktu horiek Aralarren egun erabiltzeak espezie horien populazioei eragiten dien kalteaz.

Txabolak zaharberritzeko proiektuek eragin kaltegarria izan dezakete aterpetzat erabiltzen dituzten kiropteroengan, behar bezala planteatzen ez badira. Bertan dauden espezie batzuk fisurikolak dira, eta harkaitzetako arrailak erabiltzen dituzten aterpe natural gisa, eta askoz ere hein txikiagoan, zuhaitzetako hutsuneak; baina ederki egokitu dira giza eraikuntza mota orotan dauden zirrikitueta. Horregatik, gaur egungo aterpe ezagun gehienak zubien dilatazio junturetan, denetariko eraikuntzetan, pertsianakutxetan, eta antzeko beste edozein gunetan daude.

Ez dago araututa koba eta leize ugarietara sartzea. Gainera, espeleologian erabiltzen den karbuero bidezko argiztapena kaltegarria da saguzar kolonientzat. Kiropteroek hazkuntza eta hibernazio garaietan aterpe gisa erabiltzen diren kobazuloak bisitatzen badira, eragozpenak sortzen dira, eta eragozpen horien ondorioz, kiropteroek aterpetik alde egin dezakete. Ez da aztertu zer-nolako eragina izan dezakeen kobazuloak eta barrunbeak turismo eta kirolerako erabiltzeak kiropteroengan eta beste espezie troglobiengan.

Azkenik, jendeak ez daki zer-nolako eginkizun onuragarria betetzen duten espezie horiek, betidanik irudi txarra izan dute, eta eragozpen txikiak sortu ohi dituzte jatorri antropikoa duten aterpeetan; horrek guztiak espezie horien aldeko neurrien garapena baldintzatu dezake.

6.- KONTSERBAZIO HELBURUAK

Funtsezko elementu bakoitzaren egungo kontserbazio-egoera zehaztu ondoren (eskura dagoen informazioa baliatuta), Azken Helburu bat edo hainbat proposatu dira epe luzera, funtsezko elementu bakoitzerako edo kudeaketa xede den elementu bakoitzerako kontserbazio-egoera ona lortzea ahalbidetze aldera. Azken Helburuak ez dira beti lortuko kudeaketa dokumentuan bildutako neurrien aplikazio epealdian. Sarritan, natura sistemen erantzun eta bilakaera denbora oso geldoa izaten da, edo abiaburuko egoera oso hondatuta dago; horregatik, neurriak berehalakoan hartuta ere, kudeaketa tresna gauzatzeko epean aurrerapen partzialak bakarrik lor daitezke desiragarria den bukaerako egoerarantz

Azken Helburuak kudeaketaren azken helburuak dira eta, arestian esan dugunez, batzuetan ezin direnez lortu dokumentuaren denboraldi gisa ezarritako sei urtean, Azken Helburu bakoitzerako ere Helburu Operatiboak zehaztu dira, hau da, sei urteko epealdiaren ondotik lortu behar diren Helburu operatiboak, zertarako eta ahalik eta denborarik laburrenean aurrera jotzeko edo lortzeko kontserbazio-egoera ona, betiere eskura dauden baliabideak kontuan hartuta.

Nolanahi ere, funtsezko elementuak edo kudeaketako xede diren elementuak banan bana ikustea onuragarria da, lekuan dauden elementu esanguratsu horiek kontserbatzeko behar diren neurriak hartzeko, eta era berean, kudeaketa errazten du, oinarri harturik erraz ebaluatu daitezkeen helburuak. Dena dela, kontuan hartu beharko da beti kudeaketa dokumentu honen bidez hartzen diren neurrien azken xedea dela lekuaren osotasun ekologikoa babestea, EAEko eremu babestuen sarearen koherentziari ekarpena egitea, eta ekosistemetako ingurumen arloko ondasunez nahiz zerbitzuz hornitzea.

Funtsezko elementua: Baso naturalak eta erdinaturalak	
Azken helburua 1	Gutxienez egungo baso-azalera naturalei eta erdi-naturelei eustea, eta haien naturaltasuna eta egitura-komplexutasuna handitzea.
Helburu operatiboa 1.1	Baso naturalen eta erdi-naturalen egungo kontserbazio-egoerari eta kudeaketa-behar zehatzei buruzko ezagutza hobetzea.
Helburu operatiboa 1.2	Pagadi azidofiloen (EB Kodea: 9120) eta artadi kantauriarren (EB Kodea: 9340) naturaltasuna eta egitura-komplexutasuna handitzea.
Funtsezko elementua: Haltzadi kantauriarra	
Azken helburua 2	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> espezieetako baso alubialen (EB Kodea: 91E0*) egitura-komplexutasuna lortzea eta maila horri eustea, eta ohiko espezieen kontserbazioan laguntzea.
Helburu operatiboa 2.1	Haltzadi kantauriarren kontserbazio-egoera hobeto ezagutzea, bai eta espezie hauen populazioen egoera ere: bisoi europarra, muturluze piriniarra eta ibai-karramarroa.

Funtsezko elementua: Baso naturalak eta erdinaturalak	
Helburu operatiboa 2.2	Haltzadi kantauriarraren luzetarako eta zeharkako konexioak hobetzea, naturagune babestuan bisoi europarra, muturluze piriniarra eta bertako ibai-karramarroa kontserbatzen laguntzeko.
Funtsezko elementua: Larre menditarrak eta belar formazioak	
Azken helburua 3	Kontserbazio-egoera onean mantentzea gutxienez 100 ha larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikor (EB Kodea: 6210), 780 ha belardi alpetar eta subalpetar karedun (EB Kodea: 6170), 1.700 ha Nardus formazio belarkara (EB Kodea: 6230*) eta 250 ha altitude txikiko sega-belardi xume (EB Kodea: 6510).
Helburu operatiboa 3.1	Batasunaren intereseko larreen kontserbazio-egoera zehaztea, adierazle kuantitatiboen bidez.
Helburu operatiboa 3.2	Larre-aprobetxamendua antolatzea, larreak beren espezie bereizgarriekin mantentzea bermatzeko.
Helburu operatiboa 3.3	250 ha altitude txikiko sega-belardi xume (EB Kodea: 6510) izatea gutxienez.
Helburu operatiboa 3.4	Landazabaleko paisaiaren heterogeneotasun espaziala eta egiturazko dibertsitatea mantentzea.
Helburu operatiboa 3.5	<i>Cladium mariscus</i> espezieko tranpalaren eta trantsizio-zohikaztegien kontserbazioa bermatzea.
Funtsezko elementua: Harkaitzetako komunitateak	
Azken helburua 4	Harkaitzei eta haitzuloei lotutako habitaten eta haietako ohiko espezieen egoera ekologiko ona ziurtatzea.
Helburu operatiboa 4.1	Harkaitz-ingurune horiei buruzko ezagutza handitzea.
Helburu operatiboa 4.2	Harkaitzei eta haitzuloei lotutako habitatetan arrisku-faktoreak prebenitzea eta desagerraraztea.
Funtsezko elementua: Kiropteroak	
Azken helburua 5	Gaur egun, Aralarren aipatuta dauden kiroptero-espezie guztien populazio egonkorak kontserbazio-egoera onean ziurtatzea.
Helburu operatiboa 5.1	Babes bereziko eremuan dauden kiroptero-espezieen populazioen banaketaz eta egoeraz gehiago jakitea, bai eta espezie horiek kontserbazio-egoera onean egotea mugatzen duten faktoreez ere.
Helburu operatiboa 5.2	Kiropteroen baliabide trofikoak eta haien joan-etorriak sustatzeko elementuak areagotuko dira, habitata kontserbatu eta hobetzearen bidez.
Helburu operatiboa 5.3	aterpeak egokiro babestuko dira, haien populazioei eragozpenak eragiten dizkieten faktoreak kenduz.
Helburu operatiboa 5.4	Kiropteroen errekonozimendu eta balorazio maila hobetuko da, haien garrantzia zabalduz

7.- KONTSERBAZIORAKO ARAUAK.

7.1. Kontuan hartuta aurreko helburuak, kontserbaziorako araubideak ematen dira. Horiek Aralar Kontserbazio Bereziko Eremuaren (ES2120011) izendapenean funtsezkotzat jo diren Batasunaren intereseko habitat eta espezieei buruzkoak dira.

7.2. Erabilera bateragarritzat jotzen dira behar bezala egin eta babes bereziko eremuaren kontserbazio-helburuetan eragin neutroa edo positiboa dutenak. Horrelakotzat har daitezke honako hauek:

1. Nekazaritzako eta abelazkuntzako erabilerak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruzko dekretuak (martxoaren 2ko 79/2010) I. eranskinean ezarritako nekazaritza- eta ingurumen-baldintza onetan egiten badira.
2. Basogintzako erabilerak, zurgai, egurketa, larre, luberritze, basoko fruitu, onddo eta landare eta lore aprobetxamenduak barne, betiere baso-baliabideen antolamenduko planen eta mendien antolamenduko planen arabera egiten badira, basogintzako kudeaketa iraunkorraren irizpideei jarraituz, edota Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsitako larre-planen arabera.
3. Ehiza, Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsitako ehiza-antolamenduko planak betez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldaketak egingo ditu erabilera horietan edo erabilerak egiteko moduan, eta borondezko akordioa lortzen saiatuko da honako hauekin: nekazariak, abeltzainak, baso-kudeatzaileak eta ehiza-eskubideen titularrak, bai eta aipatu planak egiteko ahalmena duten erakundeak ere.

7.3. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren arabera, dokumentu hau aplikatuta ondare-eskubide eta -interesak kentzeak, hori egiteko modua edozein izanda ere, bidezko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ekarriko du berekin, azterketa ekonomiko egokiak egin ondoren.

7.4. Dokumentu honek ezartzen duen babes-araubidea bateragarria izango da administrazio autonomikoaren, Estatuko administrazioaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eta toki-erakundeen eskudantziekin, eta eskumena duten sektore-gaietan egikariturako direla bermatuko da. Era berean, zuzenbide historikoko toki-erakundeek mendiak antolatzeko, administratzeko eta kudeatzeko dituzten eskumenekin bateragarria izango da, zehazki, Enirio-Aralar mankomunitateak dituenekin, eta eskumen horiek baliatzea bermatuko du.

7.1.- BASO NATURALAK ETA ERDI-NATURALAK.

Azken helburua 1	Gutxienez egungo baso-azalera naturalei eta erdi-naturelei eustea, eta haien naturaltasuna eta egitura-komplexutasuna handitzea.
Helburu operatiboa 1.1	Baso naturalen eta erdi-naturalen egungo kontserbazio-egoerari eta kudeaketa-behar zehatzei buruzko ezagutza hobetzea.
Erregulazioak	<p>1. Baso-baliabideak antolatzeko planek eta mendiak antolatzeko proiektuek edo onura publikoko mendietako plan dasokratikoek tokiko basoak errespetatzeko eta, hala egokituz gero, lehengoratzeko irizpideari jarraituko diote.</p> <p>2. Interes ekologikoko zuhaitzen iraunkortasuna sustatuko da, batez ere onura publikoko mendietan, eta zuhaitz horien aukeraketa ezaugarri hauek kontuan hartuta egingo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zirkunferentzia handia, espezie bereko besteen aldean. - Egituran eta osaeran ezaugarri bereziak dituzten aleak. - Barrunbe garrantzitsuak enborrean edo enborrean zulatze-egoera aurreratua egotea. - Adaburuan egur hil asko izatea. - Ura metatzen den berezko zuloak. - Zulo zaharrak. - Kalte fisikoak enborrean. - Azala galtzea. - Izerdia exudatzeko kanalak. - Arrailak azalean, adar azpian edo enborraren oinarrian. - Onddoen gorputz fruitutsuak izatea. - Lotutako fauna espezie kopuru handia izatea. - Landare epifitikoak izatea (iratzeak, goroldioak, likenak). - Zuhaitz zaharraren itxura izatea. - Lapatua egotea edo iraganean erabili izanaren seinaleak izatea. - Balio kulturala edo historikoa izatea. - Paisaian leku nagusi bat izatea interes estetiko handikoa.

Azken helburua 1	Gutxienez egungo baso-azalera naturalei eta erdi-naturelei eustea, eta haien naturaltasuna eta egitura-konplexutasuna handitzea.
Helburu operatiboa 1.2	Pagadi azidofiloen (EB Kodea: 9120) eta artadi kantauriarren (EB Kodea: 9340) naturaltasuna eta egitura-konplexutasuna handitzea.
Erregulazioak	<p>3. Naturagune babestuko pagadi azidofiloak eta artadi kantauriarrak eraldatzea eragotziko da, horren ondorioa azalera osoa gutxitzea bada.</p> <p>4. Batasunaren intereseko baso-habitategi eragiteko modukoak diren basoak antolatzeke plan eta proiektuak ebaluatu beharko dira indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.</p> <p>5. Pagadi azidofiloetan eta artadi kantauriarretan nekazaritzako eta basogintzako intsektiziden erabilera masiboak izan dezakeen eragina ebaluatuko du naturagune babestua kudeatzen duen organoak, eta dosiak nahiz erabil daitezkeen guneak murriztu ahal izango ditu.</p> <p>6. «Baso-kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoetan» sartutako neurrien artean, onura publikoko mendietako pagadi azidofiloek eta artadi kantauriarrei eragiten dietenek tresna honetan ezarritakoaren arabekoak izan beharko dute.</p> <p>7. Tokiko ondare genetikoa babestu eta zaintze aldera, lehengoratzeko proiektuetan bakar-bakarrik erabiliko dira KBEan edo inguru hurbilean aukeratutako hazietatik lorturiko landareak</p> <p>8. Egur hil gehiago izateko eta koleoptero saproxilikoak hobeki kontserbatzeko, borondatezko akordioak egingo dira, moztutako zuhaitzen egurra lurtean bertan uzteko, harik eta egur hilerako gomendatutako mailara iritsi arte.</p> <p>9. Onura publikoko mendietan, bertako baso bihurtu nahi diren aldeetan, trantsizioko ekotonoak sortuko dira basoaren ertzeko espezieekin.</p> <p>10. Babes bereziko eremuaren organo kudeatzailea bera onura publikoko mendietan egindako itxurak mantentzeaz eta egoera onean izateaz arduratuko da, eta beharrezkoak ez direnak kendu egingo ditu.</p> <p>11. Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloetan egiten diren birsortze-mozketetan, espezie sekundarioak mantentzea sustatuko da, pagoen berezko birsortzea bermatzeko.</p> <p>12. Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloetan, Rosalia alpina kakalardoa bizi den eremuetan, aldi batean botata egon diren enbor lehorrak ez dira uztailean eta abuztuan kenduko, espezie horren errunaldiak babesteko.</p> <p>13. Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloetan eta artadi kantauriarretan ez da lurperatutako edo erdi lurperatutako egurrik mugituko, ezta inguruko lurra ere, Lucanus cervus espeziearen larbak babesteko.</p>

7.2.- HALTZADI KANTAUARIARRA.

Azken helburua 2	<i>Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior</i> espezieetako baso alubialen (EB Kodea: 91E0*) egitura-konplexutasuna lortzea eta maila horri eustea, eta ohiko espezieen kontserbazioan laguntzea.
Helburu operatiboa 2.1	Haltzadi kantauriarren kontserbazio-egoera hobeto ezagutzea, bai eta espezie hauen populazioen egoera ere: bisoi europarra, muturluze piriniarra eta ibai-karramarroa.
Helburu operatiboa 2.2	Haltzadi kantauriarren luzetarako eta zeharkako konexioak hobetzea, naturagune babestuan bisoi europarra, muturluze piriniarra eta bertako ibai-karramarroa kontserbatzen laguntzeko.
	<p>14. Ibaien eta erreken ertzeko jarduerak sustatuko dute, ahal dela, gutxienez 10 m inguru zabaleko ur-bazterreko landare-estalki naturalari eustea, berreskuratzea edo leheneratzea.</p> <p>15. Borondatezko kontserbazio-akordioak sustatuko dira, ibai-ibilguaren alde banatan ezer ere ez landatzeko 10 metroko zerrenda batean; era berean, haltzadia leheneratzeko neurriak sustatuko dira zerrenda horretan dauden sail landatueta, egungo zuhaitz landatuak ezabatuz.</p> <p>16. Haltzadi kantauriarretan basolanak egin bitartean, pistak eta bideak ireki edo konpontzean, edo makina astunak erabili beharra dakarren edozein jardueratan, makina horiek ibai-ibilguetan hara eta hona ibiltzea saihestuko da, ibilguetan aldaketarik eta uhertzerik gerta ez dadin. Nahitaezkoa bada ibaia alderik alde igarotzea, behar diren prebentzio-neurriak hartuko dira, ingurune horretan ahalik eta kalterik txikiena egiteko.</p> <p>17. Bertako ibai-karramarroak dauden tarteetan arrantzatzea debekatuta dago, naturagune babestua kudeatzen duen organoak emandako berriazko baimena izan ezean.</p> <p>18. Karramarro-populazioak dituzten erreketan, populazio horien bideragarritasuna kolokan jar dezaketen ur-bilketa eta ur-hargune berriek naturagune babestua kudeatzen duen organoaren baimena beharko dute.</p> <p>19. Ibaiertzak leheneratzeko lanetan bisoi europarraren, muturluzearen, ibai-karramarroaren eta ibaiertzeko megaforbioen errekerimendu ekologikoak hartuko dira kontuan.</p> <p>20. Karramarro espezie exotikoak desagerrarazteko aukera aztertuko da bai Agauntza ibaian, bai KBEko ur-ibilgu guztietan, espezie hori atzematen bada.</p> <p>21. Ibai-ibilguen inguruan tranpen bidez egindako zenbaketetan, harrapatzen diren bisoi amerikarrak ezabatuko dira, talde egonkorak osatu baino lehen.</p>

7.3.- LARRE MENDITARRAK ETA BELAR FORMAIZIOAK.

Azken helburua 3	Kontserbazio-egoera onean mantentzea gutxienez 100 ha larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikor (EB Kodea: 6210), 780 ha belardi alpetar eta subalpetar karedun (EB Kodea: 6170), 1.700 ha Nardus formazio belarkara (EB Kodea: 6230*) eta 250 ha altitude txikiko sega-belardi xume (EB Kodea: 6510).
Helburu operatiboa 3.1	Batasunaren intereseko larreen kontserbazio-egoera zehaztea, adierazle kuantitatiboen bidez.
Helburu operatiboa 3.2	Larre-aprobetxamendua antolatzea, larreak espezie bereizgarriekin mantentzea bermatzeko.
Erregulazioak	<p>22. Naturagune babestu osoan, behar bezala antolatuta egongo da abeltzaintza-jarduera, organo eskudunek idatzi eta onartutako antolaketa-plan tekniko egokien bidez. Larreak eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko inbertsio egokiak jasoko ditu, gutxienez egungo azienda mantentzeko beharrezkoak direnak kontuan hartuta, eta zer baldintzatan gauzatu behar diren zehaztuko du.</p> <p>23. Foru-organok baimena eman ezean, debekatuta dago sua erabiltzea sasiak kontrolatzeko metodo gisa. Organo horrek sua erabiltzeko baimena eman ahal izango du, baldin eta erabilera hori larre-habitatak mantentzearekin eta kontserbatzearekin lotuta badago.</p> <p>24. Onura publikoko mendietan, Habitategi buruzko Zuzentarauan jasotako larre- eta sasi-habitategi okupatzen dituzten eremu guztietan, larreak antolatzeko plan teknikoen arabera egingo dira jardun agronomikoak (ongarritzea, medeatzea, berrereintza, fitosanitarioak, herbizidak eta sasiak kentzea), edo, bestela, foru-organok eskudunak baimenduta eta larre-habitaten mantentze eta kontserbazioari lotuta.</p> <p>25. Ingurumeneko kontratuak edo borondatezko beste akordio mota batzuk sina daitezkeen sustatzea, larrez eta txilardiz osatutako mosaikoari kontserbazio-egoera onean eusteko eta abeltzaintza estentsiboak eragiten dituen ingurumen-onurak saritzeko.</p> <p>26. Dokumentu honetako kontserbazio-helburuen gaineko eragina ahalik eta gehien gutxitzeko behar diren ingurumen-baldintzak eta neurri zuzentzaileak bildu beharko dituzte onura publikoko mendietako abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko neurri guztiek.</p> <p>27. Aralarko larreak erabiltzen dituzten abeltzainen parte-hartzea eta elkarlana sustatzea gomendatzen da, larreak eta txilardiak (eta intereseko beste habitak batzuk) babestu eta hobetzeko neurriak prestatu eta gauzatzeko aldera.</p> <p>28. Eremu horiei lotutako abeltzaintza-jarduera bultzatzeko eta beraren kontserbazioa bermatzeko behar diren azpiegiturak sortu, mantendu eta konpondu beharko dira.</p>
Helburu operatiboa 3.3	250 ha altitude txikiko sega-belardi xume (EB Kodea: 6510) izatea gutxienez.
Erregulazioak	29. Eremu horiei lotutako abeltzaintza-jarduera bultzatzeko eta haren kontserbazioa bermatzeko behar diren azpiegiturak sortu, mantendu eta konpondu beharko dira.
Helburu operatiboa 3.4	Landazabaleko paisaiaren heterogeneotasun espaziala eta egiturazko dibertsitatea mantentzea.
Helburu operatiboa 3.5	<i>Cladium mariscus</i> espezieko tranpalaren eta trantsizio-zohikaztegien kontserbazioa bermatzea.

Erregulazioak	30. Eusko Jaurlaritzaren habitaten kartografian jasotako habitatei (EB Kodea: 6430, EB Kodea: 7140 eta EB Kodea: 7210*) eragin diezaieketen turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzeke, organo kudeatzailearen baimena beharko da. Organo horrek, azterketa egitean, honako hauek kontuan hartuko ditu: jariatze-uren norabidea eta drainatze naturalak, bai eta, hala egokituz gero, behar diren babes-perimetroak ere.
	31. Cladium mariscus espezieko tranpalen inguruan eta trantsizio-zohikaztegietan, kontserbazio-egoeran eragin dezakeen edozein jarduerarako ezinbestekoa izango da organo kudeatzailearen alde aurreko baimena.
	32. Eusko Jaurlaritzaren habitaten kartografian jasotako Cladium mariscus espezieko tranpaletan eta trantsizio-zohikaztegietan drainatze-instalazioak jartzea debekatuta dago.
	33. Kontserbazio programen garapena ex situ egingo da, baldin eta programa horietan sartu beharreko espezieen populazioen bideragarritasunari kalterik ez zaiola eragingo bermatzen bada.

7.4.- HARKAITZETAKO KOMUNITATEAK.

Azken helburua 4	Harkaitzei eta haitzuloei lotutako habitaten eta haietako ohiko espezieen egoera ekologiko ona ziurtatzea.
Helburu operatiboa 4.1	Harkaitz-ingurune horiei buruzko ezagutza handitzea.
Helburu operatiboa 4.2	Harkaitzei eta haitzuloei lotutako habitatetan arrisku-faktoreak prebenitzea eta desagerraraztea.
Erregulazioak	34. Naturagune babestuaren barrurako baimentzen diren erabilera eta aprobetxamendu berri guztiek kontuan hartu beharko dituzte harkaitz-inguruetako hegaztien bizi-ziklorako interesekoak diren I. eranskineko harkaitzetako eta haitzuloetako habitaten kontserbazioa bermatzeko bete behar diren baldintzak.
	35. Inolako obrarik, lanik edo jarduketarik egin behar bada harkaitz-inguruetako hegaztien bizi-ziklorako interesekoak diren eremuetatik hurbil, garai kritikoetatik kanpo egingo dira, araudian eta babes-planetan ezarritakoari jarraituz.
	36. 10 km-ko inguruan zentral eolikoak jartzea debekatuta dago naturagune babestuaren barruan, ugatzaren ohiko pausalekuen inguruan, eta EAEko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako planean eremu kritikotzat jotzen diren eremuetan.
	37. 5 km-ko inguruan zentral eolikoak jartzea debekatuta dago naturagune babestuaren barruan, sai zuriaren habia-tokietan, belatz handiaren hazkuntza lurraldeen inguruan, eta EAEko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako planean sai zuriarentzat eremu kritikotzat jotzen diren eremuetan.
	38. Harkaitz-inguruetan ez da pista edo bide berririk egingo. Jarduera horietarako baimena eman dezake naturagune babestua kudeatzen duen organoak, behar bezala justifikatuta.

Azken helburua 4	Harkaitzei eta haitzuloei lotutako habitaten eta haietako ohiko espezieen egoera ekologiko ona ziurtatzea.
	39. Ingurune horietan debekatuta dago material biologikoak eta geologikoak biltzea, bai eta zientzia eta apainketa xedeetarako direnak ere, aurrez naturagune babestuaren administrazio kudeatzaileak baimendu ezean.
	40. Hartxingadi basikoetako eta horiei lotutako landarediaren egonkortasuna ziurtatze aldera, higakinak eraztea debekatuta dago.
	41. Debekatuta dago animalia hilak dolina eta hobi karstikoetara botatzea, dela hegazti nekrofagoen espezieentzako elikadura-baliabideak mantentzeko, dela lurpeko urak ez kutsatzeko.
	42. Harkaitz-habitatei eragiten dieten guneean hegazti migratzaileak ehizatzen postu finkoak eta ereindako ehiza-eremuak jartzeko, naturagunea kudeatzen duen organoaren alde aurreko baimena behar da. Organo horrek eskaera bakoitza ebaluatuko du, naturaguneari eragingo zaizkion balizko kalteen arabera.
	43. Kontserbazio programen garapena <i>ex situ</i> egingo da, baldin eta programa horietan sartu beharreko populazioen bideragarritasunari kalterik ez zaiola eragingo bermatzen bada.

7.5.- KIROPTEROAK.

Azken helburua 5	Habitatei buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako Batasunaren intereseko kiroptero-espezieetatik Aralarren gaur egun jaso direnen presentzia egonkorra bermatzea kontserbazio-egoera onean.
Helburu operatiboa 5.1	Naturagune babestuan dauden kiroptero-espezieen populazioen banaketaz eta egoeraz gehiago jakitea, bai eta espezie horiek kontserbazio-egoera onean egotea mugatzen duten faktoreez ere.
Erregulazioak	44. Ziurtatu behar da kiropteroei jarraipenak egiteko teknikek ez dakartela animaliak harrapatzea eta maneatzea, irizpide tekniko eta zientifikoaren arabera justifikatuta dauden salbuespenetan izan ezik, organo kudeatzaileak alde aurretik baimenduta.
	45. Jarraipen- eta inbentariatzeko lanetan biltzen den informazioa beste naturagune batzuetako ikerlari eta kudeatzaileen eskura jarriko da; zehazki, udan KBEan dauden espezieen negualdiko aterpeak egon litezkeen naturaguneetako ikerlari eta kudeatzaileen eskura.
Helburu operatiboa 5.2	Kiropteroen baliabide trofikoak eta haien joan-etorriak sustatzeko elementuak areagotuko dira, habitata kontserbatu eta hobetzearen bidez.

Azken helburua 5	Habitategi buruzko Zuzentzarauaren II. eranskinean jasotako Batasunaren intereseko kiroptero-espezieetatik Aralarren gaur egun jaso direnen presentzia egonkorra bermatzea kontserbazio-egoera onean.
Erregulazioak	<p>46. Fitosanitarioen eta/edo pestiziden erabiltzaileak prestatzeko, informazioz hornitzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak sustatuko ditu organo kudeatzaileak, gai horien erabilera arduratsua eta kiroptero-populazioekin bateragarria dela bermatzeko.</p> <p>47. Landazabal atlantikoan bereizgarriak diren egiturazko elementuei eustea ziurtatuko da, hala nola heskaiak, landa-hesiak, horma txikiak, zuhaiztiak eta abar. Belazeetan iturbururik edo eremu istiltsurik badago, haiei ere eustea bultzatuko da.</p>
Helburu operatiboa 5.3	Kiropteroen aterpeak egokiro babestuko dira, haien populazioei eragozpenak eragiten dizkieten faktoreak kenduz.
Erregulazioak	<p>48. Habitategi buruzko Zuzentzarauaren II. eranskinean jasotako kiroptero-espezieak dauden zuloetara sartzeko, naturagune babestua kudeatzen duen organoaren aurretiazko baimena izan beharko da, bai eta aplikagarriak diren gainerako baimenak ere.</p> <p>49. Debekatuta dago kiroptero-populazioak nahasten dituzten turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzea Habitategi buruzko Zuzentzarauaren II. eranskinean jasotako kiropteroen babestokien 100 metroko perimetroan, organo kudeatzaileak baimena eman ezean.</p> <p>50. Naturagune babestua kudeatzen duen organoak txostena egin behar du onura publikoko mendietako zubietan eta eraikinetan egiten diren obrei buruz, Habitategi Zuzentzarauaren II. eranskinean jasotako kiropteroei ez eragiteko.</p> <p>51. Habitategi buruzko Zuzentzarauaren II. eranskinean jasotako kiropteroen babestoki diren onura publikoko mendietako eraikinen eta instalazioak eraberritzeko edo birmoldatzeko egiten diren zuraren tratamendu intsektizidetan organokloratuak, organofosforatuak edo permetrinak erabiltzeko foru-organo eskudunaren baimena beharko da.</p> <p>52. Kiroptero-koloniak edo babestokiak aurkitzen badira sarbide errazeko lekuetan, prebentzio-neurri egokiak hartuko dira, leku horietan bandalismorik ez izateko.</p> <p>53. Saguzar fisurikolen populazioak sendotuko dira, eta zirrikitu egokiak antolatuko dira, lan publiko batzuetan aterpetu daitezzen, hala nola zubietan eta biaduktuetan</p>
Helburu operatiboa 5.4	Kiropteroen errekonozimendu eta balorazio maila hobetuko da, haien garrantzia zabalduz.

2016ko irailaren 13a, asteartea

7.6.- BABES BEREZIKO EREMUAN IDENTIFIKATUTAKO HABITAT ETA ESPEZIEEN LABURPENA.

Taula honetan labor biltzen dira babes bereziko eremuan identifikatutako habitat eta espezieen aldeko arauak (kontserbazio-arauak).

Habitaten taula

Kodea HIC/EUNIS	Izena	Adierazgarritasuna	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
4030/F4.21(X), F4.21(Y), F4.23(X), F4.237	Txilardi lehor europarrak / Ahabidia, <i>Erica arborea</i> txilar garaia, <i>Ulex</i> sp espeziea nagusitzen den txilardi atlantiarra, Kantauri-Pirinio aldeko txilardiak <i>Erica vagans</i> eta <i>E.cinerea</i> espezieekin	B	Ona	22 a 27,
4090/ F7.44 (Y)	Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin.	B	Ona	22 a 27,
6170/ E1.27	Larre alpetar eta azpialpetarkaredunak / larre karedun harritarrak	A	Ona	22 a 27,
6210/ E1.26	<i>Festuco-Brometea</i> karedun substratuen gaineko larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizikorrek / Albiztiak eta <i>mesobromion</i> taldeko larreak	A	Ona	22 a 27,
6230*/E1.7, E1.73	<i>Nardus</i> dun formazio belarkarak, espezie ugariarekin, menditar substratu siliziedunen gainean (Eta Europa kontinentaleko eremu azpimenditsuetakoak) / <i>Agrostis</i> eta <i>Festuca</i> espeziez osaturiko larreak, Larre siliziedunak (<i>Deschampsia flexuosa</i>).	A	Ona	22 a 27,
6430/E5.43	Maila menditarretik alpetarrera bitarteko ordoki-orletako megaforbio eurotrofo hifroloak /Megaforbio pininiotarrak eta iberiarrak.	B	Txarra-Ezegokia	14 a 21
6510/E2.21	Altitude txikiko sega-belari pobreak / Sega-belardi atlantiarrek, ez larratuak	C	Txarra-Kaskarra	
7140/D2.3	Trantsizioko mirak / Tranpal azidofilo-esfagnalak	C	Txarra-Kaskarra	30, 31, 33
7210*/D5.24	Turberas calcáreas de <i>Cladium mariscus</i> / Trampales de <i>Cladium mariscus</i>	B	Txarra-Kaskarra	30, 31, 33

2016ko irailaren 13a, asteartea

Kodea HIC/EUNIS	Izena	Adierazgarritasuna	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
8130/H2.64	Askatze mediterraneokoak, mendebaldekoak eta termofiloak / Kareharrizko hartxingadietako landaredia	B	Ona	40
8210/H3.2	Kareharrizko malakar arrokatsuetako landaredia kasmoitikoa / Harkaizti basikoetako landaredia	A	Ona	40
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	A	Ona	40, 49, 52
9120/G1.62	Pagadi azidofilo atlantikoak <i>Ilex</i> oihanpearekin eta batzuetan <i>Taxus (Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion)</i> / Pagadi azidofilo atlantikoak. .	A	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 8, 9, 10, 11
9180*/G1.A4	Maldetako basoak, askatzeak edo <i>Tilio-Acerion</i> deritzonaren trokak / Kareharrizko haitzebakiak oineko baso mistoa	A	Ona	1 a 7
91E0*/G1.21(Z)	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> espezieetako baso alubialak / Ibaiertzetako haltzadi eurosiberiarra	D	Txarra-Kaskarra	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 14 a 21
9230/G1.7B1, G17B2	Harizti galaiiko-portugaldarrak, <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> -rekin / Iberiar Penintsularen erdialdeko <i>Quercus pyrenaica</i> basoak, amezti kantaauriarrak	D	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 8, 9, 10
9340/G2.121	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> espezieetako artadiak / <i>Quercus ilex</i> baso mesomediterranearrak	A	Txarra-Ezegokia	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7
9580*/G4.(Y)	<i>Taxus baccata</i> espezieaz osaturiko baso mediterranearrak / Kareharrizko haitzebakiak oineko baso mistoa, hagin ugariekin.	C	Ona	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7
G1.64	Pagadi basofiloa edo neutroa	-	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 8, 9, 10, 11
G1.82	Pagadi-harizti azido atlantiarra	-	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 8, 9, 10, 11
G1.71	<i>Quercus gr. pubescens</i> erkamezia	-	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 8, 9, 10
G1.86	Harizti azidofilo iberiar-atlantiarrrak	-	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 8, 9, 10
G1.A1	Hostotsuen baso misto mesotrofoa, atlantiarra	-	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 8, 9, 10

2016ko irailaren 13a, asteartea

Espezieen taula

Kodea	Espezia	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
13160	<i>Aconitum variegatum</i> subsp. <i>pyrenaicum</i>				VU	Ezezaguna	22 a 27, 39, 43
12730	<i>Allium victorialis</i>				BAKANA	Ona	39, 43
16656	<i>Armeria pubinervis</i> subsp. <i>orissonensis</i>				BAKANA	Txarra-Ezegokia	22 a 27, 39, 43
10826	<i>Arnica montana</i>	V			VU	Txarra-Ezegokia	22 a 27, 39, 43
10929	<i>Carlina acaulis</i> subsp. <i>simplex</i>				BAKANA	Txarra-Ezegokia	22 a 27, 39, 43
10918	<i>Cicerbita plumieri</i>				EP	Txarra-Kaskarra	22 a 27, 39, 43
12785	<i>Coeloglossum viride</i>				VU	Ezezaguna	22 a 27, 39, 43
10880	<i>Crepis pyrenaica</i>				VU	Txarra-Ezegokia	22 a 27, 39, 43
13130	<i>Dryopteris submontana</i>				VU	Txarra-Ezegokia	39, 43
12276	<i>Geum pyrenaicum</i>				VU	Ezezaguna	22 a 27, 39, 43
12209	<i>Geum rivale</i>				EP	Txarra-Kaskarra	22 a 27, 39, 43
12801	<i>Himantoglossum hircinum</i>				BAKANA	Txarra-Ezegokia	22 a 27, 39, 43
10788	<i>Ilex aquifolium</i>				IE	Ona	1 a 7, 39
16643	<i>Lathyrus vivantii</i>				EP	Txarra-Kaskarra	22 a 27, 39, 43
10682	<i>Lycopodium clavatum</i>	V			BAKANA	Ezezaguna	22 a 27, 39, 43
16674	<i>Narcissus asturiensis</i>	II		*	IE	Ona	22 a 27, 39, 43

2016ko irailaren 13a, asteartea

Kodea	Espezia	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
16690	<i>Narcissus pseudonarcissus vardulensis</i>	II			BAKANA	Ona	22 a 27, 39, 43
16621	<i>Nigritella gabasiana</i>				EP	Txarra-Kaskarra	22 a 27, 39, 43
10667	<i>Ophioglossum vulgatum</i>				BAKANA	Ona	22 a 27, 39, 43
12716	<i>Paris quadrifolia</i>				BAKANA	Txarra-Ezegokia	39, 43
14277	<i>Pedicularis foliosa</i>				BAKANA	Ezezaguna	22 a 27, 39, 43
16652	<i>Pulsatilla alpina</i> subsp. <i>cantabrica</i>				BAKANA	Txarra-Ezegokia	39, 43
11789	<i>Ribes petraeum</i>				BAKANA	Txarra-Ezegokia	39, 43
12719	<i>Ruscus aculeatus</i>	V			IE	Ona	1 a 7, 39
11024	<i>Senecio doronicum</i>				VU	Ezezaguna	22 a 27, 39, 43
10717	<i>Taxus baccata</i>				IE	Ona	1 a 7, 39
12755	<i>Tofieldia calyculata</i>				VU	Ona	53 a 72, 94, 103
12033	<i>Trollius europaeus</i>				VU	Txarra-Kaskarra	53 a 72, 94, 103
12715	<i>Veratrum album</i>				IE	Ona	53 a 72, 94, 103
12536	<i>Viola bubanii</i>				BAKANA	Txarra-Ezegokia	22 a 27, 39, 43
14131	<i>Parachondrostoma miegii</i>	II				Ona	17, 18, 19
10002	<i>Austropotamobius italicus</i>	II-V		VU	EP	Txarra-Kaskarra	17, 18, 19, 20
	<i>Cerambix cerdo</i>	II-IV		*	IE	Ezezaguna	1 a 7, 8,
10008	<i>Elona quimperiana</i>	II-IV		*		Ezezaguna	1 a 7, 8, 10

2016ko irailaren 13a, astearta

Kodea	Espezia	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
	<i>Euphryas aurinia</i>	II		*		Ezezaguna	1 a 7, 8, 10
10022	<i>Lucanus cervus</i>	II		*	IE	Ezezaguna	1 a 7, 8, 10, 13
	<i>Maculinea arion</i>	II		*		Ezezaguna	1 a 7, 8, 10
	<i>Osmoderma eremita</i>	II		VU	VU	Ezezaguna	1 a 7, 8
	<i>Parnassius apollo</i>	II		*		Ezezaguna	1 a 7, 8, 10
	<i>Rosalia alpina</i>	II-IV		*	IE	Ezezaguna	1 a 7, 8, 12
10042	<i>Alytes obstetricans</i>	IV		*		Ezezaguna	1 a 7, 9, 10, 32
16549	<i>Ichthyosaura alpestris</i>			*	VU	Ezezaguna	1 a 7, 32
10059	<i>Triturus marmoratus</i>	IV		*		Ezezaguna	1 a 7, 32
16551	<i>Zamenis lineatus</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	8, 9, 10
10061	<i>Accipiter gentilis</i>			*	BAKANA	Ezezaguna	1 a 7, 10,
10062	<i>Accipiter nisus</i>			*	IE	Ezezaguna	1 a 7, 10
10071	<i>Alcedo atthis</i>		I	*	IE	Ezezaguna	14 a 18, 21, 32
10086	<i>Aquila chrysaetos</i>		I	*	VU	Ezezaguna	1 a 7, 10, 11
10098	<i>Bubo bubo</i>		I	*	BAKANA	Ona	1 a 7, 10
10110	<i>Caprimulgus europaeus</i>		I	*	IE	Ezezaguna	3, 4, 5, 8, 9, 10
10114	<i>Carduelis spinus</i>			*	IE	Ezezaguna	3, 4, 5, 8, 9, 10
10126	<i>Circaetus gallicus</i>		I	*	BAKANA	Ezezaguna	22 a 27
10125	<i>Cinclus cinclus</i>			*	IE	Ezezaguna	14 a 18, 21, 32
10128	<i>Circus cyaneus</i>		I	*	IE	Txarra-Kaskarra	22 a 27

2016ko irailaren 13a, asteartea

Kodea	Espezia	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10129	<i>Circus pygargus</i>		I	VU	IE	Ezezaguna	22 a 27
10131	<i>Coccothraustes coccothraustes</i>			*	IE	Ezezaguna	3, 4, 5, 8, 9, 10
10135	<i>Corvus corax</i>				IE	Txarra-Ezegokia	22 a 27
10145	<i>Dryocopus martius</i>		I	*	BAKANA	Ona	1 a 6, 8, 9, 10
10156	<i>Falco peregrinus</i>		I	*	BAKANA	Ona	22 a 27, 34 a 38, 41, 42
10157	<i>Falco subbuteo</i>			*	BAKANA	Ezezaguna	3, 4, 5, 8, 9, 10, 22 a 27,
10159	<i>Ficedula hypoleuca</i>			*	BAKANA	Ezezaguna	3, 4, 5, 8, 9, 10
10173	<i>Gypaetus barbatus</i>		I	EP	EP	Txarra-Kaskarra	22 a 27, 34 a 38, 41, 42
10174	<i>Gyps fulvus</i>		I	*	IE	Ona	22 a 27, 34 a 38, 41, 42
14014	<i>Hieraetus pennatus</i>		I	*	BAKANA	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 10
10182	<i>Jynx torquilla</i>			*	IE	Ezezaguna	1 a 6, 8, 9, 10, 14, 15
10183	<i>Lanius collurio</i>		I	*		Ezezaguna	5, 8, 9, 10
10626	<i>Lanius excubitor</i>			*	VU	Ezezaguna	5, 8, 9, 10
10206	<i>Milvus migrans</i>		I	*		Txarra-Ezegokia	1 a 7, 10, 14, 15
10207	<i>Milvus milvus</i>		I	EP	EP	Txarra-Ezegokia	1 a 7, 10, 14, 15
10216	<i>Neophron percnocterus</i>		I	VU	VU	Txarra-Ezegokia	22 a 27, 34 a 38, 41, 42
10236	<i>Pernis apivorus</i>		I	*	BAKANA	Txarra-Ezegokia	5, 8, 9, 10
10243	<i>Phoenicurus phoenicurus</i>			VU	VU	Ezezaguna	3, 4, 5, 8, 9, 10
10246	<i>Phylloscopus trochilus</i>			*	BAKANA	Ezezaguna	3, 4, 5, 8, 9, 10

2016ko irailaren 13a, asteartea

Kodea	Espeziea	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10258	<i>Prunella collaris</i>			*	IE	Ezezaguna	3, 4, 5, 8, 9, 10
10263	<i>Pyrhacorax graculus</i>			*	IE	Ezezaguna	22 a 27, 34 a 38, 41, 42
10264	<i>Pyrhacorax pyrrhacorax</i>		I	*	IE	Ezezaguna	22 a 27, 34 a 38, 41, 42
10298	<i>Sylvia undata</i>		I	*		Ezezaguna	5, 8, 9, 10
10319	<i>Barbastella barbastellus</i>	II-IV		*	EP	Ezezaguna	5, 8, 9, 10
10349	<i>Chionomys nivalis</i>				BAKANA	Txarra-Ezegokia	23, 24, 40
10322	<i>Eptesicus serotinus</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	5, 8, 9, 10
10323	<i>Felis sylvestris</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	5, 8, 9, 10, 44 a 46
10324	<i>Galemys pyrenaicus</i>	II-IV		VU	EP	Txarra-Kaskarra	14 a 21, 32
14144	<i>Glis glis</i>			VU	VU	Ezezaguna	1 a 7 8
10331	<i>Martes martes</i>				BAKANA	Ezezaguna	1 a 7 10
10333	<i>Miniopterus schreibersii</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	5, 8, 9, 10, 44 a 49
10334	<i>Mustela lutreola</i>	II-IV		EP	EP	Txarra-Kaskarra	14 a 21, 32
10336	<i>Mustela putoris</i>	V			IE	Ezezaguna	5, 8, 9, 10
10339	<i>Myotis daubentonii</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51
10340	<i>Myotis emarginatus</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51
10341	<i>Myotis myotis</i>	II-IV		VU	EP	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51
10342	<i>Myotis mystacinus</i>	IV		VU	EP	Ezezaguna	5, 8, 9, 10, 46 a 49
10343	<i>Myotis nattereri</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	5, 8, 9, 10, 46 a 49

2016ko irailaren 13a, asteartea

Kodea	Espezia	DH eranskina	DA eranskina	LESPRE eta CEEA	CVEA	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion kontserbazio-arauak
10345	<i>Nyctalus leisleri</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	5, 8, 9, 10, 46 a 49
10347	<i>Pipistrellus kuhlii</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51
10349	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	IV		*	IE	Txarra-Ezegokia	5, 9, 10, 44 a 51
10351	<i>Plecotus austriacus</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51
10354	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51
10355	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	II-IV		*	IE	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51
10353	<i>Rhinolophus euryale</i>	II-IV		VU	EP	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51
10356	<i>Tadarida teniotis</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	5, 9, 10, 44 a 51

8.- JARRAIPIEN PROGRAMA.

Jarraipen-programa hau sei urteko alditan burutuko da, eta tarteko ebaluazioa ere egingo da (3 urte igaro ostean), administrazio eskudunek koordinatuta.

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa / berariazkoa/emaitza	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako helburu balioa (orientatzailea)	Horizontea (orientatzailea)
Basoak	Basoen egungo kontserbazio-egoerari eta kudeaketa-behar zehatzei buruzko ezagutza hobetzea	Kontserbazio-egoera: Ona, Txarra-Ezegokia, Txarra-Kaskarra	Zenbatespen kualitatiboa	Zenbatespen kuantitatiboa	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Basoen kontserbazio-egoera hobetzea, haien berariazko dibertsitatea eta egiturazko konplexutasuna hobetzen dituzten faktoreak areagotuz	Naturaltasun indizeak Egur hilaen bolumena hektareako	Ezezagunak Ezezaguna	Kalkulatu eta hobekuntza esanguratsua 40 m3/ha	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera Dokumentuaren indarraldiaren bukaera

2016ko irailaren 13a, astearta

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa / berariazkoa/ emaitza	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako helburu balioa (orientatzailea)	Horizontea (orientatzailea)
Haltzadi kantauriarra	Haltzadi kantauriarren kontserbazio-egoera behar hainbateko zehaztasunez ezagutzea, bai eta bisoi europarraren, muturluze piriniotarraren eta ibai-karramarroaren populazioen egoera ere.	Kontserbazio-egoera: Ona, Txarra-Ezegokia, Txarra - Kaskarra	Zenbatespen kualitatiboa	Zenbatespen kuantitatiboa	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Gutxienez ere 2.000 metro luzerako eta 10 metro zabalerako haltzadi zerrenda bat lehengoratzea bisolaren eta muturluzearen garrantziko eremuaren barruan, eta gutxienez ibai-karramarro autoktonoaren bederatzita populazio mantentzen dira Naturagune Babestuan	Azaleratua (m2) lehengoratua	0	20.000 m2	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
Larreak eta belar formazioak	Batasunaren intereseko larreen eta haien lotutako flora mehatxatuaren kontserbazio-egoera behar hainbateko zehaztasunez ezartzea, adierazle kuantitatiboan bidez.	Abeltzaintza kudeaketa KBE kontserbatzarekin bateragarria (Larreak Antolatzeako Plana, Natura Gune Babestuaren parametroen eta helburuen arabera)	Desantolatua	Antolatua	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Larreak eta larreetako espezie bereizgarriak mantentzea bermatuko duen abeltzaintza-kudeaketa egitea, zuhaixka-estaldura gehienez % 25ekoa izango duena, eta eremu higatuen azalera edo espezie nitrofiloen eta zapalketara egokituta dauden espezieen azalera gehienez % 10 izango duena.	Atzemaite eta zenbatze azterlanak. Mehatxuen kontrako babes neurriak hartuko dira. Ordenantzak koordinatzen dira bazkalekuak aprobetxatzeko.	Ez daude	Badaude eta hobekuntza esanguratsua	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Gutxienez ere, sega-belardien egungo azalera kartografiatuaren % 30 mantentzea	Kontserbazio-egoera: Ona, Txarra-Ezegokia, Txarra-Kaskarra	Zenbatespen kualitatiboa	Zenbatespen kuantitatiboa	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Landazabaleko paisaiaren heterogeneotasun espaziala eta egiturazko dibertsitatea mantentzea	Paisaiaren heterogeneotasun adierazlea	Ezezagunak	Kalkulatu eta hobekuntza esanguratsua	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Abeltzaintza-jarduerak flora mehatxatuan, <i>Cladium mariscus</i>	Mehatxuen kontrako babes neurriak hartuko	Inexistentes	Badaude eta hobekuntza	Dokumentuaren indarraldiaren

2016ko irailaren 13a, asteartea

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa / berariazkoa / emaitza	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziazko helburu balioa (orientatzailea)	Horizontea (orientatzailea)
Harkaitzetako komunitateak	tranpalean eta trantsizioko miretan dituen eraginak ezabatzea	dira		esanguratsua	bukaera
	Harkaiztiei lotutako espezie mehatxatuen populazioen egoera egun zertan den zehaztasunez jakitea	Kontserbazio-egoera: Ona, Txarra-Ezegokia, Txarra-Kaskarra	Zenbatespen kuaitatiboa	Zenbatespen kuantitatiboa	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Harkaitzetako eta kobetako komunitateen gainean dauden mehatxu-faktoreak prebenitu eta ezabatzea	Atzimate eta zenbatze azterlanak. Mehatxuen kontrako babes neurriak hartuko dira	Inexistentes	Badaude eta hobekuntza esanguratsua	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
Kiropteroak	Naturagune Babestuko kiroptero-espezieen populazioen banaketa eta egoera zehatz-mehatz jakitea, bai eta zer faktorek mugatzen duten haien kontserbazio-egoera ona.	Kiroptero espezieen banaketa eta ugartasuna	Ezezaguna	Espezieen % 100erako ezaguna	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
	Kiropteroen baliabide trofikoak eta haien joan-etorriak sustatzeko elementuak handituko dira, habitata kontserbatu eta hobetzearen bidez:				
	Kiropteroen aterpeak egokiro babestuko dira, haien populazioei eragozpenak eragiten dizkieten faktoreak kenduz.	Ezagutzen diren aterpe aktiboen %	Ezezaguna	Ezaguna eta urteko batez beste gutxienez % 2ko igoera	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera
Kiropteroen errekonozimendu eta balorazio maila hobetuko da, haien garrantzia zabalduz	Sentsibilizazio kanpainak	0	*1	Dokumentuaren indarraldiaren bukaera	